



**BIGARREN HEZKUNTZAKO  
INSTITUTUETAN  
2015-2016 IKASTURTEA  
ANTOLATZEKO MODUARI BURUZKO  
HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN  
EBAZPENA**



## AURKIBIDEA

### Atarikoa

#### 1. IKASLEAK, HEZKUNTZA-SISTEMAREN ARDATZ

- 1.1. Sarrera
- 1.2. Oinarri teorikoak
- 1.3. Hezkuntzaren antolamendua eta planifikazioa
- 1.4. Ikasleen antolamendua
- 1.5. Ikasleen ebaluazioa

#### 2. IRAKASLEAK, HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN ERAGILE

- 2.1. Sarrera
- 2.2. Oinarri teorikoak
- 2.3. Irakasleen antolamendua
- 2.4. Irakasleen prestakuntza

#### 3. HEZKUNTZA-KOMUNITATEA ETA ADMINISTRAZIOA, hezkuntza-ildoak eta -programak ezartzen laguntzeko buru eta arduradun

- 3.1. Sarrera
- 3.2. Oinarri teorikoak
- 3.3. Ikastetxeetako eraikin eta instalazioen erabilera urteko planetik kanpoko jardueretarako
- 3.4. Ikastetxeetako osasun eta segurtasunari buruzko araudia
- 3.5. Lan arriskuen prebentziorako zerbitzuaren arautegia
- 3.6. Kudeaketa-proiektua



## BIGARREN HEZKUNTZA 2015-2016 IKASTURTEAN HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN EBAZPENA

### ATARIKOA

Euskal hezkuntzak egin duen ibilbidea goraiatzekoa da, hala alderdi kuantitatiboan nola kualitatiboan, bertako, kanpoko zein nazioarteko adituek aitortu duten moduan.

Hala ere, hezkuntza-komunitateko hainbat ahotsek urteak daramatzate koherentzia eskatzen, gizartearen eskakizunak, mende honetako erronkak eta ikastetxeei ezartzen zaizkien bete beharreko eskakizunak bat etor daitezten. Azken hamarkadetan gero eta sarriago izaten dira nazioarteko, estatu mailako zein tokian tokiko ebazpenak eta txostenak zeinetan ikaslea ardatz duten hezkuntza sistemak defendatzen dituzten. Sistema hauek ikaslearen garapen pertsonala, bai eta profesionala ere lortzen laguntzen diote bere bitzita osorako ikasketa oinarriak ezarriz.

Bitzita osoan zeharreko ikaskuntzak berekin dakar onartzea hezkuntza, oro har, hezkuntza-sistema harago doala eta, beraz, ingurune formal, ez-formal eta informaletan eskuratu eta elikatutako ikaskuntzak aintzat hartu behar direla.

Aurreko premisa horietatik ondorioztatzen da hezkuntza-sistema ikasleen garapenera egokitu behar dela, ikaslea pertsona autonomoa izan dadin, gizarte bidezkoa eta jasangarriago bat eraikitzeko proposamenen inguruan hitz egiteko eta elkarlanean aritzeko gai dena eta bere ikaskuntza pertsonala jarduera onuragarri eta aberasgarria bihurtzeko gaitasunak dituen, eskolan ez ezik ahalik eta esparru eta egoera gehienetan..

Oinarritzko, diziplina baitako eta zeharkako kompetentziak edo gaitasunak eskuratzeak ikasleari ahalbidetuko dio ibiltzen den esparru guztietan era aktibo eta konprometituan esku hartzea, bere ahalbide indibidualak ahalik eta gehien garatzea eta, era berean, gizartearen garapen jasangarrian eta hobekuntzan inplikatu eta parte hartzea.

Bizikidetza, elkartasuna eta jasangarritasuna, aukera-berdintasuna eta justizia soziala bezalako balioetan ainguratutako gizarte bat eraikitzeko eginkizunean elkarrekin lan egin nahi badugu, hezkuntza izan daiteke prozedura demokratiko eta baliagarriena, jakin badakigulako haur eta gazte guzti-guztiak biltzen direla hor, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari dagokio eskubide hori betearaztea.

Badakigu, gainera, hezkuntzan egindakoa dela inbertsiorik onena aurrez aurre ditugun erronkei erantzuteko, hezkuntza eta prestakuntza funtsezko tresnak baitira gure herriaren etorkizunerako, garapen pertsonal eta profesionalerako jasangarritasunerako, gizarte-kohesiorako eta herritarren elkarbizitarako.

Horregatik, metatutako ezagutza guztia eta giza baliabideak, baliabide materialak eta funtzionalak aitortu eta bildu behar ditugu, eta hori dena familiek, hezkuntzako profesionalak eta, ahal den neurrian, esku hartzen duten eragile guztiek partekatuko duten hezkuntza-proiektu baten alde jarri behar dugu, hezkuntza-sistema bikaintasunaren eta berrikuntzaren motorra izan dadin eta, horrela, gaur egun ditugun eta gure ikasleek etorkizunean heldu beharko dieten erronka pertsonal, sozial, ingurumeneko eta ekonomikoei segurtasunez aurre egin ahal izan diezaiegun.



Premisa teoriko horiei eta berrikuntzaren aldeko asmo horiei jarraiki, ikasturte hasierako ebazpen honetarako oinarritzko hiru atal proposatzen ditugu. Lehendabizikoa, ikasleena, hezkuntzaren muina eta funtsezko arrazoa diren heinean; gainera, ikasleen hezkuntzarako eskubideak 1948tik babestuta daude nazioarteko hainbat itunetan eta baita, besteak beste, Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legean eta ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzko 201/2008 Dekretuan ere. Bigarrena, irakasleena, hezkuntza-komunitatearen motorra, besteak beste arau hauen babesean dihardutenak: 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa (EHAA, 1989-07-28koa); 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitateko kanpoko Irakasleen Kidegoei buruzkoa; 7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuarena (EHAA, 2007-04-13koa); 185/2010 Dekretua, uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzekoa (EHAA, 2010-07-16koa), eta arau horiek gauzatzen diren bestelako dekretuak. Eta, azkenik, hezkuntza-komunitatea eta administrazioarena, hizpide dugun prozesua abian jartzeko abiapuntua izango dena.

Horrenbestez, Sailburuordetza honen asmoa da, orain arte hitzartutako zuzenbidezko oinarriak errespetatuz eta ikastetxeek gaurdaino egin duten lana eta ekarri dituzten berrikuntzak aitortuz, 2015-2016 ikasturterako eskola-plangintza erraztuko duen ebazpen bat egitea. Plangintza hori, jakina, hezkuntza-komunitate bakoitzaren eta horien gizarte-ingurunearen behar eta erritmoetara egokituko da, alde batetik ikasle guzti-guztien eskubideak betearazteko eta, bestetik, hezkuntza integrala eskaintzeko.

Ebazpen honek antolatu nahi duen hezkuntza-ekintzaren muinean xede etiko bat dago, hezkuntzaren profesionalek nahiz administrazioak berak, familiek eta erakundeek helburutzat hartu behar duguna: ikasleak prestatzea gizartean aurrera egin ahal izan dezaten eta, era berean, gizarteari oro har beren ekarpena egin diezaioten.

Hezkuntzaren arloan, xede hori lortzeko bidea da ikasleengan ditugun itxaropenak gorago jartzea eta errendimendu handia dutenen eta apala dutenen arteko distantzia txikiagotzea. Izan ere, ikasle guztiek eskubide batzuk dituzte, gure zeregin profesional eta kolektiboaren erreferentzia eta jomuga izan behar dutenak. Gainera, nazioarteko ikerketen arabera, ez dago ekitatea ala bikaintasuna aukeratu beharrik, biak batera lantzen dituzten hezkuntza alorreko jarduerak badaude, eta horiek aplikatzen dituzten herriak eta ikastetxeak emaitza hobekia lortzen ari dira nazioarteko ebaluazioetan. Horregatik aipatu ditugu berariaz ikasleen eskubideak.

Ikasleen emaitzak hobera aldatzeko helburu horrek lotura estua du ebazpenean txertatu diren ekarpenekin, eta, zehazki, balio erantsi handiko ikastetxeetan antzeman diren jardunbide egokiak<sup>1</sup>. Ikastetxe horietan, antzeko ISEK indizea duten ikastetxeak baino esanguratsuak diren emaitza hobekia lortzen dituzte. Beraz, hezkuntza-komunitate horietan, ikasleen emaitzak hobetzea ahalbidetzen duten hezkuntza-jardunbideak baliatzen dituzte.

Zentzuzkoa dirudi, beraz, hezkuntza-komunitateen eskarmentuaz eta egindako ikerketa eta ebaluazioez metatutako ezagutza biltzeak, horiek argi eta garbi adierazten baitute hezkuntzak ahalmena duela gizarte-ezberdintasunak murrizteko, eta hezkuntza-komunitatea gai dela neurri egokiak hartzeko.

---

<sup>1</sup> Eusko Jaurlaritza- ISEI/IVEI & UPV (2013). *Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak*. [http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/handikobalioa/txosten\\_laburra.pdf](http://www.isei-ivei.net/eusk/argital/handikobalioa/txosten_laburra.pdf).



Metatutako ezagutza hori biltzeko helburuarekin urtearen hasieran hezkuntzako gizatalde ugariaren artean banatzen da dokumentu hau, eta bakoitzak bere alorretik berrikusi eta eguneratze ekarpenak egiten dizkio. Gizatalde horien artean daude Berritzegune Nagusia, eskualdeetako Berritzeguneak, hezkuntza Ikuskaritza, hezkuntza-komunitateak, ikastetxeetako zuzendari elkarteak, hezkuntza administrazioko zerbitzu buruak, ISEI-IVEI, Sindikatuak. Halaber biltzen ditu ere irakasleek bakarka egindako ikerketen, balio erantsi handiko esperientzien edota aritutako berariazko lanen ondorioz egindako ekarpenak.

Dokumentua aurten ehunka izan diren ekarpen horiekin guztiekin aberasten da, eta bere baitan hartzen ditu hezkuntza-komunitate osoarentzat erabilgarri izan daitezkeen. Halaber, ekarpen guztietako hobekuntza edota bateratze alderdi komunak azpimarratzen ditu eta horietan eragiten du.

Zentzu horretan, ugari izan dira hezkuntza-komunitate bakoitzak, bere ezaugarriak aintzat hartuta, ikastetxeko hezkuntza proiektua behar dutela adierazi ditzuzten ahotsak. Ikastetxeko hezkuntza proiektuak bildu, giltzatu eta zentzu bateratua ematen dielako ikastetxean garabidean dauden hainbat eta hainbat ekimeni.

Helburu horrekin, hezkuntza-administrazioak konpromisoa hartzen du hezkuntza-komunitateekin elkarlanean aritzeko eta komunitate bakoitzak bere berrikuntza- eta hobekuntza-prozesuen erritmoa markatu dezan uzteko. Horretarako:

- a. Ez da orotariko proiektuak eta programak eskatzen tematuko, bidezkoa baita ikastetxeek berek gaurdaino garatu diren prozesuei buruz gogoeta egitea eta horiek ebazpenean ageri diren alderdiak jasoko dituen **hezkuntza-proiektu koherente** batean txertatzea, ikasleen eskubideek lehentasuna izango duten ikuspegi inklusibo batez eta ikasleak berekin dakarren horri eskolak eskain dezakeen aberastasuna gehituz. Hori guztia, familiekin eta hezkuntza-komunitatean parte hartzen duten inguruko erakundeekin elkarlanean egingo da.
- b. Sailak hezkuntza-proiektua lantzea eta haren jarraipena egitea erraztuko duen **Gida** bat osatu du<sup>2</sup>.
- c. Aniztasuna ikuspegi etiko eta inklusibo batez barne hartzen duten ekimenak, besteak beste, Hamaika esku<sup>3</sup>, Programa, HBSP-PREE, Bidelaguna, CA-Curriculum Anitzeko programak, HIPI eta kultura arteko dinamizazioa, HIBP-PIRE eta hezkuntza laguntzako premia espezifikoei arreta emateko beste erantzun batzuk sustatzen jarraituko du.
- d. Hobekuntza-planaren proposamenak biltzen dituen urteko plana baliatuko da hobekuntza-planaren eta hezkuntza-proiektuaren helburuak lortze aldera hezkuntza-komunitateak adostutako ekimenak gauzatzeko. Ekimen horien xede nagusia da, ezinbestez, hezkuntza-komunitateko ikasle bakoitzaren ahalmen pertsonal, sozial eta akademikoak ahalik eta gehien garatuko dituen hezkuntza integral bat eskaintzea.

Hortaz, ebazpen honen asmoa da Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan 2015-2016 ikasturtearen hasiera eta garapena bideratu eta arautzea.

Ikastetxeko Zuzendaritza Taldeak behar diren estrategiak erabiliko ditu ikastetxeko irakasle guztiek ebazpen honen edukia garatu eta ezarriko dutela bermatzeko.

<sup>2</sup> Eusko Jaurlaritza (2014). *Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua egiteko gida*.

<sup>3</sup> Eusko Jaurlaritza (2014). *Plan Hamaika Esku*



Legeak ikastetxeetako Ordezkaritza Organo Gorenei (OOG) edo Eskola Kontseiluei aitortzen dizkien eskumenak eta Ebazpen honek azaltzen diren gaiak kontuan izanik, ikastetxe bakoitzeko Zuzendaritza Taldeak Ebazpen honen edukiaren berri emango dio aipatu organoari, 2015-2016 ikasturtearen hasieran egingo duen lehenengo bileran.



## 1. IKASLEAK: HEZKUNTZA-SISTEMAREN ARDATZA

### 1.1. SARRERA

Atarikoan adierazitakoaren haritik, balioetan ainguratuta dagoen hezkuntza-sistema batek pertsona guztiak babestu behar ditu, bakoitzaren berezitasunak eta ezberdintasunak errespetatuz. Aniztasuna babestu behar du, pertsona bakoitza, ikasle bakoitza, berdingabea baita bere indargune eta ahuluneekin. Kolektiboa osatzen duten pertsonen ezberdintasunak eta berezko izaerak zaintzen, onartzen eta elikatzen direnean, desorekak saihesten dira eta bazterkeriarik gabeko hezkuntza baten oinarriak finkatzen dira, aniztasuna aberastasun-iturri gisa, ikasle bakoitzaren eskubide gisa eta hezkuntza-komunitateari bereziki eta hezkuntza-sistemari eta gizarteari oro har eskaintzeko balio erantsi gisa sustatzen duen hezkuntza baten zutabeak.

Ildo horretan, bizitza osoan zeharreko hezkuntzaren izaera bera lagungarria da gure ikasleek ingurune ezberdinetan –esaterako, familian, eskolan, eskolatik kanpo eta komunitatean – ikasi ahal dezaten, eta, beraz, ingurune horiek guztiak aintzat hartu behar dira alde batetik hezkuntzarako eskubidea bermatuko duen eta, bestetik, derrigorrezko hezkuntzako ikasleen eskubideak eta betebeharrak ezarriko dituen hezkuntza-ibilbide bat lantzeko orduan.

Ikaslearen irteera-profil orokorrak definituko ditu ikasleak lortu behar dituen oinarriko konpetentziak, hezkuntza xedeak lortzeko eta bizitzaren arloetan eta egoeretan moldatzen jakiteko<sup>4</sup>.

Horrek ez du hezkuntza-komunitatea salbuesten hezkuntza integral bat bermatzeko erantzukizunetik. Haren ardura izango da, beraz, hezkuntza-ibilbidea taxutzea, hezkuntza-komunitatean dauden baliabideak antolatu eta planifikatzea eta ikasleek bidezko eta kalitatezko hezkuntza, guztien arrakasta ahalbidetuko duena, jasoko dutela ziurtatzea.

### 1.2. - OINARRI TEORIKOAK

Atarikoan aipatu denez, komenigarria litzateke hezkuntza-komunitateak oinarritzat hartzea komunitateak berak gaurdaino metatu dituen eskarmentu eta ezagutza handiak.

Azken urteotan, ikastetxeek ezin konta ahala plan, programa edo jarduera berritzaile egin behar izan dituzte; askotan, gizarte, kultura edo hezkuntzako aldaketek hartaratuta, eta beste askotan, komunitatearen beraren premiek eta lehentasunek behartuta. Honaino iritsita, egokia litzateke formulak bilatzea ikastetxeko bizitzako hainbat alderdiren inguruko erabakiak dokumentu bakar eta kudeatzen erraz batean biltzeko. Ez da egokia plan mordoa sakabanatuta edukitzea, ahalegina egin behar da ikastetxeen erabakiak bateratu eta horiei koherentzia emateko, ikasleak oinarri dituen hezkuntza-proiektuaren antolaeratik abiatuta. Antolamenduaren ardatzak argia eta soila izan behar du, eta, gainera, hezkuntza-komunitateko bizitzaren gainerako alderdi guztiak uztartu eta islatzeko gai izan behar du.

<sup>4</sup> Eusko Jaurlaritza (2014). *Heziberri 2020 hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa*.



Horregatik proposatzen da 2015-2016 ikasturte honetan hezkuntza-komunitate bakoitzak, ikasle guztien berezitasunei arreta jarriko dien ikuspegi inklusibo batetik, ikastetxearen hezkuntza proiektua osatzea, horretarako gidak gomendatzen duenaren haritik.

Orain arte metatutako ezagutza bildu ondoren, egokia litzateke komunitateko kideen prestakuntzaren bidez eta adituen eta ikerketen gomendio eta emaitzen bidez ezagutza hori aberastea, balio erantsia sortu eta, horri esker, gai izan gaitezen pluraltasuna errespetatzeko eta nortasuna osatzen duten alderdi guztiak orekaz garatze aldera behar diren jakite, jarrera eta balioetan oinarritutako heziketa bat sustatzeko.

Gainera, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bultzatutako aplikazio informatiko desberdinen ezarpen prozesuek, ikasleei eta euren familiei buruzko informazio adierazgarriaren hobekuntza nabaria ekarri dute. Aldi berean erabilitako datu-base desberdinetan dauden akatsen detekzioari ere lagundu dio. Aplikazio desberdinen datuen interkonexioak sistemaren irteeren automatizazioa baimentzen duela kontuan izanez, hala nola espediente akademikoak, ziurtagiri desberdinak edo titulu akademikoak, aipaturiko datuen kalitatea bermatzea funtsezkoa gertatzen da, horregatik ezinbestekoa da bere gaurkotzea lortzeko ahalegina egitea.

Gaurkotze hori eginda, ikastetxeak kontrol-taula batera sartu ahal izango dira, non datu objektiboetan oinarritutako diagnosi azterketetatik hobekuntza alderdiak zehaztu ahalko dituzten.

Horregatik, hain zuzen ere, gomendatzen da 2015eko irailaren 28a baino lehen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren aplikazio informatiko desberdinetan informazio hauek eguneratzea.

2015-2016 ikasturtetik aurrera, Hezkuntza Ikuskaritzak ikastetxeentzat eskuragarri jarriko du plataforma informatiko bat zeinetara orain arte posta bidez edota posta elektronikoz bidaltzen ziren planifikazio eta gestio dokumentuak bertara igoko dituzten. Honakoa egiteko, bere garaian behar diren arauak argitaratuko dira.

Aurreko guztia oinarri harturik, hurrengo orrialdeetan egingo den gomendio nagusi bat izango da **Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP)** izatea hezkuntzaren antolaketa eta plangintza egituratuko duen ardatza.

### 1.3. - HEZKUNTZA-ANTOLAKETA ETA -PLANGINTZA

#### 1.3.1. - IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) ikastetxearen erabaki eta proiektu handiei gorpuzta, koherentzia eta orientazioa ematen dien agiria da. Eskola-komunitateak, bere autonomiaren bidez, ikastetxe horretarako osatutako hezkuntza-aukera adierazten du bertan. Ondorioz, IHP proposamen integrala eta globala da; ikastetxearen beraren ezaugarrien analisia aintzat hartuta, bere ezaugarriak, balioak, printzipioak eta helburuak zehazten ditu, eta horiek nola bete adierazten du.

IHPk hezkuntza-asmo argia du, komunitateak hezigaiarentzat finkatutako aukera eta horretara xedatutako bitartekoak adierazten dituelako. Halaber, ikasle guztiei kalitateko hezkuntza ekitatiboa emateko konpromisoa islatzen du komunitateak, gizarte-bizitzarako beharrezko gaitasunak eskuratu ditzaten eta, horien bidez, eskola-arrakasta lor dezaten.





Aldi berean, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua familien, ikasleen eta ikastetxean airtzen diren profesionalen arteko elkargunea da. Gune horretan, eragile bakoitzak hezkuntzari buruz duen ikuspegia eta ikastetxearen ingurunearen interpretazioa plazaratuko ditu, eta guztien artean, hezkuntza-jarduerak oinarri izango dituen konpromisoak adostuko dituzte.

Ikastetxearen Hezkuntza Planeko atal desberdinek bat etorri behar dute indarrean dagoen araudiarekin, eta biltzen dituzten aspektuak nahitaezko erreferentzia dira ikastetxeak bere aginpidearen esparruan aurre egin beharreko erabakietan. Hezkuntza komunitateko eragile batzuk eta besteak: irakasleak, ikasleak, familiak eta langile ez irakasleak behartuta egongo dira plan horretako atal desberdinetan xedatutakoa errespetatzera, eta izatekotan ere, aukera izango dute plan horren berrikusketa eta eguneratzea bultzatzeko betiere proiektuan bertan finkatutako prozedurekin bat etorriz.

Aintzat hartuta 1/1993 Legea, Euskal Eskola Publikoarena, 201/2008 Dekretua, ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoa, eta 175/2007 eta 97/2010 dekretuak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzekoak, eta 12/2009 eta 121/2010 dekretuak, Haur Hezkuntzaren curriculuma ezartzekoak, ebazpenaren kapitulu honetan hezkuntza-antolaketa eta -plangintzari buruzko alderdiei helduko zaie eta ikasturte honetan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztiek kontuan hartu beharreko gutxieneko lehentasunak edo alderdiak ezarriko dira.

Ikasleen eskubide eta betebeharreko koherentea izango den hezkuntza-antolaketa bat taxutzeko asmoa, balioetan ainguratutako eskola inklusibo bat lortzeko xedea eta balio erantsi handiko komunitate bat izateko nahia; horiek garrantzitate proposatzera 2015-2016 ikasturte honetan, eta 1/1993 Legearen jarraibideei lotuz (46.2 artikulua), ikastetxeek, beren autonomia baliatuz, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) eguneratzera eramango duen prozesua abian jar dezatela. Halaber, kontutan hartuz prozesu bat parte-hartzaile eta eraginkorra izan dadin, batetik, ezin dela denboran etengabe luzatu, eta, bestetik, ikastetxe gehienek hurrengo hiru urteetarako zuzendaritza talde egonkorak izango dituztela, ikastetxe guztiek bukatu beharko dute beren IHPren egite edo eguneratzea 2016-2017 ikasturtea amaitu baino lehen.

Jarduera honetan laguntzeko asmoz, Sailak IHP egiteko *Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua egiteko gida* ikastetxe guztien esku jarri du.<sup>5</sup>

Ikastetxeek, 1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoarenak, 46. artikuluan jasotako IHPri buruzko xedapenak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzaileko Europa 2020 estrategia betetze aldera ezartzen dituen lehentasunezko ildoak jarraituz, hurrengo atalak garatu beharko dituzte, horretarako aipatutako gida jarraitzea eta Heziberri 2020n adostutako ildo estrategikoak aholkatzen delarik:

#### GIDAN LANDUTAKO HONAKO ATAL HAUEK:

- Ikastetxeko testuinguruaren azterketa
- Printzipioak, balioak eta nortasun-ezaugarriak
- Helburuak eta lehentasunak

<sup>5</sup> Eusko Jaurlaritza (2014). [\*Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua egiteko gida\*](#).



- Curriculumaren esparruan: Metodologia-aukerak, Ebaluazioa, Hezkuntza-eskaintza, Aniztasunari erantzutea, Orientabidea eta tutoretza, Hizkuntzen erabilera eta tratamendua, Prestakuntza eta berrikuntza
- Antolamenduaren esparruan: Ikastetxearen antolamendua, funtzionamendua eta kudeaketa, parte hartzeko eredua, bizikidetzak
- Iraunaldiari buruzko xehetasunak.

Bestalde, ildo estrategikoak garatzeko, Sailak eskura ditu hezkuntza-komunitateak jada abian jarrita dituen eta ildo horiekin zerikusia duten planak, esperientziak eta programak, besteak beste:

- I. Aniztasunean elkarrekin bizitzen ikastea
- II. Eleaniztasunerantz
- III. Sare\_Hezkuntza
- IV. Oinarriko kompetentzien garapena
- V. Bikaintasunerantz praktika onen eta ekintzaitzaren bidetik

Beraz, hausnarketarako eta hezkuntza-komunitateek metatutako eskarmentua eta ezagutza aitortzeko hasierako prozesu honetan, zeinaren azken xedea Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua lantzea den, gomendatzen da aintzat hartuak izan daitezela, 1/1993 Legean jasotako atalez gain, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak sustatzen dituen lehentasunezko bost ildoen garapena.

Ebazpen honetako aurreko ataletan aipatu den moduan, asko dira benetan bidezkoa eta kalitatezkoa izango den hezkuntza bat taxutzea, eskola-ingurunea gizartearen eskakizunetara egokitzea eta errealitate sozialak ezartzen dituen exigentzien eta sortu nahi den pertsona motaren arteko oreka bilatzea helburu duten esperientziak, planak eta programak garatzen urteak daramatzaten hezkuntza-komunitateak. Xede horrekin, urteak daramatzate hezkuntza-komunitate osoarekin kontsultatu, bateratu, antolatu, garatu eta ebaluatu dituzten eta OOGk onartu dituen esperientziak, planak eta programak garatzen.

Sarritan, ekimen horiek berak dira ikastetxeen eraginkortasun-indizeak igoarazi eta ikastetxe horiei aurrez aipatu balio erantsia eman dietenak. Horri dagokionez, gomendatzen da ikastetxeak prozesu eta ekimen horiek aitortu ditzala eta IHPren baitan aipa ditzala garapen-prozesuan dagoen esperientzia eta ezagutza gisa, eta aipa ditzala, halaber, urteko planean eta urteko memorian nahiz hobekuntza-planean, hezkuntza-komunitateak hala erabakitzen duenean.

Esan gabe doa hezkuntza-komunitateko sektore zabalen adostasunez eta engeiamenduaz abiatutako prozesu horiek jarraipena izango dutela ikasturte honetan, prozesu bakoitzari dagokion deialdian ezarritako baldintza beretan edo horiek ebaluatu ondoren ezartzen diren baldintzetan, hezkuntza-komunitateak berak amaitutzat jotzen dituen arte.



**I. Aniztasunari erantzun egokia ematen ahalegintzen den eskola inklusiboaren printzipioekin zerikusia dutenak.** “*Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa*” dokumentua dauka denontzat eskuragarri.<sup>6</sup> “

Aniztasunari erantzuteko planen jarduera-esparrua esku-hartze esparru orokor batean txertatuta egongo da. Ikastetxe bakoitzak bere IKASTETXEAREN HEZKUNTZA PROIEKTUA izango du, non ezarriko dituen ikasle guztiek ikasteko eta parte hartzeko dituzten eragozpenak txikiagotzeko ildoak. Horren emaitza gisa, ikastetxe bakoitzak bere Aniztasunari Erantzuteko Planean (AEP) zehaztuko ditu egin beharreko ekintzak eta bertan metatzen joango dira hezkuntza-komunitateak, horri lotuta, dagoeneko abian dituen plan, esperientzia eta programak ildo honetatik oso garrantzitsua da ekitatea eta bikaintasuna batera lantzen dituzten arrakasta praktikak kontuan hartzea.

1. **Emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzeko neurriak sustatzea.** Hezkidetzaredua ikastetxeek landuko dituzten dokumentu eta ekintza guztietan bildu beharko da, izaera sexista duten materialak edo praktikak baztertzeari arreta berezia emanaz eta parekidetasunezko eta tratu oneko harremanak bultzatzea, genero biolentzia eta indarkeria sexista prebenitzea eta berdintasun-irizpideak jasoz. Zeregin horren dinamizazioan laguntzeko, Zuzendaritza Taldeak Hezkidetzeta eta genero-indarkeria prebenitzeko irakasle arduraduna izendatuko du.

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 126.2 artikularekin bat etorriz, eskola-kontseiluek, oraindik egin ez badute behintzat, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bultzatzeko neurriak sustatuko dituen *Berdintasunerako ordezkaria* izendatuko dute.

Bi pertsona horiek elkarlanean lan egingo dute, hezkuntza-komunitate osoa ordezkatzeko duen talde baten baitan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta sexu-joera edo genero-identitateagatiko bazterkeriarik eza bultzatzeko eta genero biolentzia prebenitzeko ekimen horrek ikastetxe osoan benetako eragina izan dezan. Zentzu horretan, ikastetxeek sexu aniztasunarekiko errespetua eta jokaera homofobo, lesbofobo eta transbofoboaren aurkako konpromisoa espresuki ikusarazi eta sustatuko duten mezuak eta neurriak bultzatuko dituzte.

Neurri horiek *Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planean* proposatu diren xedapenekin osatu dira<sup>7</sup>. Beraz, 2015-2016 ikasturterako, beste 50 ikastetxe berriri ekimen honetara gehitzeko aukera emango zaie.

Azkenik gogorazten da, 4/2005 Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen arabera, Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan erabiltzen diren testu-liburuek eta irakaskuntzako beste material guztiek, hezkidetzeta helburuak barneratuta izan behar dituztela eta debekatuta dagoela izaera sexista dutenak zabaltzea edo erabiltzea. Era berean, eskatzen da ikastetxeetan horrelako materialak aurkitzekotan Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzari jakinaraztea.

<sup>6</sup> Eusko Jaurlaritza (2012). *Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012-2016*.

<sup>7</sup> Eusko Jaurlaritza (2013). *Hezkuntza sisteman hezkidetzeta eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.



2. **Elkarbizitza-plana.** Ikastetxe askotan jada abian jarri den neurri-multzoa, berriki proposatutako Bake eta Bizikidetzeta Planarekin<sup>8</sup> osatu ahal izango dena, zehazki, plan horrek Hezkuntza eremuan plantetatzen dituen ekimenen bidez: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen kasuan, **Elkarrekin Bonoak** ikastetxeei honako arloetako prestakuntza eskaintza: giza-eskubideak, gatazkak modu positiboan ebazteko moduak eta giza-eskubideen urraketa onduz sortutako biktimekiko enpatia.

Ikastetxeko Elkarbizitza Planak edo, ez balego Urteko Planak, hezkuntza komunitateak, lau urteko epe baterako adostutako helburuak eta ekintzak bilduko ditu. Azken xedea ikastetxeko elkarbizitza giroa hobetzea izanik, ikasturte bakoitzaren bukaeran egindako ibilbidea ebaluatuko da.

Gutziz beharrezkoa da ikastetxe guztiek Elkarbizitza Plana eginda izatea eta eginda duten ikastetxeek aldiro-aldi gaurkotzea.

Ikastetxeko Elkarbizitza Behatokiak, aurreko ikasturteko ebaluazioa kontuan harturik, hurrengoan garatu beharko diren helburuak eta ekimen zehatzak proposatuko ditu eta bere gain hartuko ditu jardueren planifikatze, antolatze eta gauzatze lanak. Erabaki hauek guztiak Ikastetxeko Urteko Planean integratuko dira.

Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren arabera, Elkarbizitzarako Behatokiak genero-indarkeriaren prebentzioari eta erantzunari dagozkion gaiei buruzko lan proposamenak egingo dituzte, eta baita, sexismoa oinarritutako gainontzeko indarkeria mota guztiei ere, genero-indarkeria modu askotan eta askotarikoetan adierazten delako eta, gizarte bizitzan naturaltasunez agertzen direnez, horietako asko detektatzea zaila delako.

Elkarbizitza-plan bat egon arren, ikaskideen arteko tratu txarreko kasuren bat (*bullying*) gertatuz gero, berehala horren berri eman beharko zaio Hezkuntza Ikuskaritzari. Kasu hauetarako, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emandako Jarduteko Gida bat dute ikastetxeek, ikaskideen artean eskolan tratu txarreko kasuren bat gertatuz gero jarraitu beharreko protokoloa jasotzen duena. Oinarritzakoa eta arautzailea da protokoloa, eta ikastetxe bakoitzak egokitu edo zabaldu ahal izango du, haren testuinguruaren edo kasuaren berezitasunen arabera. Genero-indarkeria, homofobia, transfobia, lesbofobia,... kasuetan, Sailak protokoloa berrikusiko du eta bertan aintzat hartu eta dagozkien konponbide neurriak jasoko ditu.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 18ko 3/2005 Legeak, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoak, 25. artikuluan eskatzen duena betetze aldera, **“...ikastetxeetako arduradunek eta langileek adingabeen babesaren arloan eskumena duten herri-administrazioei jakinarazi behar dizkiete, edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari edo epaileari, haurren babesgabetasuna ekar ditzaketen egitateak”**.

Beraz, ikastetxeko Zuzendaritzak balizko babesgabetasun-egoera baten berri izanez gero, Gizarte Zerbitzuei jakinaraziko die. Jakinarazpena jasota, Gizarte Zerbitzuen erantzukizuna izango da ahalik eta informazio gehien bildu eta

<sup>8</sup> Eusko Jaurlaritza (2013). *Bake eta Bizikidetzeta Planaren proposamena*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza.



kontrastatzea. Horretarako, **BALORA** izeneko tresna erabiliko dute (azaroaren 8ko 230/2011 Dekretu bidez onartua, abenduaren 12ko EHAAn argitaratua), kasu bakoitzean egoeraren larritasuna sistematizatu eta baloratzeko. Tresna horretan babesgabetasun mota ezberdinak zehazten dira, eta horien artean dago “prestakuntza-beharrizanekiko arduragabekeria<sup>9</sup>”.

Elkarbizitza planean onartutako arauak, hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko begirunea eta bizikidetzak bermatzeaz gain, lokal-instalazioak eta baliabideen erabilera egokia kontuan har ditzatela gomendatzen da.

Gogoarazten da, fondo publikoen bidez sustengatutako Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeei zuzendutako prebentzio-jarduerak martxan jartzeko Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta Segurtasun Sailaren arteko lankidetzakordioa dagoela.

3. **Ikasle etorkinen harrera-plana**, kultura artekotasunaren eta ikastetxean hainbat kulturetako ikasleak egotearen inguruko akordioak sistematizatzen dituena. Aurrez adierazi denez, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan, non hezkuntza-komunitateak bere konpromisoak, hala linguistikoak eta curriculumari buruzkoak nola sozialak eta jarrerari buruzkoak, definitzen dituen, zehaztu behar dira, halaber, kultura artekotasunari buruzko akordioak.

Ikastetxearen kultura-aniztasuna lantzearen inguruan erabakiak hartzen hasteko era bat da eskolara iritsi berriak diren ikasleak eta haien familiartekoak integratzeko harrera-plan bat taxutzea. Horretan laguntzeko, Sailak “*Ikasle etorkinentzat harrera-plana egiteko orientabideak*” dokumentua dauka denontzat eskuragarri<sup>10</sup>.

Kultura-aniztasuneko ingurugiro batean dauden ikastetxeetan lan egiteak berekin dakar zenbait hezkuntza-jardura berraztertu eta egokitzeko beharra. Alde batetik, ikastetxe publikoek berriazko bi baliabide izango dituzte: kultura artekotasuna sustatzeko proiektuaren irakasle dinamizatzailerak eta hizkuntza-errefortzuko irakasleak. Baliabide horien hornidura ez da deialdien bidez egingo, Lanpostu Zerrendaren bidez baizik. Bestalde, ikastetxeei berriazko jarraibideak helaraziko zaizkie, eta horietan bi baliabideak esleitzeko baldintzak zehaztuko dira, postu horien eginkizunak ezarriko dira eta dagozkion aholkularitza-, jarraipen- eta ebaluazio-jarduerak proposatuko dira.

4. **Adimen-gaitasun handiko ikasleentzako jardura-plana (2012-2016)**. Ikuspegi inklusiboaren xedeetako bat da ikasle guztien hezkuntza-premiei erantzutea, adimen-gaitasun handiko ikasleek dituztenak barne.

Hezkuntza administrazioari dagokio beharrezkoak diren neurriak hartzea adimen-gaitasun handiko ikasleentzako goiztiarra egin, euren beharrezkoak baloratu eta beharrezko horiei egokitutako jardura-planak abian jartzea.

Horretarako, Sail honek Jardura Plan bat landu du, gure komunitateko ikasle guztien gaitasunak eta talentuak garatzeko apustu irmoaren emaitza gisa<sup>11</sup>.

---

<sup>9</sup>Eusko Jaurlaritzak (2011). *Prestakuntza-beharrizanekiko arduragabekeria*

<sup>10</sup> Eusko Jaurlaritzak. (2004). *Ikasle etorkinentzat harrera-plana egiteko orientabideak*.

<sup>11</sup> Eusko Jaurlaritzak. (2012). *Adimen-gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza. Jardura-plana*.



5. **Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana (2012-2015)<sup>12</sup>.** Planean adierazten den moduan, ikasle ijitoak dituzten ikastetxeek beren Urteko Planean jasoko dituzte kolektibo horren emaitza akademikoak edota gizarte-inklusioa hobetzeko jarduerak. Eta ikasle ijitoen dezenteko kopurua duten ikastetxeek, ikasle horiek eskolan emaitza onak lortzen ari ez badira, zentroaren egoera eraldatzeko plan orokorrak lantzeko aukera aintzat hartu beharko dute.
6. **Ildo berean txertatutako beste proiektu eta esperientzia batzuk:** Hamaika esku programa, Lankidetzako Ikaskuntza, Ikaskuntza Komunitateak, Jardunbide inklusibo egokien zentroak, Amara Berri, Kalitatea Hezkuntzan, Eskola Txikiak...

Aipamen berezia merezi du **Hamaika esku programak**. Programa honek, bere izenak aditzera ematen duenez, esku-hartze, jarraipen eta koordinazio lerro asko eta askotarikoak aurreikusten ditu emaitza apaleko ikasleen arteko bilakaera eten eta ikasle hauen emaitzak hobetzeko. Edo, bestela esanda, ikasle orok, berdin zein den bere familiako ISEKa, nahi duen bizi proiektua egin ahal izateko beharrezkoa duen eskola arrakasta lor dezan.

Ikasleen horien gaineko espektatiba altuagoak bultzatzeko, hezkuntza administrazioak abian jarri ditu eta jartzen jarraituko du beharrezkoak diren eta eskueran dituen baliabide guztiak, bai antolamenduzkoak, bai giza baliabideak eta bai materialak. Gainera elkarlan irmoan arituko da familiekin, hezkuntza-komunitateko elkarteekin, Gobernuko beste Sail batzuekin (Osasuna, Enplegu eta Gizarte Politiketako) eta beste hainbat erakunderekin.

*Hamaika esku programak* sei esku-hartze lerro aurreikusten ditu:

- Programaren bultzada, jarraipena eta koordinazioa ziurtatu, batik bat arreta ikasleriaren bakarkako jarraipenean, oinarrizko gaitasunetan eta irakaskuntza-praktiketan jarrita.
- Ikastetxearen egiturazko antolamendua indartu Zuzendaritza talde egonkor eta proiektudun baten inguruan.
- Baliabideak eraginkortasunez erabili.
- Berariazko berriztatze neurri berriak ezarri.
- Familiak erakarri.
- Erakunde, eragile eta elkarteen lankidetzaren bermatu.

## II. Eleaniztasuna jomuga duen hizkuntza-plangintza baten printzipioekin zerikusia dutenak.

*Heziberri 2020 Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoak* dioenez, kontuan izan behar da XXI. mendeko euskal gizartearen eleaniztasuna dela eta, beraz, eskolak nahitaez lortu behar ditu herritar eleaniztunak. Horregatik, mundu gero eta elkarlotuago honetan –non hainbesteko garrantzia duten jakintzaren gizarteak, informazio- eta komunikazio-teknologiek eta pertsonen mugikortasunak–, hizkuntza ofizialez gain jakin behar dira, ezinbestean, hizkuntza global esaten zaienetako bat edo batzuk, eta era horretan bultzatu pertsonen elkar ezagutzea, ideiak trukitzea eta kulturek elkar ulertzea.

<sup>12</sup> Eusko Jaurlaritza (2012). *Ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko plana (2012-2015)*.



Irteera-profilean, ikasleak bizitzako eremu guztietan, euskaraz eta gaztelaniaz ahoz nahiz idatziz, modu egoki eta eraginkorrean komunikatzea nahi da. Halaber, gutxienez atzerriko lehen hizkuntza batean egoki komunikatzea, egoera eta eremu pertsonal, sozial eta akademikoetan. Era berean, ikasleak bere burua eta bere inguruko mundua hobeto ezagutzen lagunduko dion literatura heziketa izatea nahi da.

Euskal eskolak elebitasuna bermatzeko duen erronkaz gain, badu beste helburu bat ere: pertsona eleaniztunak lortzea, gutxienez atzerriko hizkuntza bat behar adina dakitenak. Ikuspuntu eleaniztunean, pertsona baten esperientzia hedatu ahala hizkuntza baten kultur inguruneetara –famiaren hizkuntza, gizarte osoarena, beste herri batzuetako hizkuntzak...–, pertsonak ez ditu hizkuntza eta kultura horiek gordetzen buruko konpartimentu bereizitan; aldiz, bere komunikaziorako konpetentzia osatzen dute hizkuntza-jakintza eta -esperientzia guztiek, eta hizkuntzak elkarrekin harremanetan daude. Ikuspuntu horrek erabat aldatzen du hizkuntza baten irakaskuntza. Kontua ez da bi edo hiru hizkuntza eskuratzea, zein bere aldetik. Aldiz, hizkuntza-gaitasun guztiak biltzen dituen hizkuntza-bilduma bat garatu nahi da.

Modu horretako eleaniztasunak, hots, ikasle guztiek bertako bi hizkuntzak ondo jakiteak eta atzerriko batean edo bitan gaitasun nahiko lortzeak, gizarte-inklusioa errazten du, aukera-berdintasun handiagoa bermatzen du, gizarteratzeko eta laneratzeko aukera handiagoak eskaintzen ditu eta, gainera, XXI. mendeko euskal gizarteko herritar guztien hizkuntza-eskubideak bermatzeko modua ematen du.

Sailak sustatzen duen lehenetasunezko ildo honek Europako 2020 Estrategiari eta UNESCOren 194EX/29<sup>13</sup> xedatutakoari jarraitzen dio eta bertan defendatzen da hizkuntza-prestakuntza osoa eta integrala ikasleek duten eskubide bat dela, eta horretarako ikastetxearen hezkuntza-proiektuan jaso behar direla hizkuntzak ikasteari eta erabiltzeari buruzko erabakiak.

Ikastetxe bakoitzak, hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilerarekin lotutako alderdi guztiak ondo planifikatzeko, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua egin behar du. Ikaskuntza-prozesu osoan hizkuntzak irakastearekin eta erabiltzearekin lotutako irizpideak garatu behar ditu Proiektu horrek, bai eta Hezkuntza Proiektuan jaso ere, eta bestalde, Curriculum Proiektuan hizkuntzen trataera ere zehaztu behar du. Halaber, ikastetxeko dokumentu guztiek hartu beharko dituzte oinarri Proiektuan jasotako erabakiak.

Hezkuntza Proiektuan hartutako erabakiak garatze aldera, ikastetxeak Hizkuntza Proiektua behar du zeinak ezarriko dituen, familien borondateaz eta zentroaren autonomiarekin bat etorriz, ikasleek ikasten duten hizkuntza bakoitzerako hizkuntza-helburu operatibo eta lorgarriak. Hizkuntza plangintza horrek ezin ditu albo batera utzi, besteak beste, ikastetxeak berak izan duen hizkuntzen antolamendua, bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat ala bik izan duten sarrera eta ezarrera maila (ELEANITZA eta MET), barne eta kanpoko ebaluazioetan (Ebaluazio Diagnostikoa, ARRUE ikerketan,...<sup>14</sup>) ikasleek hizkuntzetan lotutako emaitzak, eskola-giroan euskararen erabileraren neurketaren emaitzak eta ziurtatzeko neurriak (HNP) eta, kasuan kasuko, HMM ebaluazioan lortutako emaitzak.

Bestalde, plangintza hori aurrera eraman ahal izateko, ikastetxeak aintzat hartu beharko ditu, batetik, bertako irakasleek daukaten hizkuntza-gaitasuna, akreditazioa eta, hizkuntzen irakaskuntzari lotutako prestakuntza eta, bestetik, hezkuntza-komunitateko familia-

<sup>13</sup> UNESCOren 194EX/29 (2014). *Hizkuntzen irakaskuntza hezkuntza-sisteman*.

<sup>14</sup> *ISEI-IVEIk* edo berak erabakitako dagokion erakundeekin lankidetzan egindako ebaluazioen emaitzak.



hizkuntza, ikasleen ingurune soziolinguistikoa, eta ingurune horretan esku hartzen duten gainerako erakunde eta eragileekin lankidetzara eta koordinazioa sustatzeko bideak.

Honenbestez, ikasleek irteera-profileko eleaniztasun-maila lortzeko helburuak hizkuntza-irakasleak behartzen ditu hizkuntzak modu integratuak tratatzera, irakatsi eta ikastearen helburuaz gogoeta egitera eta, ondorioz, edukiak nahiz metodologia egokitzera.

Hizkuntzak modu integratuan irakastea hainbat ebidentziaren emaitza da:

- Ikasle elebidunak edo eleaniztunak etengabe eskura ditu hainbat hizkuntza eta haietan ikasitakoa, hornidura kognitibo eta emozional moduan.
- Hizkuntza-ikasketak hizkuntza batzuetatik besteetara transferitzen dira.
- Hitzunek parte hartzen duten inguruneetan hainbat hizkuntza egotea aldi berean.

Ebidentzia horien ondorioz, **hizkuntzen curriculum integratua** egin behar da eta, horretarako, hizkuntza bakoitzarentzat hautatu behar dira egoera-familia esanguratsuak, bizitzaren eremu guztiekin lotuak, kontuan hartuz hizkuntza bakoitzaren estatusa, testuinguruaren errealitate soziolinguistikoa eta hizkuntza bakoitzarentzat irteera-profil orokorrean definitutako lorpen-maila. Hizkuntza bakoitzak berezkoa duena landu behar da, eta denen artean partekatua dutena, ikasleak egoki eta eraginkor erabili ahal izan dezaten egoera bakoitzak eskatzen duen hizkuntza.

Baina hizkuntza-irakasleak ez dira euskara ardatz hartuta eleaniztasuna garatzen konprometitutako bakarrak, eta eskola osoa dago inplikaturik **hizkuntzen trataera integralean**. Hizkuntza-gaiak ematen ez dituzten irakasleen ardura ere bada hizkuntza-kompetentzia garatzen laguntzea, ikasleak arlo bakoitzeko egoerak egoki eta eraginkor ebatzi ahal izan dituzten. Arlo horietako oinarritzko kompetentziak lortzeko, ikasleak edukiarekin batera ikasi behar dituzten arloak berezko dituen esamoldeak, eta modu integratuan erabili behar dituzten bakoitzeko egoerak/problema ebazteko. Edukia eta hizkuntza integratzeko planteamenduak hizkuntza-kompetentzia garatzea dakar.

Bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko hizkuntza batean kompetentzia lortzeko bidean, hizkuntzen curriculum integratu baten bidez eta curriculum-arlo guztietan, printzipio hauek onartu behar dira:

- Hizkuntzen irakaskuntza inklusioan oinarritu behar da, hau da, ikasleen jatorrizko hizkuntza edozein izanik ere, denek beren kompetentzia eleaniztuna osoki garatzeko bidea eman behar du.
- Hizkuntzen irakaskuntza erabileran oinarritu behar da, hau da, hizkuntzak erabilera sozialean eta akademikoan ikasten dira, eta komunikazioaren behar pragmatikoak dira kodea menderatzeko bidea jartzen dutenak.
- Hizkuntzen irakaskuntza ikuspuntu komunikatiboan oinarritu behar da, hau da, ikasgelak komunikazio-gune pribilegiatu bihurtu behar dira, ikasleek modu eraginkorrean parte hartu ahal izan dezaten denetarikoa komunikazio-jardueratan.





- Hizkuntzen irakaskuntza hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera positiboak garatzean oinarritu behar da, kontuan hartuz hizkuntzek zenbateko garrantzia duten harreman sozialetan eta gizabanakoen garapen emozionalean.
- Eskolan, curriculum-arloak irakatsi eta ikasteko prozesuak dira hizkuntza erabiltzeko eremurik eta egoerarik ohikoenak eta naturalenak; beraz, hizkuntza eta edukia integratzea komeni da.

Printzipio horiek beharrezkoa egiten dute komunikazio-proiektu esanguratsuen bidez irakastea, testua delarik oinarritzko komunikazio-unitatea; ikaskuntza sekuentzia didaktikotan egituratzea, komunikazio-lan zehatz bat lortzera bideraturik, eta prozedurazko edukiak lehenestea, "egiten jakitea", eta ez adierazpeneko jakintza hutsa.

**Ikastetxeari Hizkuntza Proiektua osatzen eta hizkuntzen irakaskuntza integratua eta integrala lortzen laguntzeko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, orain arte eskaini eta garatu dituen baliabideez gain, bai eremu pedagogikoari begira bai eremu instituzionalari begira, 2015-2016 ikasturtean ere honako neurriei eta baliabideei eutsiko die:**

- **Berritzegune Nagusi eta Eskualdeetako Berritzeguneetako hizkuntza-aholkularien bidez tokian tokiko Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua garatzeko laguntza bideak eskainiko dira.**
- **Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua egiteko Gida eskainiko da.**
- **Ikastetxek ikastetxe, irakasleek atzerriko hizkuntzan duten gaitasunaren azterketa zehatza egingo da.**
- **Eskola-giroan euskararen erabilera bultzatzeko orain arteko neurriei eutsiko zaie (Ulibarri Programa, A ereduko ikastetxeetan, euskara arloak irakasteko erabili Hezkuntza-komunitateko adostasunarekin) eta Batxilergoan B ereduko lerroak irekiko dira.**
- D ereduko ikasleekin euskaraz, gazteleraz, ingelesez eta frantsesez gaitasun komunikatiboa hobetu, kontzientzia eleaniztuna eta kulturantzuna garatu, eta euskararen erabilera bermatzeko programa esperimentalari eutsiko zaio.
- **Irakurzaletasuna eta hitzezko, hitzik gabeko eta komunikazioa digitalerako konpetentzia bultzatzeko Irakurzaletasuna e-liburuteqiaren ekimena jarriko da abian.**
- Atzerriko hizkuntza laguntzaileen programari eutsiko zaio.
- **Irakasleak atzerriko hizkuntzan irakasteko behar izango duen hizkuntza gaitasunaren eguneratze prozesurako formakuntza bidea ahalbidetuko da beti ere ikastetxeko hizkuntza proiektuak hirueledunak (edo eleanitzak) hala ezartzen badu.**
- Irakasleak eta hezkuntza-komunitateko gainontzeko kideak hizkuntza-prestakuntza jasotzeko deialdiak. (Prest Gara, IRALE, NOLEGA, edota ERASMUS +).

### III. Sare Hezkuntza.

Ikasleak hezkuntza-sistemaren erdigunean izatearen xedeari lotuta Informazio eta Komunikazioaren Teknologietatik (IKT), sarean heztera, pertsonak eta prestakuntza elkarlotzera, Sare\_Hezkuntzara igarotzea proposatzen da.



Horretarako, iaz teknologia erabilera eta eraginari buruz egindako hausnarketa eta balorazioan oinarrituta ikastetxeak honako ekimenak bultzatuko ditu:

- Ikas-irakas prozesuan eta oinarrizko konpetentziak garatzeko ahal den eremu eta material gehinetan teknologiak erabiltzea.
- Azpiegitura digitalak arduratsuki eta hoberen baliatzea.
- Eduki digitalak sortzea (eta elkarlanean sortzea), bereziki euskaraz, hezkuntza eta gizarte eragileen erabilera partekatua bultzatzeko.

Hiru helburu horien betetze prozesuan laguntzeko, Sailak, gutxienez hiru laguntza bide eskainiko ditu, hurrenez hurren:

- *Sare\_Hezkuntza gelan*, hezkuntza digitalean abangoardiakoak diren ikastetxeen esperientziaz aurreratua, aro digitalak eskaintzen dizkien aukerak aintzat hartuz, bultzatzeko deialdia.
- Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek, baliabide digitalak eskuratu ahal izateko agindua.
- Ikastetxeetan heldutasun teknologikoa (berrikuntza metodologikoa eta pedagogikoa eskatzen duena) ebaluatzeko deialdia.

Gainera, ezin da aipatu gabe gelditu, ikastetxeak dituen informazio eta komunikaziorako baliabide teknologiko guztiak, berezko balioagatik eta inklusibitatea errazteagatik erabili beharko lituzkeela hezkuntza laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleei eta familia-laguntza gutxiago edo bazterketa digitalaren arriskuan dauden ikasleei erantzun egokiena eman ahal izateko

#### IV. Konpetentzien garapena

Ikastetxe bakoitzak erabakiko du, haren aukera, premia eta lehentasunen arabera, bere Curriculum Proiektuko zein alderdi dituen jada garatuak, eta zein alderditan areago sakondu nahi duen.

Ikastetxe bakoitzak bere curriculum-proiektua taxutzeko bidean hartzen dituen erabakiek kasu bakoitzean posible den zehaztasuna eta garapena izango dituzte. Haur Hezkuntzako esperientzia-esparruen eta Lehen Hezkuntzako arloen programazioak curriculum-proiektuaren zehaztaperen-maila bat dira. Lehen Hezkuntzako arloen programazioak<sup>15</sup> egiteko, Sailak orientabideak eskainiko ditu ikasturtearen hasieran. Orientabide horiek Berritzegune Nagusiko, ISEI-IVEIko eta Hezkuntza Ikuskaritzako espezialistek landu dituzte, elkarlanean. Elkarlanean garatu eta argitaratu dira ere konpetentzia guztiei dagozkien marko teorikoak, tartean, ildo honi dagokion Ikasten Ikasteko konpetenziaren marko teorikoaren argitalpena<sup>16</sup>.

Gainera, Heziberri 2020 eredu-pedagogikoaren markoaren barne, aurki eskainiko dira diziplina baitako eta zeharkako konpetentziak testuinguratuta lantzeko familia-egoerak aurkezten dituzten materialak.

<sup>15</sup> Eusko Jaurlaritza (2013). [Programazio Didaktikoak egiteko Orientabideak](#).

<sup>16</sup> Eusko Jaurlaritza (2012). [Ikasten Ikasteko konpetenziaren marko teorikoa](#).

## V. Bikaintasunerantz praktika onen eta ekintzailetzaren bidetik

Bikaintasuna etengabe bilatzen duen hezkuntza eredu batentzat funtsezkoa da ematen den hezkuntza ebaluatzea eta ikasleen eskubideak zein neurritan bermatzen diren diagnostikatzea, ebaluazio horien emaitzetan oinarrituko baita hobekuntza-plan ororen diseinua.

Sailak honako lan ildo hauek ireki ditu bikaintasunaren bermerako.

### I. Hezkuntza jardun eta lanbide gisa prestigioa emateko:

- Hezkuntza-komunitateko kideen jarraikako prestakuntza.
- Ikaslearengan duen eragina ziurtatzeko barne eta kanpoko ebaluazioen emaitzetan oinarritutako prestakuntza.
- Praktika onetan (Balio erantsi handiko ikastetxeak) oinarritutako prestakuntza.
- Unibertsitatearekin lankidetzan estuan irakasle-gaien hasierako prestakuntza eta praktiken gaineko arloetan.
- Zuzendarien prestakuntza: prestakuntza ereduak, proiektuak eta jarraipena.

### II. Ikastetxeen autonomia sustatzeko:

- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua garatu edota eguneratzeko gida eta prestakuntza-laguntza.
- Ikastetxeen antolamenduzko autonomia bermatzen duen *Hauspoa* proiektu pilotuari jarraipena ematen zaio.

### III. Ebaluazioa eta ikerketa bultzatzeko:

- 2014-2015eko Ebaluazioa Diagnostikoaren emaitzen azterketa.
- Balio erantsi handiko ikastetxeen jardunbideei buruzko emaitzen azterketa.
- Hezkuntza Adierazle Sistemaren eguneratzea.
- Ikastetxe bakoitzaren programa eta proiektuen gaineko ebaluazioa eta ikerketa.

### IV. Hobekuntza eta Berrikuntza suspertzeko:

- Ikastetxearen Hobekuntza planak: Balio erantsi handiko ikastetxeetan antzemandako 14 lan lerroak.
- Hizkuntza-Proiektuaren garapena eta horretarako baliabideak eta prestakuntza-laguntzak.
- Hezkidetzan eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida plana eta prestakuntza.
- Eremu curriculurrean sakontzea eta aberastea, Baietz Bikain ekimenaren bidez (Matematika, Hizkuntzak, Zientziak eta Ekintzailetza).



V. Hezkuntza sareen sorkuntza eta lankidetzak bermatzeko:

- Sare\_hezkuntza: ikas-irakas teknologien erabilera, materialen ekoizpena eta prestakuntza.
- Ikastetxe sareak: Kalitatea Hezkuntzan, Amara Berri, Ikasketa Kooperatiboa, Ikas Komunitateak, Antzuola Eskola...

VI. Administrazio egituren egokitzapena indartuz:

- Antolamendua
- Prestakuntza
- Funtzionamendua

VII. Kalitatea, dedikazioa eta helburuen lorpena prestigioatuz:

- Irakasleei begira
- Ikasleei begirako (Matematikako olinpiadak, Zientzia Astea,...)
- *Lanaldi-lanetan blai*, 4. DBH eta 1. Batxillergoko ikasleen murgilketa lan munduan.

VIII. Hezkuntza akordio egonkorra landuz:

- Heziberri 2020 Plana garatu.

Laburbilduz, hezkuntza-komunitateak garatutako jarduera guztiei ikasleen prestakuntza integratuz zentratutako zentzu hezigarri bat ematearren, iradokitzen dugu 2015-2016 ikasturte honetan mantentzea daitezela lehendik hasitako ekimenak eta Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan haien izateko arrazoia justifikatzen dadila, hezkuntza antolatzen dokumentu horrek era koherentean uztar ditzan aipatu jarduerak, proiektuak eta jarraibideak, bikaintasuna eta jardunbide egokiak sustatuko dituen eskola inklusiboa printzipio nagusitzat hartuz.

Hezkuntza-komunitateak Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan adostu dituen lehentasunak gauzatu behar dira printzipio horiek planifikatu eta zehazteko aukera ematen duen Ikastetxearen Urteko Planean.

### 1.3.2.- IKASTETXEAREN URTEKO PLANA

Zuzendaritza Taldearena da Ikastetxearen Urteko Plana gauzatzeko lana koordinatzeko ardura; horretarako, egoera bakoitzean, dagokion kide anitzeko organora joko du. Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenak (OOG) onartu beharko du aipatu plana, Euskal Eskola Publikoaren Legeak eta Hezkuntzako Lege Organikoak irakaskuntza-jardueren programaren gainean klausurari ematen dizkion eskumenen kaltetan izan gabe. Gainera, planean sartu beharko dira diagnostiko-ebaluazioko emaitzen azterketa egin ondoren zehaztutako hobekuntza-proposamenak.

Ikastetxeek 2015-2016 ikasturterako Urteko Plana egingo dute ikasturte horren hasieran, ikastetxeko jarduerak planifikatzeko, antolatzen eta kudeatzeko tresna moduan.

Urteko Planak alderdi hauek barne hartzen ditu:



### a).- Irakaskuntza-jardueren programa

**Klaustroari dagokio programa hori lantzea edo, halakorik balitz, hura eskuordetu dezakeen batzorde bati urriaren 30a baino lehen.**

Irakaskuntza-jardueren programan jasotzen dira ikasturtean zehar ikastetxea eta eskola-jarduerak antolatzeko hartzen diren erabakiak, betiere ikasleak eta dauden baliabideak kontuan hartuta: lanak irakasleen artean banatzeko eta irakasteko nahiz ikastetxean egon beharreko denbora banatzeko irizpideak, irakasleen eta ikasleen ordutegiak, ikasleak taldekatzeko irizpideak, tutoretzen banaketa, praktika inklusiboen markoaren barruan ikasleentzako laguntza eta errefortzuaren antolaketa Berariazko Hezkuntza Laguntzako esku-hartzeak eta horien jarraipena, gune komunetan banaketa, baliabide didaktikoen antolaketa, ebaluazio-datak eta abar. Eskola Jardueren Agirian (EJA) jasotako datuak ez dira Urteko Planean errepikatu beharko.

Irakaslanen programan sartuko dira, halaber, esperientzia-esparruen eta argitaratutako curriculum berrietara egokitutako arloen programazio orokorretan egin diren aldaketak eta ikasturte honetan landuko diren arlo horien alderdi zehatzak; izan ere, programazio didaktikoak Curriculum Proiektuaren zehaztapen-maila bat dira. Era berean, ikasturte honetan curriculum-proiektua gaurkotzeko egiten diren jarduerak jasoko dira.

Programa honetan, lanbide-prestakuntza eta -garapenarekin zerikusia duten alderdiak ere bildu beharko dira.

Programan barne hartuko dira, orobat, ikastetxeak parte hartzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Esperientziak eta Programak, eta ikasturtean zehar gauzatuko diren ikastetxearen proiektuak, bereziki Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak edo beste sail batzuek nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko, Estatuko edo Europar Batasuneko beste erakundeek onartutakoak.

Lanbide Heziketako ikastetxeen irakaslanaren programak enplegurako prestatzeko jardueren programa ere bildu behar du. Urteko planaren zati hau zuzendaritza-taldeak landu behar du, eta ordezkari-organismo gorenak onartu. Aipatutako jarduerak zerrendatu behar ditu, bai eta ikasturte osoan planifikatu ere. Zuzendaritza-taldeak, era berean, irakasle gaituei egitekoak esleitzeko irizpideak eman behar ditu. Jarduera berriak sortu ahala, programa eguneratu behar da.

Hamaika esku programan parte hartzen duten ikastetxeetan, Urteko Planean jasoko diren helburuen artean (ahal dela Hobekuntzarako Esku\_Hartze Planaren barruan) programa horrek bultzatzen dituen esku-hartze lerroekin lotuak daude, besteak beste: eskola-familia harremanak, irakaskuntzaren praktika, ikasleei bakarkako arreta eta jarraipena, hizkuntza-gaitasuna, gaitasun matematikoa, planifikazioa eta antolamendua edo baliabideen kudeaketa eraginkorra.

### b).- Prestakuntza-jarduerak

Zuzendaritza Taldeari edo Batzorde Iraunkorrari dagokio Urteko Planaren atal hau lantzea, eta OOGk oniritzia eman beharko dio.

Ikastetxeko prestakuntza planak jasoko ditu, gutxienez, ikastetxean egindako prestakuntza-proiektuak eta lanorduetan egingo diren eta ikastetxearen antolaketan eragina duten prestakuntza-jarduerak.



Urteko Planean barne hartutako prestakuntza-jardueretan, irakasleek nahitaez parte hartu beharko dute (lanaldi-murrizketen kasuetan eta salbuespenezko beste batzuetan izan ezik), prestakuntza-jardueretarako asteko ordua, irakasleen ordutegian ezarrita dagoena, betez. Prestakuntza-jarduera horien antolaketa egiteko, zenbait astetako orduak metatu ahal izango dira, saio luzeagoak eta eraginkorragoak egin ahal izateko.

Ikastetxearen prestakuntza plana bertako hezkuntza-komunitatearen premia eta etorkizunerako hobekuntza eta berrikuntza asmoetan errotuta egongo da, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak egindako Prest Gara prestakuntza planak<sup>17</sup> dioen legez. Bertan, Laguntza Zerbitzuek, hala nola Berritzeguneek, Ingurugelek, IRALE, eta abarrek eskaintzen duten tokian tokiko ezaugarriak lotutako prestakuntza aukerak azpimarratzen dira. Horrenbestez, kasuan kasuko hezkuntza-komunitateko kide guztiei irekita egongo da eta ikasleengan eragina duela ziurtatuko du, kanpoko zein barruko ebaluazioen emaitzen bidez.

Prestakuntza planaren garapenerako baliabideak ere eskaintzen ditu Sailak aipatutako Prest\_Gara Planean. Laguntza horietara sarbidea izateko prestakuntza-berrikuntza deialdiak irekiko ditu Sailak eta ikastetxeak borondatez eskatuko du bere parte-hartzea.

SAREAK: PARTEKATUZ IKASIZ. Sare desberdinetako ikastetxeak tutore lanetan diharduteneko ateak ireki eta sistematizazio bideak aurkitu. Antzeko dinamika, premiak eta xedeak konpartitzen dituzten ikastetxeen arteko lan-sareak izango dira tutorizatuak ikastetxeen arteko elkarlanean esperimintatzeko, ikasteko eta aurrerabideak izateko. Ikastetxeekin bat, eskualdeko Berritzeguneen partaidetza komeni litzateke prozesu osoaren bultzatzaile baitira.

### **c).- Eskolaz kanpokoak eta osagarriak**

**Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan programak** jardunbide inklusiboak eta ikasle guztientzat direnak jaso beharko ditu, eta guztien interesa sortzeko adinako eskaintza zabalak, betiere ikastetxeak dituen barne-baliabideak kontuan hartuta.

Programak barne hartuko ditu:

1.- Jarduera osagarriak: ikasleekin ikastorduetan egiten diren jarduera didaktikoak, programazioaren barruan egonda ere izaera berezia ematen zaiena, bai horiek egiten diren une edo lekuagatik bai ikastetxeak jarri behar dituen baliabideengatik edo izan behar duen inplikazioagatik. Jarduera horiek ikasle guztiei zabalik egon behar dute. Horien artean nabarmentzekoak dira honakoak:

- Egonaldiak barnetegi-erregimenean
- Jaialdiak ikastetxean
- Hezkuntza-kanpaina bereziak
- Ikasgelaz kanpoko jarduerak: bisitak, landa-lanak...
- Irteerak, ikasturte amaierako bidaiak, ikasle-trukeak...

---

<sup>17</sup> Eusko Jaurlaritza (2014). [Ikasten duen hezkuntza-komunitatea. Prestakuntza Plana Hezkuntza Sailburuordearena.](#)



2.- Eskolaz kanpoko jarduerak: ikasleekin ikastorduetatik kanpo egiten diren eta beren parte-hartzea borondatezkoa den jarduerak, curriculumarekin zuzeneko loturarik gabekoak. Jarduera horien plangintza egiterakoan helburuak, arduradunak, unea eta tokia zehaztuko dira, eta baita ikasleen parte hartzeko modua ere. Jarduera horien alderdi edo ondorio ekonomikoak Urteko Kudeaketa Programan jaso beharko dira.

Kontuan izan beharko da ikastetxea dagoen herritik kanpo egiten diren jardueretarako beharrezkoa izango dela guraso edo legezko tutoreen baimena, ebazpen honen beste atal batean araututako moduan.

Jarduerak ikastetxea dagoen herritik kanpo egiten direnean eta irakasleek bertan gaua eman behar dutenean, ikastetxeko Zuzendaritzak, Klaustroaren proposamenez eta OOGren oniritziaz, orduen araberrako konpentsazioa eman ahalko die. Ikastetxearen ardura izango da bere barne-antolaketaren bidez ordu horiek ordezkatzeko.

ACEX programako proiektuak garatzen dituzten ikastetxeek Urteko Planean jaso beharko dituzte proiektu horiek, hezkuntza-komunitateari eskainitako hezkuntza-zerbitzu gisa.

#### **d).- Urteko Kudeaketa Programa**

Ikastetxeko Kudeaketa Proiektua Urteko Kudeaketa Programaren bidez gauzatzen da urtez urte, eta programa horren atalik garrantzitsuenak da aurrekontua taxutzea eta onartzea, uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuan xedatutakoa betez egin beharko dena (EHAA, 1998-09-14 eta 98-09-23koak).

Zuzendaritza Taldeari edo Batzorde Iraunkorrari dagokio Urteko Planaren atal hau lantzea, eta Ordezkaritza Organo Gorenak oniritzia eman beharko dio.

Programa honetan jasoko da gastua dakarten jarduerak, besteak beste jantokia, garraioa eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak. Hainbat atal bereizi beharko dira: diru-iturriak, gastu-aurreikuspenak eta gasturako irizpideak, kudeaketaren arduradunak, kontrol-sistemak eta abar. Programa egitean erosketak berdea eta kontsumo jasangarrirako irizpideak txertatzea gomendatzen da.

### **1.3.3.- URTEKO MEMORIA**

Zuzendaritza Taldearen ardura da memoria idazteko lana koordinatzea. Ikastetxearen Urteko Planaren analisia eta betetze-maila eta lortutako eskola-eremuzko abiapuntu gisa hartuz, ikastetxe bakoitzak bere autoebaluazioa egingo du; hau da, ondorioak atera eta hurrengo urterako hobekuntza-proposamenak egingo ditu, eta, bestalde, lehentasunak ezarriko ditu, ikastetxearen hurrengo Urteko Planean helburutzat hartuko direnak.

Urteko Memoria OOGk edo Eskola Kontseiluak onartu beharko du, eta kopia bat ikastetxeko idazkaritzan jasoko da, Hezkuntza Ikuskaritzaren esku egon dadin.

Memoria eta Ikastetxearen Urteko Plana urriaren 30a baino lehen egin eta onartu behar dira.

MEMORIA ETA URTEKO PLANA labur eta zehatz idatziko dira, ikastetxearentzat berarentzat praktikoa izan daitezen, argitaratu diren gida eguneratuei jarraiki. Gida horiek eskuragarri daude Lurralde Ikuskaritzan, Berritzeguneetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko web orrian.



#### 1.3.4.- HOBEKUNTZA PLANA

Ikastetxe bakoitzak egiten duen Hobekuntza Plana izango da Hezkuntza Ikuskaritzaren, Berritzeguneen eta ISEI-IVEiren arteko elkarlanaren muina, zeinaren jomuga baita ikasleei hezkuntzan bikaintasuna eskaini ahal izateko etengabeko berrikuntzako kultura bat sortzea.

2015-2016 ikasturtean adostutako Hobekuntza Planean ezarritako helburuak eta jarduerak garatuko dira 2015eko udaberria egindako Ebaluazio Diagnostiko frogan emaitzen argitan.

#### 1.3.5.- JASANGARRITASUN IRIZPIDEAK

Europa 2020 estrategia eta Garapen iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 betetze aldera, ikastetxeek jasangarritasun irizpideak eta baliabideen kontsumoa murrizteko eta kontrolatzeko neurriak sistematikoki txertatu behar dituzte eskolako bizitzan.

Ildo honetan beharrezkoa da ikastetxeak bere jasangarritasun konpromiso propioak gauzatzea, bere curriculum proiektu propioari dagokienez zein kudeaketarekin eta komunitatearen parte hartzearekin zerikusirik duten praktikei dagokienez. Eta ondorioz beharrezkoa da ere ikastetxeek jasangarritasunaren aldeko haien helburuak eta jarduerak beren hezkuntzako antolamendu-dokumentuetan (IHP, ICP, AJA, KP, ...) barneratzea.

Dokumentuetan honako aspektu hauek zehaztuko dira:

1. Ikastetxearen jasangarritasunaren aldeko konpromisoak eta helburuen azalpena.
2. **Jasangarritasunaren curriculum txertaketa**
3. Erosketa berdeko irizpideak
4. Mugikortasun irizpideak
5. Tokien, baliabideen eta hondakinen kudeaketa
6. Ikastetxean eta inguruan parte hartzeko bideak
7. Irizpideen kontrol eta jarraipenerako adierazleak, haien ebaluaziorako.

**Gainera, giza eta ingurumen beharrei erantzuteko prozesu batean eta bere ingurua hobetzeko konpromisorako baloreak eta jarrerak sustatzeko, ikastetxe bakoitzak ikasturtez ikasturte berrikusten, zabaltzen eta indartzen joango da jasangarritasunaren aldeko konpromisoak, helburuak eta jarduera irizpideak, departamentu honek sustatutako Eskolako Agenda 21 programan parte hartzen duten ikastetxeek egiten duten bezala. Urteko planak ikasturte honetan landuko diren jasangarritasun irizpide berriak bilduko ditu.**

**Horretarako INGURUGELA Ingurumen Hezkuntzarako zerbitzuaren laguntza izango dute.**





#### 1.4.- IKASLEEN ANTOLAKETA

Ikasleen antolaketak, ikuspegi etiko eta hezkidetzan oinarrituta, eskola inklusiboaren printzipio eta xedeei erantzun behar die.

Ikuspegi inklusibo eta etikoa elikatzen duen ikasleriaren antolaketa batek ezin du ahaztu "Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa<sup>18</sup>"-ren xede nagusia dela ikasle guztiek ahalik eta gehien garatzea haien gaitasunak eta ahalmenak, proiektu pertsonal eta profesional bat eraikitzeke gai izan daitezen. *Horretarako, ikasle guztiek, bereziki hezkuntza- eta gizarte-bazterkeriaren aurrean urrakorren direnek, hezkuntzan sartzeko eta horrekin jarraitzeko aukera izango dutela bermatu behar da, eta kalitatezko hezkuntza-sistema bat eskaini, aukera-berdintasunean oinarritutakoa.*

Ikasle oro ikastetxean errotuta sentitzea, talde lana eta proiektuen garapena bultzatzea eta bai gelan eta bai ikastetxean ikasle orori dagokion protagonismoa ematea bilatzen da. Hezkuntza-komunitateak garapen horretarako, beharrezkoak dituen aberaste-aukerak eskaini behar dizkio, hainbat hizkuntzetan: matematika-zientzietakoetan, teknologikoetan edota artistikoetan.

Ikastetxeek bertan garatzen dituzten proiektu eta plan guztietan zehatu beharko dituzte ikasleria honi begirako esku-hartzeak.

Ikasteko eskubidearen baldintzetako bat da eskola-inklusioa. Eskubide hori erabatekoa izateko, ezin du inolako diskriminaziorik eta bazterketarik egon. Hori lortzeko, antolaketako alderdi hauek aintzat hartuko dira:

- Ikasleen hezkuntza-plangintza taxutzeko orduan, **ingurune naturaletan** garatzen diren esku-hartzeak proposatuko dira, eta ikasgela da ikasle guztiek ikastea, parte hartzea eta emaitza onak izatea lortzeko ingurune natural nagusia.
- Ikasle jakin batzuek beharrezkoak lituzketen **baliabide eta laguntza osagarriak antolatzea**, eta ikasgelan esku hartzen duten profesional guztiak era koordinatuan eta elkarlanean aritzea, honela, ikasle guztien onurako izando da.
- Ikastetxeko barne-eragile zein ikastetxetik kanpoko eragile guztien esku-hartzeak koordinatzea.
- **Ikasleek dituzten premien detekzio goiztiarraren garrantzia nabarmentzea.** Horretarako, "Garapenaren ohiko zaintza" izendatu den prozesuan "**Garapena Behatzeko Eskalak**" sortu dira eta Haurren Garapeneko Segimendu Protokolo batean barruan kokatzen da eginkizuna. 2015-2016 ikasturtean jarriko da martxan, **2 eta 3 urteko geletan**. 2016-2017 ikasturtean, aldiz, 4 eta 5 bost urteko geletan. Protokolo honen ezarrierak irakaslearen formazioa dakar eta 2015-2016 ikasturtearen hasiera hasieran EAEko eskola publiko zein itunpekoetako **Haur Hezkuntza irakasleriak eta kontsultoreek hartuko dute parte. Bai eta ahal izanez gero, ALE eta PT profesionalek.**
- Ikasle guztiek, eta bereziki arrisku handiko taldeetan daudenek, ikasteko eta parte hartzeko dituzten eragozpenak detektatzea, ikasleen hezkuntza-ibilbidearen edozein unetan.

<sup>18</sup> Eusko Jaurlaritza (2012) Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa (2012-2016).



- Ikasteko metodologia eta estrategia inklusiboak erabiltzea, ikasleen aniztasuna eta aniztasun horren adierazpide guztiak aintzat hartuko dituztenak. Horretarako, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren jarraibideak<sup>19</sup> ditugu.
- **Ikasle bakoitzaren beharrei erantzutea.** Ikasgelako aniztasunari erantzun egokia emateko, irakaskuntza pertsonalizatua behar da, eta, horretarako, behar duten ikasleentzako plan pertsonalizatuak eta plangintzak taxutu behar dira.
- Aplikazio informatikoen erabilera bultzatzea, bikaintasuna kontuan hartuz eta ikasteko eta ikasgelan parte hartzeko eragozpenak dituzten ikasleen partaidetza erraztuz.
- Ikasle guztiak barne hartzen dituen eta aniztasuna eta bikaintasuna bultzatzeko eta ikasleen ezberdintasunak gainditzeko, ondo kudeatzen duen hezkuntza komunitatea indartzea.
- Ikastetxeko ikaste-esparruak partekatu, egon daitezkeen leku edo denbora muga eta heziak kenduz, horrela, berariazko testuinguruetako ikasleen (esaterako gela egonkorrak) eta gela arrunterako ikasleen elkarrekintza ahalbidetuz.

Alderdi horiek guztiek eragina izango dute, hezkuntza-plangintzan ez ezik, ikasleen antolaketan eta hezkuntza-erantzukizunak hezkuntza-komunitateko kideen artean banatzeko eran bai eta planifikatutako ekintzen garapenean ere.

Bestalde, arestian aipatutako Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoaren (2012-2016). I. ERANSKINEAN (48. orrialdean) barne hartzen du "Hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasleak" izenburupean, nortzuk izango diren hezkuntza-arreta arruntaz bestelako arreta bat behar duten ikasleak:

- Ezgaitasunak edo jokabide-nahaste larriak izateagatik hezkuntza-premia bereziak dituztenak.
- Ikasteko zailtasunak dituztenak.
- Adimen-gaitasun handiak dituztenak.
- Hezkuntza-sisteman berandu sartu direnak.
- Egoera pertsonal edo eskolako historia berezia dutenak.
- Ezberdintasun sozialeko egoeran dauden ikasleak.

Ikastetxeek beren proiektu eta planetan jaso beharko dituzte ikasle horientzat antolatu dituzten neurriak eta jarduerak. **Neurri horiek guztiak Aniztasunari Erantzuteko Planean (AEP) bilduko dira era Ikastetxeko Urteko Planean (IUP) zehatuko dira, non urtez urteko erabakiak metatzen joango diren.**

**Aniztasunari Erantzuteko Plana deritzon dokumentuan batera biltzen dira ikastetxeak epe ertainean abian jarri nahi dituen lehentasunezko lerro eta hezkuntza jardunak, horrela ikasle guztien beharrei arreta emateko eta ikasle guztien kompetentzien garapena eta emaitzak hobetzeko.**

**Aniztasunari Erantzuteko Planaren helburua da, ikastetxearen indar-gune eta baliabideen argitan, beti ere aniztasunari ematen zaion arreta hobetzeko asmoz, bertan adostutako helburuak, estrategiak eta esku-hartzeak zehaztea.**

<sup>19</sup> Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendarien [jarraibideak](#). (2013).



#### **1.4.1.- BERARIAZKO HEZKUNTZA-LAGUNTZA BEHAR DUTEN IKASLEAK**

Hezkuntza-komunitateak, ikasleak antolatzeko prozesuan zehar, ikasleengan jarri behar du arreta nagusia, eta positiboki esku hartu behar du haien garapen pertsonalean, eskolakoan eta sozialean ahalik eta gaitasun gehien eskura ditzaten, eta bereziki gizarte-bazterketa pairatzeko arrisku handiena duten ikasleei erreparatuz.

##### **1.4.1.- a. HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEAK**

Aurrez aipatu “Eskola inklusiboaren esparruan Aniztasunari Erantzuteko Plan Estrategikoa 2012-2016” azterlanean, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen sailean sartzen dira ezgaitasun hauek dituztenak:

- Adimen-, entzumen-, ikusmen-ezgaitasuna eta ezgaitasun fisikoa eta Autismoaren Espektruko Nahastea
- Ezgaitasun anizkoitzak
- Gor-itsutasuna
- Jokabide-nahaste larriak

Ikastetxeek kontuan hartu behar dute ikasle horiek zer-nolako laguntzak eta zein mailakoak behar dituzten ahalik eta bizimodu normalizatu eta autonomoena izan dezaten; horretarako, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitateko eragile guztiak era koordinatuan eta elkarlanean aritzea, bakoitza bere eskumenen esparruan.

Ikasle horientzat beste laguntza-profesional batzuek ematen dituzten zerbitzuak ere badaude, Berritzeguneetan egindako hezkuntza-proposamenean parte hartzen dutenak (logopedak, fisioterapeutak, terapeuta okupazionalak, hezkuntza-laguntzan espezialistak, CRIko teknikoak, gorren koordinatzaileak, gor-itsuak diren ikasleekin bitartekari lanak egiten dituzten profesionalak, ...). Horrenbestez, ikastetxeetako zuzendaritzek ahaleginak egingo dituzte profesional horiek haiei dagozkien gaien plangintzan (plana, ordutegia...), koordinazioan (bilerak) eta jarraipenean parte har dezaten.

Jokabide-nahaste larriak dituzten ikasleen kasuan, ikastetxeek eskualdeko laguntza-zerbitzuetatik beharrezkoa duten aholkularitza jasoko dute modu eraginkorrean erantzuteko krisi-egoeretan, jokabide-nahaste larria dagoenean, eutsi behar zaiola uste denean eta jokabidearen larritasunagatik beste toki edo programa batzuek beharrezkoak direnean.

Batzuetan, arazo horren konplexutasunak hezkuntzazkoaz haragoko erantzun bat eskatzen du, eta beraz familiako, osasun-arloko eta gizarte mailako esku-hartze bat beharko da, hezkuntza-premia berezietarako aholkulariek eta Berritzeguneek koordinatua.

##### **1.4.1.- b. ADIMEN-GAITASUN HANDIKO IKASLEAK**

Adimen-gaitasun handiko ikasleak hezkuntza-laguntza berezia behar duten ikasletzat hartzen dira. Beraz, beren ahalmenak osoki garatzea bermatuko duen erantzuna eman behar zaie. Horretarako, beharrezkoa dugu haien ezaugarriak, premiak, aurkitzen dituzten mugak eta har daitezkeen neurriak sakon ezagutzea.



2012ko maiatzean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak “Adimen-gaitasun handiko ikasleentzako jarduera-plana<sup>20</sup>” aurkeztu zuen, eta, horrekin batera, “Hezkuntza-orientabideak. Adimen-gaitasun handiko ikasleak”. Bi dokumentu horietan informazio oso baliagarria aurki daiteke irakasleak hezkuntza-premia horren inguruan sentsibilizatzeko eta eskola inklusiboa garatzeko prozesuan urrats bat gehiago egiteko. Laguntza osagarria izan daiteke curriculum aberasteari buruzko orientabideak eta materialak biltzen ditzuen dokumentua<sup>21</sup>.

Dokumentu horietan aurki daitezkeen hezkuntza-jarduerak ez dira adimen-gaitasun handiko ikasleentzat soilik; talde osoarentzat era oso baliagarriak izan daitezke.

#### 1.4.1.- c. IKASTEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN IKASLEAK

Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen idazpuru horrek oso talde anitza barne hartzen du. Ikasle horiek arreta espezifiko behar dute zailtasunak dituztelako mezuak ulertu eta ekoizteko, irakurri eta idazteko, kalkulu aritmetikoak egiteko, arreta jartzeko edo oldarkortasuna kontrolatzeko; beste batzuek, berriz, ikasteko erritmo mantsoagoa dute edo hizkuntzako berariazko arazoak dituzte.

Hezkuntzaren arloko erantzuna eta ikasgelan hartzen diren neurri zehatzak zailtasun horietara egokitu beharko dira. Bestalde, inklusioari begirako laguntzaileen arreta edota laguntza izan dezakete, betiere ikastetxeko kontsultore/orientatzaileen eta Berritzeguneko aholkularien balorazio psikopedagogikoak hori gomendatuko balu. Helburu horrekin, orientabideak prestatu dira, Sailaren webgunean edo Eskola Inklusiboari dagokion atalean ageri direnak.

- Irakurtzen irakasteari buruzko orientabideak.
- Arreta-falta eta hiperaktibitatea (AFN-H) duten ikasleei erantzun egokia emateko gida eta ohiko erabilera-tresnak.
- Inklusibitatea eta ikasteko zailtasunei buruzko orientabideak eta materialak.

#### 1.4.1.- d. OSPITALEKO EDO ETXEKO ARRETA EDO ARRETA TERAPEUTIKO-HEZIGARRIA BEHAR DUTEN IKASLEAK

Abenduaren 20ko 226/2006 Dekretuaren bidez, ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarrirako lurralde-zentroak sortu diren. Horien helburua da medikuaren aginduz ospitale batean dagoelako, etxean suspertzen dagoelako edo programa terapeutiko-hezigarri batean dagoelako ikastetxera joaterik ez duen ikasleari hezkuntza-laguntza ematea.

- **Ospitale barruko laguntza** emango da Euskal Autonomia Erkidegoko ospitale jakin batzuetan dauden hezkuntza-laguntzako geletan.

Ikasle batek ospitaleko tratamendua behar duenean, ospitaleko ikasgelako irakasleak emango dio arreta pedagogikoa, eta hura ikasleak ikastetxean duen tutorearekin koordinatuko da.

<sup>20</sup> Eusko Jaurlaritza (2012). [Adimen-gaitasun handiko ikasleentzako jarduera-plana](#).

<sup>21</sup> Berritzegune nagusia. [Curriculum aberastea](#).



- **Etxeko laguntza** medikuaren aginduz ikastetxera joan ezin duten ikasleen etxeetan emango dute irakasleek.

Egoera horretan dauden ikasleek eskolako ikasketekin jarraitzea eta gizarteratzea ahalbidetzeko, ikastetxeetako zuzendariak 1998ko uztailaren 30eko Aginduak, beharizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzeko eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak hezkuntza-sistemako maila guztietara helaraztekoak, 35. artikuluan ezarritako prozedura jarraituko dute (EHAA, 1998-08-31koa).

- **Arlo terapeutiko-hezigarriko laguntza** Osakidetzako haur eta gazteentzako osasun mentaleko zerbitzuarekin elkarlanean emango da, ezarrita dagoen lankidetzahitzarmenaren arabera.

Arazo psikopatologiko larriak dituen ikasle batek tratamendu intentsiboa behar badu, ikaslea Ospitaleko eta Etxeko Hezkuntza Arretarako eta Arreta Terapeutiko-Hezigarriko (CAHDTE, gaztelaniazko sigletan) programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko proposatu ahal izango da, Berritzeguneetako hezkuntza-premia berezietarako aholkularien eta Osakidetzako Haur eta Gazteen Psikiatria Unitatearen oniritziaz.

Horrez gain, programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko, honakoak beharko dira:

- Aita/amaren edota legezko ordezkariaren berariazko baimena.
- Balorazio Batzordearen erabakia.

Ikaslea denboraldi mugatu baterako onartuko dute zentro terapeutikoan, batez beste 3 eta 6 hilabete bitarte, eta denbora hori luzatu ahal izango da, gehienez ere 12 hilabetera arte, talde terapeutikoak egoki irizten badio. Edonola ere, helburua da haurra edo nerabea berriro bere eskola-ingurunera itzultzea.

#### **1.4.1.- e. GAIXOTASUN MINORITARIAK, ELIKADURA-ALERGIA ANITZAK ETA BESTE GAIXOTASUN BATZUK DITUZTENAK**

Gaixotasun minoritarioak, elikadura-alergia anitzak eta beste gaixotasun batzuk dituzten ikasleei beharrezkoa den erantzuna eta arreta eman ahal izateko protokoloa honako zirkularrean ageri da: Osasun arreta bezeria eskola orduetan <sup>22</sup>.

#### **1.4.2.- BERANDU SARTU DIREN IKASLEEN ESKOLATZEA**

Gure hezkuntza sisteman berandu sartzen diren ikasleen eskolatzea, hau da, matrikula egiteko epetik kanpo plaza bat eskatzen duten ikasleen eskolatzea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak horretarako ikastetxe guztietara bidali dituen argibideei jarraiki egingo da.

<sup>22</sup> Eusko Jaurlaritza (2006). [\*Osasun arreta bezeria eskola orduetan.\*](#)



#### 1.4.3.- BALORAZIO PSIKOPEDAGOGIKOA ESKATZEA.

Ikasle guzti-guztien erreferente nagusia tutorea da, ikasleen premiak gorabehera.

Helburua ikasleriaren hezkuntza premiak, bere indarguneak eta ahuleziak, detektatzea denez, eta ikasteko eta parte-hartzeko dituen oztopoak identifikatzea nahi denez, datu psikometriko hutsetan oinarritu ordez, balorazioa egiteko dimentsio anitzeko ereduaren aldeko apustua egiten da. Honako ezaugarri hauek bere barne hartzen dituena:

- Ebaluazio psikopedagogikoa heziketa prozesuari eta hezkuntza-erantzunei buruzko erabaki-hartzeak dakartzaten ekintza kolaboratiboetan oinarrituta egon behar du.
- Ebaluazioan eragile guztiek hartu behar dute parte: familiak, irakasleek, kideek, ikasleak berak eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko laguntza zerbitzuetako aholkulariek.
- Eragile bakoitzak, propioa duen perfiletik osatuko du bere ebaluazioa beharrezkoak diren bitartekoekin eta bildutako informazio osoa ebaluazio prozesura gehituko du.
- Kasuan kasuko premien arabera erabiliko dira teknikak eta baliabideak, besteak beste, behaketa, elkarrizketak, galdetegiak, ikaslearen lanen-ekoizpen azterketak, eskalak edota proba psikopedagogikoak.

Balorazio psikopedagogikoa eskatuko da orientatzaileak edo aholkulariak ikaslearen aniztasunari erantzun egokia emate aldera egokitzen jotako ohiko neurriak nahikoa izan ez direnean.

Ikastetxeak zehaztu eta bideratuko du eskaera hori, Hezkuntza Premia Bereziatarako aplikazioaren bidez (W67).

#### 1.4.4. - APARTEKO CURRICULUM-NEURRIAK ESKATZEA

Curriculumaren egokitzapenak eta aparteko neurri guztiak Hezkuntza Premia Bereziatarako aplikazioaren bidez (W67) bideratuko dira. Aplikazio horretara sartzeko erabiltzaile-baimenak (ikastetxearen profila) Kudeaketa Akademikoa aplikaziorako erabiltzen diren berdinak dira. Gela Egonkorraren Curriculum Proiektua aurreko ikasturteetako prozedurari jarraiki bideratuko da.

Curriculumaren egokitzapenak ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak (EHAA, 1998-07-13koa) eta hori garatzen duten aginduek (EHAA, 1998-08-31koa) arautzen dituzte. Aipatu araudia bete eta garatze aldera, egokitzapenak egiteko epeak eta mugaegunak jasotzen dira:

Ikasle gorren ahozko hizkuntzaren curriculumerako sarbidean egokitzapenak egin eta irakasleentzat erreferentzia izan daitekeena, Sailak badu lagungarri izan daitekeen dokumentu hau: *"Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean. Haur eta Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoan (2013)"*<sup>23</sup>

<sup>23</sup> Eusko Jaurlaritza (2013). *Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean. Haur eta Lehen Hezkuntza*.



**1.4.4.-a. Bigarren Hezkuntzako curriculumaren egokitzapen indibidual eta esanguratsuak, adimen gaitasun handiko ikasleen egokitzapen curricularrak eta Gela Egonkorreko Curriculum Proiektua (GCEP) aurkezteko epeak.**

- Ikastetxeko Zuzendaritzak curriculumaren egokitzapen indibidual esanguratsuaren proposamena bideratuko du urriaren 15a baino lehen.
- Berritzeguneko hezkuntza-premia berezietarako aholkularitzak txostena emango du azaroaren 10a baino lehen.
- Hezkuntza Ikuskaritzak bere oniritzia bidaliko du azaroaren 30a baino lehen.
- Hezkuntza Berritzatzeko Lurralde Burutzak ikastetxeei idatziz jakinaraziko die curriculumaren egokitzapena eta GCEP onartuak izan diren edo ez, abenduaren 10a baino lehen, eta ikastetxeak, abenduaren 15a baino lehen, erabakia idatziz jakinaraziko die ikaslearen legezko arduradunei, ebazpenaren kopia bat erantsiz.

**1.4.4.-b. Bigarren Hezkuntzan adimen-gaitasun handiko ikasleen curriculum hedatzeko egokitzapenak aurkezteko epeak.**

- Ikastetxeko Zuzendaritzak curriculum hedatzeko egokitzapenaren proposamena bideratuko du urriaren 15a baino lehen.
- Berritzeguneko hezkuntza-premia berezietarako aholkularitzak txostena emango du azaroaren 10a baino lehen.
- Hezkuntza Ikuskaritzak bere oniritzia bidaliko du azaroaren 30a baino lehen.
- Hezkuntza Berritzatzeko Lurralde Burutzak ikastetxeei idatziz jakinaraziko die curriculumaren egokitzapena onartua izan den edo ez, abenduaren 10a baino lehen, eta ikastetxeak, abenduaren 15a baino lehen, erabakia idatziz jakinaraziko die ikaslearen legezko arduradunei, ebazpenaren kopia bat erantsiz.

**1.4.4.-c. Derrigorrez eskolatzeko unea atzeratzeko, Bigarren Hezkuntzan eskolatzeara aurreratzeko edo eskolaldia murrizteko edo luzatzeko eskaerak aurkezteko epeak.**

- Zikloa hasi aurretik, ikastetxeko Zuzendaritzak eskolatzeara aurreratu edo murrizteko proposamena bideratuko du maiatzaren 30a baino lehen.
  - Berritzeguneko hezkuntza-premia berezietarako aholkularitzak txostena emango du ekainaren 5a baino lehen.
  - Hezkuntza Ikuskaritzak bere oniritzia bidaliko du ekainaren 15a baino lehen.
- Lurraldeko Hezkuntza Berrikuntzako Arduradunak ekainaren 20a baino lehen tramitatuko du dokumentazioa.
- Hezkuntza Berritzatzeko Lurralde Burutzak ikastetxeei idatziz jakinaraziko die eskolatzeara aurreratu edo murrizteko proposamena onartua izan den edo ez, ekainaren 25a baino lehen, eta ikastetxeak, ekainaren 30a baino lehen, erabakia idatziz jakinaraziko die ikaslearen legezko arduradunei, ebazpenaren kopia bat erantsiz.

#### **1.4.4.-d. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak curriculumean sartzeko baliabide materialak eskatzeko epeak**

Ikastetxeek Berritzegunearen bitartez eskatuko dituzte baliabide horiek, eta Berritzeguneak Hezkuntza Berritzatzeko Lurraldeko arduradunari jakinaraziko dizkio zonaldean dauden premiak. Ikasturtean zehar giltzarri diren uneak aintzat hartuz, data hauek ezarri dira:

2015-2016 ikasturterako baliabide materialen eskaera. Berritzeguneak premiak baloratuko ditu eta baliabideen proposamena bideratuko dio Hezkuntza Berritzatzeko Lurraldeko arduradunari, apirilaren 11 baino lehen.

Ikasturtearen hasieran antzemandako egoera berrien argitan, ikastetxeko Zuzendaritzak irailaren 27a baino lehen, behar dituen baliabide gehigarrien proposamena bidaliko du Berritzegunera.

#### **1.4.4.e. Curriculumaren banakako egokitzapen esanguratsuak Batxilergoan eta heziketa-zikloetan**

Dagoeneko ez dago indarrean ikasketa horietako ikasleentzat curriculumaren banakako egokitzapen esanguratsuak egiteko aukera. 1998ko uztailaren 24ko Aginduak, curriculumera sartzeko egokitzapenen eta curriculumaren norbanako egokitzapen nabarien baimena arautzen duenak, ematen zuen, baina Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa indarrean sartu zenetik ikastetxeek curriculum-egokitzapen gutxiago egin ditzakete: Batxilergoko irakasgai eta Lanbide Heziketako modulu batzuetan bakarrik egin ditzakete hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak curriculumean sartzeko egokitzapenak. Gainera, Batxilergoko edo heziketa-zikloko helburuei eutsi behar diete, baina Batxilergoan salbuespen partzialak egin ditzakete, betiere Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak oniritzia ematen badu.

#### **1.4.4.f. Batxilergoan eta Goi Mailako Lanbide Heziketan eskolaldia malgutzeko eskaera aurkezteko epeak**

- Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak eskolaldia malgutzeko proposamena bidali behar dio Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunari ikasturtea hasi aurretik, maiatzaren 30a baino lehen.
- Berritzeguneko hezkuntza-premia berezietarako aholkulariak txostena egin behar du ekainaren 5a baino lehen.
- Hezkuntzako Ikuskaritzak oniritzia bidali behar du ekainaren 15a baino lehen.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak bideratu behar ditu dokumentuak maiatzaren 15a baino lehen.
- Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak jakinarazi behar die ikastetxeei ekainaren 20a baino lehen ea eskolaldia laburtzea onartu duen, eta ikastetxeak jakinarazpena bidali behar die ikaslearen legezko arduradunari ekainaren 30a baino lehen, ebazpenaren kopia bat erantsita.



#### 1.4.5. CURRÍCULUM ANIZTASUNEZKO TALDEAK

Ikastetxeek indarrean dagoen araudiaren arabera antolatu behar dituzte curriculum-aniztasunezko taldeak. Indarrean dagoen araudia honakoa da:

- 1997ko uztailaren 9ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum-aniztasunezko programak eratzen dituen [EHAA, 1997ko uztailaren 29koa].

- 1998ko apirilaren 20ko Ebazpena, Hezkuntza sailburuordearena, EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeentzako curriculum-aniztasuneko oinarriko programaren eredia arautzen duena [EHAA, 1998ko maiatzaren 26koa].

- Hezkuntza Sailburuordetzaren deialdiak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta itunpeko ikastetxeak deitzen dituenak 2015-2016 ikasturterako curriculum-aniztasuneko taldeak antolatzeko baimena eskatzera.

Curriculum-aniztasuneko alorrean aritzen diren irakasleek 15 eskola-ordu dituzte astean hamar ikasle baino gutxiagoko taldeetan aritzen badira, eta 12 gainerako taldeetan aritzen badira. Gainera, curriculum-aniztasuneko alorrean aritzen diren irakasle guztiek astean 2 ordu eman behar dituzte beren taldeko ikasleekin banakako tutoretza lanak egiten.

Aipatutako eskola-orduetatik 9 curriculum-aniztasuneko taldearekin eman behar dituzte, dagokien arloan. Gainerako orduetan, berriz, beren espezialitatekoak diren edo beren espezialitatearekin lotura duten irakasgaiak eman behar dituzte, edo, hala badagokio, hezkuntza indartzeko jardueretan aritu.

Ikastetxeek gutxitu egiten badituzte 10 ikasle edo gehiagok osatutako taldeetako irakasleen eskola-orduak, irakasleen guardia-orduen kopurua neurri berean handitu behar dute, edo, bestela, zuzendariak beste jarduera batzuk esleitu behar dizkiete irakasleei, astean 23 orduko lanaldia osatu arte. Irakasleek beste jarduera batzuetan aritu behar badute lanaldia osatzeko, ahal dela, aniztasuna tratatzen laguntzeko jardueretan aritu behar dute.

#### 1.4.6. ESKOLA-ORDUTEGIA

Ikastetxeko Ordezkaritza-Organok Gorenari dagokio ikasleen eskola-orduak finkatzea, hezkuntza-etapa bakoitzaren berezko arauak errespetatuz.

Era berean, Ordezkaritza-Organok finkatu behar du ikastetxea zenbat denbora irekita egongo den eta ikasleek eskola-orduetatik kanpo zer jarduera egingo dituzten. Hala ere, haren erabakia onartzeko, ezinbestekoa da zuzendaria bat etortzea, ikastetxeko arduraduna baita, eta irakasleen eta irakasle ez diren langileen lan-eskubideak errespetatzea. Gainera, ikastetxeak erabakia jakinarazi behar dio Hezkuntzako Ikuskaritzari.

Ikasturtean ezin dira aldatu ikasleen eskola-orduak, salbu eta Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak baimena ematen duen behar bezala justifikatutako ohiz kanpoko arrazoiak direla eta.

Ikastetxe batek hurrengo ikasturteko ordutegia aldatu behar badu, baldintza hauek bete behar ditu:

- Proposamena bat etortzea eskola-egutegiari buruzko araudiak ezartzen dituen eskakizunekin.



- Ikastetxeko Ordezkaritza-Organoren edo Eskola Kontseiluaren gehiengo absolutuak onartzea aldaketa-proposamena.
- Eskola-komunitate osoari (gurasoei, irakasleei eta ikastetxeko gainerako profesionalei) galdetzea eta proposamena kideen % 80k baino gehiagok onartzea.
- Aipatutako eskakizunak betetzea eta ikastetxeko zuzendaritza-taldeak eskaera Lurralde Ordezkaritzari bidaltzea ikasturte horretako otsaila baino lehen.

Lurralde Ordezkaritzak egoki irizten dion txostenak bildu, eta aldaketa egiteko baimena eman edo ukatu behar du ikastetxeak matrikula egiteko aurrez izena emateko epea hasi baino lehenago. Hartara, ikastetxeak jakinaraz diezaieke eskola-komunitateko kide guztiei hurrengo ikasturterako ordutegia aldatuko dela.

#### **1.4.6.a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak**

Ikastetxeak berak ezarri behar du DBHko ikasleen eskola-ordutegia, eta, horretarako, indarrean dagoen araudiak xedatzen dituen gutxienekoak errespetatu behar ditu.

2015eko irailean eta 2016ko ekainean, aukera dago eskolak goizez bakarrik emateko.

Gainerakoan, eskolak goizez eta arratsaldez eman behar dituzte ikastetxeek, baina asteko arratsalde bateko eskolak ken ditzakete, eta irakasleak prestatzeko jarduerak egiteko erabili. Gainera, ordezkaritza-organoren erabaki dezake beste arratsalde batean eskolarik ez izatea. Horretarako, beharrezkoa da ordezkaritza-organoren estamentu bakoitzaren (gurasoen, ikasleen eta irakasleen) gehiengo kalifikatuak (bi herenek) erabakia onartzea. Edonola ere, eskolarik gabeko arratsaldeak direnak direla, ikastetxeek ordutegiak egokitu behar dituzte astean 30 eskola-saio egiteko moduan.

Eskolak goizez eta arratsaldez izaten diren egunetan 6 eskola-saio izan behar dira, eta eskola bakoitzak ordubete iraun behar du. Honela banatu behar dituzte eskolak ikastetxeek:

- Goizean, 4 eskola eman behar dituzte, 60 minutukoak, bi zatitan banaturik, 30 minutuko jolasaldia eginda tartean.
- Arratsaldean, 2 eskola eman behar dituzte, 60 minutukoak.

Eskola-orduak jarraituak diren egunetan ere, 6 eskola eman behar dituzte, iraupen berekoak, eta eskola bakoitzak 50 minutu iraun behar du gutxienez. Gainera, jolasaldi bat edo gehiago izan behar da, ikasleei 30 minutuko atseden emateko gutxienez.

Ordutegiak eskakizun hauek bete behar ditu:

- a) Eskolek 08:00etan hasi behar dute goizenik, eta 09:00etan beranduenik.
- b) Goizeko eta arratsaldeko saioen artean, ordu eta erdiko atsedenaldi bat izan behar da gutxienez.
- c) Arratsaldeko eskolek 17:30ean amaitu behar dute beranduenik.
- d) Ikastetxeek hiru eskola-ordu eman ditzakete gehienez jarraian, tartean jolasaldia egin gabe.
- e) Jolasaldiak 15 minutu iraun behar du gutxienez, eta, bakarra badago egun osoan, 30 minutu gutxienez.



DBH eta Batxilergoa irakasten dituzten ikastetxeek, bi etapetako ordutegiak koordinatu ahal izateko, honako aukera hau izango dute: klase-jardunen iraupena 55 minutukoa izan, ikasturte osoan eta klase guztietan, goizeko jarduna dagoenean, ekaineko eta iraileko egunak barnean hartuta, zein goiz eta arratsaldeko jarduneko egunetan.

Edonola ere, ordutegiak doitu beharko dira, astean zenbait arratsalde libre izanik ere, edo klaseetako iraupena edozein izanik ere, tokian tokiko curriculumean aurreikusi diren irakaskuntzako jardun guztiak bete daitezzen, baita ekainean eta irailean ere.

Derrigorrezko Hezkuntzan, aldi lektiboan ikastetxeek adingabekoen eta haien ekintzen ardura dute. Dena dela, guraso, tutore eta legezko ordezkariak, guraso-ahalaz baliatuta, baimendu dezakete aldi eta une jakin batzuetan adingabekoak ikastetxean ez egotea. Aldi lektiboan soil-soilik guraso, tutore edo legezko ordezkariak espresuki baimentzen dutenean utzi ahal izango dute ikasleek ikastetxea.

### **DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO CURRÍCULUM DEKRETU BERRIA**

2015-2016 ikasturtean Currículum Dekretu berria Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 3. mailetan ezarriko da. Hauek dira aurreikusitako aldaketa nagusiak:

- 1. DBHn “Natur Zientziak” ikasgaia “Biologia eta Geologia”-rekin ordezkatu da.
  - 3. DBHn “Natur Zientziak” ikasgaia bi arlo desberdinetan banatuko da: “Biologia eta Geologia” eta “Fisika eta Kimika”.
  - “Gizarte zientziak, Geografia eta Historia” eta “Plastikaren eta Ikusizkoen Hezkuntza” ikasgaien izenak aldatu dira. Izen berriak: “Geografia eta Historia” eta “Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza” izango dira.
  - 1. eta 3. DBHn “Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza” ikasgaia desagertzen da.
  - 3. DBHn ikasleek bi matematika mota izango dituzte aukeran: “Hezkuntza aplikatura bideratutako matematika” eta “Hezkuntza akademikora bideratutako matematika”. Bi matematika mota horiek curriculumaren %80a komunean daukate eta ez dute 4. DBHko aukera baldintzatzen.
  - “Erlijioa” aukeratzeko ez duenak “Balio etikoak” emango ditu eta alderantziz. “Erlijioa” derrigorrez eskaini behar da.
  - 1. eta 3. mailetan ikasleek, ikastetxeen eskaintzaren arabera, gutxienez ikasgai hauen arteko bat emango dute: “Atzerriko bigarren hizkuntza”, “Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza” eta “Musika”.
  - Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak gutxieneko ordutegia kontutan hartuta, erreferentziako ordutegi bat eskainiko du. Hala eta guztiz ere, ikastetxe bakoitzak bere autonomia pedagogikoa dela eta, askatasuna dauka bere ordutegi propioa ezartzeko, beti ere gutxiengo ordutegia errespetatuz.
- Ikus eranskinean dekretu zirriborroan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxiengo eta erreferentziako ordutegiak.



| ORDUAK ASTEAN                                      | Gutxieneko ordutegia |               | Erreferentziako ordutegia kurtsoaren arabera |     |     |               |
|--|----------------------|---------------|--|-----|-----|---------------|
|  | 1.a,2.a,3.a          | 4.a           | 1.a  | 2.a | 3.a | 4.a           |
| Geografia eta Historia                             | 9                    | 3             | 3  | 3   | 3   | 3             |
| Gaztelania eta Literatura                          | 9                    | 3             | 4  | 4   | 3   | 3             |
| Euskara eta Literatura                             | 9                    | 3             | 4  | 4   | 3   | 3             |
| Atzerriko lehen hizkuntza                          | 9                    | 3             | 4  | 3   | 3   | 4             |
| Matematika   | 9                    | 3             | 4  | 4   | 3   | 4             |
| Gorputz Hezkuntza                                  | 6                    | 2             | 2  | 2   | 2   | 2             |
| Erljioa / Balio Etikoak                            | 3                    | 1             | 1  | 1   | 1   | 1             |
| Biologia eta Geologia                              | 6                    | 2 x 2<br>ordu | 3  | -   | 3   | 2 x 3<br>ordu |
| Fisika eta Kimika                                  | 6                    |               | -  | 3   | 3   |               |
| Ekonomia   | -                    |               | -  | -   | -   |               |
| Latina   | -                    |               | -  | -   | -   |               |
| Teknologia   | 4                    |               | 2  | 2   | 2   |               |
| Jarduera profesionalari aplikatutako zientziak     | -                    |               | -  | -   | -   |               |
| Ekintzailtza- eta enpresaritza-jardueretarako      | -                    |               | -  | -   | -   |               |
| Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza | 3                    | 1 x 2<br>ordu | -  | 2   | 2   | 1 x 3<br>ordu |
| Musika   | 3                    |               | 2  | 1   | 1   |               |
| Atzerriko bigarren hizkuntza                       | -                    |               | -  | -   | -   |               |
| Arte Eszenikoak eta Dantza                         | -                    |               | -  | -   | -   |               |
| Kultura zientifikoa                                | -                    |               | -  | -   | -   |               |
| Kultura klasikoa                                   | -                    |               | -  | -   | -   |               |
| Filosofia  | -                    |               | -  | -   | -   |               |
| Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak     | -                    |               | -  | -   | -   |               |
| Zentroaren konfigurazio autonomiko askea           | -                    |               | -  | -   | -   |               |
| Hautatu ez den aukerako irakasgai nagusia          | -                    |               | -  | -   | -   |               |
| Tutoretza  | 3                    | 1             | 1  | 1   | 1   | 1             |
| Ikastetxeak aukeratzekoa                           | 11                   | 5             | -  | -   | -   | -             |



#### 1.4.6.b) Batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasleak

Ikastetxeak berak ezarri behar du Batxilergoa egunez egiten duten ikasleen eskola-ordutegia eta, horretarako, indarrean dagoen araudiak xedatzen dituen gutxieneoak errespetatu behar ditu.

Batxilergoko 1. kurtsoan asteko 34 klase-orduak emateko, asteko lau egunetan 7 klase-ordu emango dira eta beste egunean, berriz, 6 klase-ordu, eta aldez aurretik erabakiko da zein egunean zenbat ordu eman. Batxilergoko 2. kurtsoan asteko 33 klase-orduak emateko, asteko bi egunetan 6 klase-ordu emango dira eta beste egun hirutan, berriz, 7 klase-ordu, eta aldez aurretik erabakiko da zein egunean zenbat ordu eman.

Bai 1. kurtsoan baita 2. kurtsoan ere klase guztiek 55 minutuko iraupena izango dute gutxienez.

DBH eta Batxilergoa irakasten dituzten ikastetxeek, bi etapetako ordutegiak koordinatu ahal izateko, honako aukera hau izango dute: klase-jardunen iraupena 55 minutukoa izan, ikasturte osoan eta klase guztietan, goizeko jarduna dagoenean, ekaineko eta iraileko egunak barnean hartuta, zein goiz eta arratsaldeko jarduneko egunetan.

Edonola ere, ordutegiak doitu beharko dira, astean zenbait arratsalde libre izanik ere, edo klaseetako iraupena edozein izanik ere, tokian tokiko curriculumean aurreikusi diren irakaskuntzako jardun guztiak bete daitezten, baita ekainean eta irailean ere.

Lanbide Heziketako ikasketetako eskola-saio guztiek 60 minutu iraun behar dute, salbu eta Batxilergoko eta Lanbide Heziketako ordutegiak koordinatu behar diren eta horren ondorioz 7 saioko egunetako eskolen iraupena egokitu behar den.

Batxilergoa gauzez ikasten duten ikasleen ordutegia, berriz, 2010eko uztailaren 26ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarenak, pertsona helduen Batxilergoko irakaskuntza arautzen duenak, ezartzen du [EHAA, 2010eko irailaren 10ekoa].

Bestalde, Hezkuntza-sistemari buruzko Lege Organiko Orokorrek sortutako heziketa-zikloetako ikasleen ordutegiak bat etorri behar du Lanbide Heziketako Zuzendaritzak 1998ko ekainaren 24an heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeei emandako jarraibideekin, eta Hezkuntzari buruzko Lege Organikoak sortutako heziketa-zikloetako ikasleenak, heziketa-ziklo horien ezarpena arautzeko araudiak xedatzen duenarekin.

Ikasle adingabeek Batxilergoko irakasgai komunak egiteko ikastetxetik atera behar badute ordutegia doitzeagatik, guraso edo legezko tutoreek beren gain hartu behar dute haien gaineko erantzukizun guztia ikastetxetik ateratzen direnetik, idatziz.

Ikasleek ez badute eman behar gelan ematen ari diren irakasgaia eta gelatik irteten badira, ikasketak-buruak arduratu behar du arreta eman dakien.

#### 1.4.6.c) Araudiaren salbuespenak

Salbuespen gisa, Hezkuntzako lurralde-ordezkariek araudia aldatzea onar dezake, betiere aldaketak behar-beharrezkoak badira ikastetxeko maila guztietako edo garraio edo/eta jantoki-zerbitzu bereko ikastetxeetako ikasleak garraiatzeko zerbitzuak koordinatzeko.



#### 1.4.7. JARDUERA OSAGARRIAK ETA ESKOLAZ KANPOKOAK

Ebazpen honen zenbait ataletan aipatu dugunez, beharrezkoa da jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak baliabide gehigarritzat hartzea, baliagarriak baitira ikasleek gelan hasitako eta garatutako ikaskuntza formalak finkatzeko. Azken batean, oinarritzko gaitasun guztiek harreman funtzionala izan behar dute ikasleen testuinguruarekin. Ildo horretan, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak baliabide didaktikoak dira, esperimintatzeko eta ikasteko baliabideak, askotan gelan erabili ezin direnak.

Hori dela-eta, hezkuntza-komunitateari iradokitzen diogu diagnostika dezatela jarduera osagarriek eta eskolaz kanpokoek zein aukera eskaintzen dituzten eskola inklusibo, etiko, jasagarri eta eleaniztunaren printzipioak hedatzeko eta horiek ikasleak egunero parte hartzen duen familia- eta gizarte-ingurunean sendotzeko.

Ikastetxe batek jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak antolatzen dituenean, horiek Ikastetxearen Urteko Planean jaso beharko dira, eta, jasota ez badaude, Ordezkaritza Organo Gorenak aurrez onetsi beharko ditu.

Jarduera didaktikoak egiteko, adingabe diren ikasleek ikastetxetik kanpo atera behar dutenean, ikasle horien guraso edo legezko tutoreen baimen idatzia beharko da. Horrez gain, desplazamenduak jasagarritasunerako irizpideak erabiliz programatu behar dira.

Ikastetxetik kanpoko jarduera osagarri orotan bi helduk lagundu behar diete gutxienez ikasleei, eta horietako batek gutxienez ikastetxeko irakaslea izan behar du. Era berean, hala dagokionean, hezkuntza-laguntzako langile espezialistek ere lagundu behar diete ikasleei. Bestalde, 20 ikasleko edo 10etik gorako talde bakoitzeko irakasle batek lagundu behar die ikasleei, betiere lehen aipatutako gutxieneko kopurua errespetatuz. Ahal dela, irakasle laguntzaileek izan behar dute dena delako jardueran parte hartzen duen/duten taldearen/taldeen lantalde didaktikoko kide.

Zuzendariak edo hark izendatzen duen ordezkariak txosten bat egin behar du ikasleek eskola-orduetan egiten dituzten irteerei eta ikastetxean bertan edo handik kanpo egiten dituzten eskolaz kanpoko jarduerari buruz, eta data, ordua, iraupena eta edukia adierazi behar ditu. Ondoren, txostena ikastetxean utzi behar du, ordezkaritza-organo gorenaren eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskura.

Ikastetxe batek, jarduera osagarriak edo eskolaz kanpokoak planifikatzean, ikasle guztiak kontuan hartu behar ditu, hezkuntza-premia bereziak dituztenak barne. Ikasle guztiek dute jarduera horietan parte hartzeko eskubidea; beraz, hori aintzat hartuta, eta ikastetxearen beraren baliabideekin, jarduera egokienak aukeratu beharko dira, ahaleginak eginez inor baztertua izan ez dadin. Plangintza hori taxutzeko orduan, kontuan izango dira ikastetxearen baliabide propioak eta bertako irakasle eta hezkuntza-profesionalen parte hartzeko aukera.

#### 1.4.8. IKASLEEN BERTARATZEA

Ikasle ofizial guztien (eskolak egunez zein gauzez ematen dituztenen) eskubidea eta betebeharra da eskolara joatea. Inola ere ezin da esan borondatezkoa denik.



- Hala ere, kontuan izan behar da azaroaren 10eko 24/1992, 25/1992 eta 26/1992 legeek, Estatua eta entitate erlijiosoen zenbait federazio eta batzorde elkarlanean aritzeko itunak onartzen dituztenek, berezitasun batzuk ezartzen dituztela [EAO, 1992ko azaroaren 12koa].

- Egunen batean ikasle gutxi badago dena delakoagatik, irakasleek berdin-berdin eman behar dituzte eskolak.

- Gurasoek edo legezko tutoreek ikasleen hutsegiteak justifikatu behar dituzte dagokion tutorearen aurrean, eta ikasketa-buruak frogagiria onartu behar du. 18 urtetik gorako ikasleek beren frogagiriak aurkeztea erabakitzen badute, lan-harreman arrunten esparruan aurkeztu behar dituzten frogagiri berak aurkeztu behar dituzte.

- Ikasleren batek behin eta berriz huts egiten badu eta frogagiriak duda-mudakoak badira, ikasketa-buruak proposa diezaiokie ordezkartza-organo gorenari neurriak hartzeko frogagiriak hobeto kontrolatzeko.

- DBHko ikasleei dagokienez, justifikatu gabeko hutsegiteak absentismoaren ondorio badira, ikastetxeek jarraitu behar diote Hezkuntzako Ikuskaritzak ikasturte hasieran jakinarazten dien prozedurari. Edonola ere, hilabete bakoitzaren 5a baino lehen, ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek Zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzari (eta, hala dagokionean, Udalari) bidali behar dizkiote absentismoa eta eskolatu gabeak erregistratzeko aurreko hilabeteko orriak.

- Orain arte esandakoa kontutan izanik, ordezkartza-organo gorenak arauak eman behar ditu Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudian ikasleen hutsegiteei eta haien zuzentzeko neurriei buruz, abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, xedatzen duenarekin bat [EHAA, 2008ko abenduaren 16koa].

Era berean, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ikasturteko hiruhileko bakoitzeko laburpen-orrria bidali behar dio Zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzari hiruhilekoaren amaieran.

Lanbide Heziketako irakasgaietan, ikastetxeek ofizioz baja eman beharko diete justifikatu gabe eskola-saio programatuetara joaten ez diren ikasleei, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko martxoaren 14ko aginduaren arabera (AGINDUA, 2013ko martxoaren 14koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, 2015-2016 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko eta itunpeko pribatuetan Batxilergoko, heziketa-zikloetako eta Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetako ikasleak onartzeko eskabideak aurkezteko egutegi komuna ezartzen da; era berean, jarraibideak onartzen dira ikasleok onartzeko eta maila horietako ikasketa ofizialak ematen dituzten ikastetxe guztietan matrikulatzeko).

#### **1.4.9. ERLIJIOA**

##### **1.4.9.a.- Erljioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 3. mailetan**

**Ikasle guztiek Erljioa edo Balio etikoak ikasi behar dute, gurasoen edo legezko tutoreen edo, hala dagokionean, ikaslearen aukeran.**



Ikasturtea hastean, erlijioa ikasi nahi duten ala ez adieraziko dute adinez nagusi diren ikasleek eta adingabekoen gurasoek edo tutoreek.

Erlijio katolikoaren irakaskuntza bat etorriko da Egoitza Santuaren eta Espainiako estatuaren artean izenpetutako Irakaskuntzari eta Kultura Gaiei buruzko Akordioarekin.

Hala, erlijio katolikoa ikasgaia izango da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, nahitaez eskaini beharrekoa ikastetxeentzat eta hautazkoa ikasleentzat.

Erlijioa hautatzen ez dutenek Balio Etikoak landuko dute.

Beste erlijioen irakaskuntza bat etorriko da Espainiako estatuak Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Komunitate Israeldarren Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamikoarekin egindako lankidetzak-akordioekin eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio batzuekin izenpetzen diren akordioekin.

Erljioaren curriculum-a zehaztea erlijio bakoitzeko agintarien eskumena da. Eskola-liburuen eta material didaktikoaren erabilera eta, hala dagokionean, horiek ikuskatzea eta onestea, kasuan kasuko agintari erlijiosoen lana da, Espainiako estatuarekin izenpetutako Erabakiei jarraituz.

Etapako gainerako ikasgaien baldintza eta ondorio berberekin ebaluatuko da Erljio Katolikoa. Estatuak erlijio bakoitzarekin izenpetutako akordioetan ezarritakoari jarraituz ebaluatuko da erlijio horien irakaskuntza.

#### **1.4.9.b.- Erljioa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. eta 4. mailetan**

Ikastetxeek nahitaez eskaini behar dute Erljioa irakasgaia, baina ikasleek eman ala ez hauta dezakete. Alde horretatik, ikastetxeek jokatu behar dute urriaren 16ko 175/2007 Dekretuko lehen xedapen gehigarriak diosenari jarraituz [EHAA, 2007ko azaroaren 13koa]:

“1. Ikasturte-hasieran, erlijio-irakaskuntza jaso nahi duten ala ez adieraziko dute adinez nagusi diren ikasleek eta adingabekoen gurasoek edo tutoreek.

2. Erljio-irakaskuntza jaso nahi dutenek, hauen artean aukeratu beharko dute:

- a. erlijio katolikoko irakaskuntza,
- b. beste erlijio-konfesio batzuetako irakaskuntza, baldin eta Estatuak nazioarteko akordioak edo lankidetzakoak izenpetuak baditu erlijio horiekin, eta, betiere, hitzarmen horietan adostutako baldintzetan, edo
- c. Erljioen Historia eta Kultura ikastea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

3. Baldin eta erlijio-irakaskuntzarik ez hartzea aukeratu bada, ikastetxeek antolamendu-neurriak hartuko dituzte ikasleei behar bezalako hezkuntza-arreta emateko. Hala, bermatu egin beharko dute ez dela diskriminaziorik egiten, ikasleak egindako aukera edozein dela ere. Hezkuntza-arreta horrek ez dakar berekin erlijio-egitatearen ezagutzarekin lotutako curriculum-dukien ikasketa. Halaber, ezingo du bestelako jakintzagaiei dagozkien curriculum-dukien ikasketa ekarri, baldin eta hori egitea erlijio-ikasketak egitea aukera duten ikasleekiko diskriminazio-arrazoitzat jo badaiteke. Ikastetxeek hezkuntza-proiektuan jaso beharko dituzte antolamendu-neurriak, gurasoek, tutoreek eta ikasleek horien berri aldeztatik izan dezaten.

4. Erljio katolikoko irakaskuntzen eta Erljioen Historia eta Kulturako irakaskuntzen ebaluazioa egiteko, hezkuntza-etapako gainerako irakasgaietako prozedurak erabiliko dira eta ebaluazioaren ondorioak berdinak izango dira, hala badagokio. Estatuak erlijio-konfesioekin





izenpetutako lankidetzak-akordioetan ezarritakoari jarraituko zaio erlijio-konfesio horietako irakaskuntzen ebaluazioa egiteko.

5. Erlijio katolikoaren irakaskuntza-curriculuma eta, Estatuak hezkuntza-arloan lankidetzak-akordioak izenpetuta dituen heinean, gainerako erlijio-konfesioetako irakaskuntzen curriculuma eliza-hierarkiak eta erlijio-konfesioetako erlijio-agintariek ezarriko dute. Dekretu honetako V. eranskinean araututakoa izango da Erlijioen Historia eta Kultura irakasgaiaren curriculuma, DBHn.

6. Ikasleen arteko berdintasuna eta lehia askearen printzipioa bermatzeko, erlijio-irakaskuntzaren ebaluazioan lortutako kalifikazioak ez dira konputatuko ikasketa-espedituentz arteko lehiaren bidez erabakitzen diren deialdietan, ezta ikasleak onartzeko batez besteko kalifikazioa eskatzen dituzten deialdietan ere, baldin eta batez besteko horri erreparatuko bazaio eskatzaileen artean erabakitzeko”.

Erljioa ematen ez duten DBHko ikasleen hezkuntza-arreta ez da ebaluatzekoa.

#### 1.4.9.c.- Erljioa Batxilergoko 1. mailan

Ikasle bakoitzak honako atal honetako gutxienez bi ikasgai eta gehienez hiru egin beharko ditu:

- Musika Azterketa I
- Anatomia Aplikatua
- Kultura Zientifikoa
- Marrazketa Artistikoa I
- Marrazketa Teknikoa I (baldin ez badute hartu beste atalean esleitutako ikasgaien artean)
- Musikaren Hizkuntza eta Praktika
- Erljioa
- Atzerriko Bigarren Hizkuntza I
- Teknologia Industrial I
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak I
- Bolumena
- Ikasleak esleitu ez duen beste ataletako ikasgai bat

Atal honen barruan Erljioa ikasgaia derrigorrez eskaini beharko da eta gutxienez 15 ikasle izan beharko du ikastetxe zehatz batean eskaintzeko.

#### 1.4.9.d.- Erljioa Batxilergoko 2. mailan

Ikasturtearen hasieran ikasle adindunek eta ikasle adingabeen guraso edo tutoreek adierazi behar dute erlijio-ikasketak eman nahi dituzten ala ez ikastetxeak Batxilergorako ezarritako eskola-orduetan. Alde horretatik, erlijioa emateko baldintzak oinarrizko gainerako jakintza-arloen parekoak dira.

Erljioa ikastea aukeratzen dutenek hauetako bat aukeratu behar dute: erlijio katolikoaren irakaskuntza edo beste erlijio-konfesio batzuen irakaskuntza, baldin eta Estatuak nazioarteko akordioak edo lankidetzakoak izenpetu baditu haiekin. Alde horretatik, musulman, ebanjeliko eta juduekin izenpetu ditu horrelako akordioak Estatuak.



Baldin eta erlijio-irakaskuntzarik ez hartzea aukeratu bada, ikastetxeek antolamendu-neurriak hartuko dituzte ikasleei behar bezalako hezkuntza-arreta emateko. Hala, bermatu egin beharko dute ez dela diskriminaziorik egiten, ikasleak egindako aukera edozein dela ere. Hezkuntza-arreta horrek ezingo du bestelako jakintzagaiei dagozkien curriculum-dukien ikasketa ekarri, baldin eta hori egitea erlijio-ikasketak egitea aukera duten ikasleekiko diskriminazio-arrazoitzat jo badaiteke. Ikastetxeek hezkuntza-proiektuan jaso beharko dituzte antolamendu-neurriak, gurasoek, tutoreek eta ikasleek horien berri aldeztatik izan dezaten. Erlijioa ikasten ez duten ikasleei ematen zaien hezkuntza-arreta ez da ebaluatuko.

#### 1.4.10.- PROIEKTU-MODULUA LANBIDE EZIKETAN

Prestakuntza-zikloan zehar eskuratutako ahalmenak eta gaitasunak integratzea da proiektu-moduluaren helburua, eta, horretarako, zeharkako gaitasunak (esate baterako, talde-lana, ekimena, erantzukizuna eta komunikazio-estrategiak) garatzen laguntzen duten metodologiak erabiliko dira.

Proiektu-modulua prestakuntza-zikloaren azken zatian egingo da, eta indibidualki kalifikatuko da, Lantokiko Prestakuntza (LP) lanbide-modulua egin ondoren, horren ebaluazioaren emaitza edozein dela ere. Enpresan egindako praktikaldian eskuratutako gaitasunak modulu horretan sartu ahal izatea da helburua. Oro har, LParen aldi berean egingo da, baina beste aldi batzuk ere ezarri ahal izango dira, betiere metodologia- edo antolamendu-proiektuetan justifikatzen badira. Halako kasuetan, aldi berri horiek onartu eta ikastetxearen curriculum-proiektuan jaso beharko dira.

Lan-eskarmentua izategatik LP modulua egitetik guztiz salbuetsita geratzearen kasu berezian, ikastetxean 1. eta 2. mailako modulu guztiak gainditzen dituztenean egin dezakete ikasleek proiektu-modulua. LP modulua egiteari uko eginez gero, proiektu-modulua ezin izango da ebaluatu LP modulua bukatu arte.

Lanbide Heziketako ikastetxeek beren curriculum-proiektuan adierazi beharko dituzte goimailako heziketa-zikloetan proiektu-modulua gauzatu, segimendua egin eta ebaluatzeko irizpide orokorrak. Irakasleen klaustroari dagokio irizpide horiek onartzea.

Irizpide orokor horiek zehaztu egin beharko dira, eta departamendu bakoitzeko programazioetara eraman, sailaren barruan onartu ondoren. Didaktika-departamentu bakoitzeko buruak arduratuko dira onartutako irizpideak behar bezala aplikatzeaz. Ikasketa-burutzak gainbegiratu du ikasleen proiektuen garapena, eta berak konponduko ditu garapen horretan sor litezkeen gertakizunak.

Ikastetxeko irakasleek ikasleen segimendua eta tutoretza egiteko eredia jaso beharko da onartutako irizpideen artean. Lanbide Heziketako ikastetxeek ikasleei ikastetxean arreta eskaintzeko eredu bat aurreikusi ahal izango dute, datetan bat datorrena proiektu-moduluarekin eta LParekin.

Proiektuak banaka edo taldeka egin daitezke, prestakuntza-ziklo bakarrerako edo batzuetarako, inplikaturako didaktika-sailarekin adostu ondoren. Halaber, hainbat ikastetxeren artean zehatz daitezke, prestakuntza-ziklo bera edo beste bat dutenen artean. Zikloko beste modulu batzuekin ere lotu ahal izango dira, eta, horrela, proiektuetan oinarrituta dauden ikasketa-



metodologia globalagoak garatuko dira. Ikasle bakoitzak bere prestakuntza-zikloari buruzko alderdiak landu beharko ditu proiektuan.

Prestakuntza-zikloaren esparruko lan-jardueraren ezaugarrien arabera zehaztuko da proiektuaren modulu profesionala. Prestakuntza-zikloko gaitasunak eta ezagutzak uztartzea izango du helburu, eta tituluarekin lotutako teknologia- eta antolaketa-aldagaiak hartuko ditu kontuan.

Didaktika-departamentuak egin eta onartuko ditu proiektuak zehazteko irizpideak, eta tutoreak esleituko dizkie proiektuak ikasleei. Erabaki horiek akta batean jasoko dira, eta ikastetxeko ikasketa-burutzari igorriko zaio akta hori.

Proiektu-modulua banakako edo taldeko tutoretza oinarri hartuta antolatuko da. Modulu horretan, irakasteko gaitasuna duten eta tutoretza esleitu zaien irakasleek emango dute tutoretza hori, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ezarritako irizpideetan oinarrituz.

Prestakuntza-ziklo bakoitzean proiektu-modulua egin behar duten ikasle guztientzat egingo da taldeko tutoretza; taldeko tutoreak egingo du. Proiektu-moduluaren helburuei, proiektu-motei eta ikasleek modulua ondo egiteko beste informazio garrantzitsu batzuei buruz orientatzea du helburu tutoretzak.

Banakako tutoretzan, ikaslea orientatuko da, aholkuak emango zaizkio eta proiektua bideratuko da. Hala dagokionean, banakako tutoreak koordinatuko d(it)u proiektuan lankide d(ir)en enpresa(k), proiektua enpresen laguntzarekin egitea erabaki bada. Ikastetxeek aurrez aurreko eskola-aldiak ezarriko dituzte tutoretza hori egiteko. Aldi horiek bat etor daitezke ikasleak LParen aldiak ikastetxera joatea aurreikusita dagoen egunekin, eta xede horretarako emandako ordu-kredituaren edo zuzendaritza-taldeak ezarritako beste baten kargura joango dira. Beharrezkoa balitz, komunikazio telematikoaren bidez osa daiteke ikasleen aurrez aurreko tutoretza.

Lanak ikasleenak izango dira, ez beste inorenak; baina emandako materialen kopia bat gordeko du ikastetxeak, eta eskolak emateko erabili ahal izango da.

Baldin eta ohikoak ez diren aldiak baimentzen badira LP modulua egiteko, ikastetxeko zuzendariak egokitu egingo ditu proiektu-modulua egiteko eta ebaluatzeke epeak.

## **1.5. IKASLEEN EBALUAZIOARI BURUZKO GAIAK**

### **1.5.1. EBALUAZIO-BILERAK**

#### **I. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ebaluazioa**

Ebaluazio-bileretan, taldearen tutore den irakasleak koordinatuta eta, hala badagokio, orientatzaileak lagunduta, irakasle taldeak elkarrekin hausnartu eta dokumentuetan adierazi behar ditu bilera bakoitzaren egunera arteko ebaluazio-jardueren emaitzak.

Bileren kopurua eta edukia, bilera bakoitzeko aktak, ebaluazio-txostenak eta gaiaren gainerako alderdiak arautzen ditu 2008ko uztailaren 7ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarenak, Oinarritzko Hezkuntzan ikasleen ebaluazioa arautzen duenak [EHAA, 2008ko uztailaren 30ekoa].

Bigarren eta hirugarren bileretan kontuan hartu behar da 1997ko uztailaren 9ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarenak, EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculum desberdinak eratzeko programak arautzen dituenak, xedatzen duena [EHAA, 1997ko uztailaren 29koa].

## II. Batxilergoko ikasleen ebaluazioa

Ikastetxeek Batxilergoko ikasleak ebaluatu behar dituzte xedapen hauek diotenarekin bat:

- Otsailaren 3ko 23/2009 Dekretua, Batxilergoko curriculum ezartzen eta Euskal Autonomia Erkidegoan jartzen duena [EHAA, 2009ko otsailaren 27koa], eta apirilaren 20ko 122/2010 Dekretua, Batxilergoko curriculum sortu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko Dekretua aldatzen duena [EHAA, 2010eko maiatzaren 07koa].
- 2010eko uztailaren 26ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Batxilergoaren antolamendua eta ebaluazio-prozesua arautzen dituen [EHAA, 2010eko irailaren 09koa].

## III. Heziketa-zikloetako ikasleen ebaluazioa

Ikastetxeek heziketa-zikloetako ikasleak ebaluatu behar dituzte xedapen hauek diotenarekin bat:

- Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua, Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena [EHAA, 2008ko martxoaren 05koa].
- 1997ko uztailaren 15eko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Berriazko Lanbide Heziketa egin dezaten ikasleen ebaluazio-prozesua arautzen duena [EHAA, 1997ko urriaren 03koa], eta 1998ko abenduaren 3ko Agindua, Berriazko Lanbide Heziketa egin dezaten ikasleen ebaluazio-prozesua arautzen duen Agindua aldatzen duena [EHAA, 1999ko otsailaren 03koa].
- 2010eko otsailaren 19ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duena [EHAA, 2010eko martxoaren 24koa].

## IV. Ebaluazioari buruzko arau orokorrak

Atal honek xedatzen duena aplikatuko da Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiak ebaluazio-bilerei buruzko berriazko araudirik ezartzen ez duen gaitan.

### A) Ebaluaziorako baldintzak

- Ebaluazio-bilera baliozkoa izateko, baldintza hauek bete behar dira gutxienez:
  - a) Taldeko irakasle guztiak joan daitezkeen ordu batean egitea.
  - b) Dagokion taldeko irakasle guztien bi herenek parte hartzea gutxienez.
  - c) Irakasleek tutoreen egoera-orrietan adieraztea irakasgai bakoitzeko notak eta estatistikak, ebaluazio-bilera egin baino 24 ordu lehen gutxienez, baita ikasketa-buruak eskatzen duen beste edozein datu ere.
  - d) Tutoreak irakasgai bakoitzeko emaitzen txostena aurkeztea, baita ebaluazio-bileran aztertu beharreko gaien gidoia ere. Bileran aztertu beharreko gaien gidoia bileraren hasieran aurkeztu behar da, eta, hala badagokio, onartu.

**B) Bilerako akta**

- Ebaluazio-akta bat egin behar da ebaluazio-bilera bakoitzeko, eta aktak gai hauek adierazi behar ditu gutxienez:
  - a) Parte hartu duten irakasleen zerrenda eta haien sinadurak.
  - b) Parte hartu ez duten irakasleen zerrenda. Berariaz adierazi behar da bilerara ez joateko baimenik zuten ala ez.
  - c) Irakasgai bakoitzean lortutako emaitzen eta izan diren arazoen analisia.
  - d) Taldearen egoera orokorraren analisia, errendimendu akademikoaren, jarreraren eta arazoen arabera.
  - e) Banakako arazoen analisia eta hezkuntza indartzeko neurri edo jarduerak.
- Era berean, ikasketa-buruak osatu behar du ebaluazio bakoitzean irakasgai eta ikasle talde bakoitzean eman ez diren eskolen zerrenda, arrazoiak azalduta, eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eta ikastetxeko ordezkari-tza-organo gorenaren eskura utzi behar du, haiek dagozkion ondorioak ateratzeko.

**C) Ikasleen parte-hartzea ebaluazio-bileran**

- Ikastetxeko ordezkari-tza-organo gorenak erabakiko du noiz sar daitezkeen ikasleen ordezkariak eta zer gaitan parte har dezaketen. Alde horretatik, argi eta garbi utzi behar da ikasleen banakako ebaluazioa eta gai pertsonalak taldeko irakasleek bakarrik trata ditzaketela.

**D) Dokumentuak**

- Ebaluazio-bileren ondoren, ikasketa-buruak tutoreen txostenak bildu behar ditu, eta ordezkari-tza-organo gorenari aurkeztu. Haiekin batera, hauek aurkeztu behar ditu: emaitzen estatistika, ikasleek eskoletara egindako hutsegiteen zerrenda, irakasleek egindakoena eta ordezkari-tza-organo gorenak eta Hezkuntzako Ikuskaritzak dagokion aldia behar bezala ebaluatzeko beharrezko beste edozein datu.

**1.5.2. ERRENDIMENDU AKADEMIKOAREN EBALUAZIO OBJEKTIBORAKO ESKUBIDEA**

Ikasle guztiek dute beren errendimendu akademikoaren ebaluazio objektiborako eskubidea. Bada, erabili ahal izango badute, beharrezkoa da aurrez jakin dezaten zein diren ebaluazio-irizpideak, gutxieneko zer helburu lortu behar dituzten eta gutxieneko zer eduki menderatu behar dituzten ziklo eta maila bakoitzeko irakasgai bakoitzean ebaluazio positiboa izateko:

- a) Ikastetxeko curriculum-proiektuak eta sail didaktikoen dokumentazioak, batez ere, programazio didaktikoek aipatutako puntuak bildu beharko dituzte.
- b) Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiak bermatu behar du ikasleek eta haien legeko ordezkariak aipatutako dokumentuak eskuratu ahal izatea.

Ikastetxeek irakasgai bakoitza ebaluatzeko irizpideak jakinarazi behar dituzte ikasturte hasieran.



Ikasleek eta, hala badagokio, guraso edo legezko tutoreek aukera izan behar dute errendimenduaren ebaluazioan eragina duten lan, proba eta ariketa guztiak zuzenduta eskuratzeko, baita alegazioak aurkezteko eta lan, proba eta ariketen zuzenketa berrikusteko eskatzeko ere. Alde horretatik, zuzentzea ezin da izan kalifikazio kuantitatibo edo kualitatibo jartzea bakarrik; aitzitik, ikasleak egindako huts edo okerrak adierazi ere egin behar dira, edo kalifikazioa arrazoitu.

Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiak ezarri behar du erreklamazioak aurkezteko prozedura, eta adierazi behar du zer epe eta baldintzetan egingo den berrikusketa, kontuan izanik ikastetxearen curriculum-proiektuak, programazioek eta jakinarazitako kalifikazio-irizpideek ere lotzen dituztela irakasleak curriculum ofizialaz gain.

Irakasleek ikastetxean eduki behar dituzte DBH, Batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasleen proba, lan eta ariketak, haiek ikasturte osoan izateko bereak eskuratzeko aukera.

DBHko, Batxilergoko eta heziketa-zikloetako ikasleek aukera izan behar dute ohiko eta ohiz kanpoko deialdien amaierako probak ikusteko, eta ondoren dagokion sailean gorde behar dira, urtebetez.

Kalifikazioen kontrako erreklamazioak aurkezteko eta ebazteko, agindu hauek xedatzen dituzten prozedurak aplikatu behar dira:

- **DBHko ikasleen kalifikazioen aurkako erreklamazioak aurkezteko eta ebazteko**, 2010eko uztailaren 26ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarenak, Batxilergoaren antolamendua eta ebaluazio-prozesua arautzen dituenak finkatzen duena [EHAA, 2010eko irailaren 09koa].
- **Batxilergoko ikasleen kalifikazioen aurkako erreklamazioak aurkezteko eta ebazteko**, 2010eko uztailaren 26ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarenak, Batxilergoaren antolamendua eta ebaluazio-prozesua arautzen dituenak finkatzen duena [EHAA, 2010eko irailaren 09koa].
- **Batxilergoko ikasleen kalifikazioen aurkako erreklamazioak aurkezteko eta ebazteko**, Batxilergoko ikasleentzako prozedura bera.

### **1.5.3. BERARIAZKO HEZKUNTZA-LAGUNTZA BEHAR DUTEN IKASLEAK EBALUATZEKO NEURRIAK**

Errazagoa izateko berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleak ebaluatzea (azterketak egitea, kontrolak egitea, etab.), ikastetxeek neurriak hartu behar dituzte: denbora gehiago ematea azterketak eta kontrolak egiteko; testuaren formatua ikasleek erabiltzeko modukoa izatea, haien beharren arabera; baliabide teknikoak erabiltzea beharrezkoa bada; hasieran edo/eta bukaeran testua irakurtzea; ikasleei laguntza eman ohi dieten langileak azterketan egotea; aukera-berdintasuna bermatzeko neurriak hartzea, ikasleek horretarako eskubidea baitute; etab.

### **1.5.4. SALBUESPENAK ETA BALIOZKOTZEAK**

**I. Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaiaren salbuespena** bideratu behar da martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duenak, artikulua bakarreko hogeita bigarren atalean xedatzen duenari jarraituz [EHAA, 2010eko apirilaren 20koa], 175/2007 Dekretuko bigarren azken xedapena aldatzen baitu. Hezkuntzako lurralde-arduradunari eskatu behar zaio salbuespena, ikasturte hasieran edo ikaslea matrikulatzean, eta ikastetxeko zuzendariak bideratu behar du eskaera, beharrezko dokumentuak aurkeztuta.



**II. Aldi berean DBHko edo Batxilergoko ikasketak eta Musika edo Dantzako ikasketa profesionalak ematen dituzten ikasleen baliozkotzeak eta curriculum-egokitzapenak** bideratu behar dira uztailaren 13ko 194/2010 Dekretuak xedatzen duenarekin bat –haren bidez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasgai jakin batzuen eta Musika eta Dantza Ikasketa Profesionaletako zenbait ikasgaien arteko baliozkotzeak ezartzen dira, baita zein eragin izan behar duen goi-mailako edo errendimendu handiko kirolari izateak Gorputz Hezkuntza irakasgaien eta Dantza Ikasketa Profesionaletako ikasleentzat–.

Ikasleok baliozkotzeak eta curriculum-egokitzapenak eskatzeko epea urriaren 15ean amaituko da, eta ikastetxeko zuzendariak azaroaren 1a baino lehen ebatzi behar du eskaera. Azaroaren 15a baino lehen, berriz, ebazpenen kopia bat bidali behar du Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako Ikasketa Antolamenduko Zerbitzura.

**III. Salbuespenak Batxilergoan** Indarrean dagoen araudiarekin bat bideratu behar da:

- 1998ko uztailaren 24ko Aginduko 17. artikuluekin bat [EHAA, 1998ko abuztuaren 31koa].

- 1998ko uztailaren 26ko Aginduko 11. artikuluekin bat [EHAA, 2010eko irailaren 9koa].

Teknikari-titulua edo goi-mailako teknikari-titulua lortzeko, beharrezkoa da ikasleek heziketa-zikloko modulu guztiak gainditzea; batxiler-titulua lortzeko, berriz, Batxilergoko irakasgai guztiak gainditzea.

#### **Salbuespenak bideratzeko epeak**

- Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak proposamena bidali behar du Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzara urriaren 16a baino lehen. Proposamenak behar bezala (aipatutako artikuluek xedatzen dutenarekin bat) dokumentatuta egon behar du.
- Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzak txostenak eskatu behar dizkie Zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzari eta berritzeguneari urriaren 31 baino lehen. Zonaldeko Hezkuntzako Ikuskaritzak eta berritzeguneari bi astean egin behar dituzte gehienez txostenak.
- Pedagogi Berrikuntzarako Lurralde Burutzek espediente osatuak bidali behar dituzte Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara azaroaren 5a baino lehen.
- Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak ebazpenak bidali behar ditu ikastetxeetara azaroaren 20a baino lehen, eta ikastetxeek jakinarazi behar dizkiete ikasleei azaroaren 29a baino lehen.

**IV. Heziketa-zikloetako ikasleen baliozkotzeak eta egokitasunak** bideratu behar dira xedapen hauek diotenarekin bat:

#### **HEZKUNTZA-SISTEMARI BURUZKO LEGE ORGANIKO OROKORRAK SORTUTAKO ZIKLOAK**

- 2001eko abenduaren 20ko Agindua [EAO, 2002ko urtarrilaren 9koa] eta uztailaren 9ko 1842/2002 Agindua, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarenak, 2001eko abenduaren 20ko Agindua aldatzen duena [EAO, 2002ko uztailaren 19koa].

- Lanbide Heziketako Zuzendaritzaren jarraibideak, 1998ko azaroaren 9koak, heziketa-zikloetako baliozkotze- eta egokitasun-sistemari buruzkoak.



## HEZKUNTZARI BURUZKO LEGE ORGANIKOAK SORTUTAKO ZIKLOAK

- Otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua, Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena [EHAA, 2008ko martxoaren 05ekoa].
- 2010eko otsailaren 19ko Agindua, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena, Lanbide Heziketako heziketa-zikloen ezarpena eta ebaluazioa arautzen duena [EHAA, 2010eko martxoaren 24koa].
- Heziketa-zikloetako curriculumak ezartzeko dekretuek.

### V. Beste ikaskuntza-arlo batzuk

Gainerako ikaskuntza-alorrei dagokienez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak ez du aurreikusi beste salbuespenik. Nolanahi ere, ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duenak, xedatzen duenari jarraituz, hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle bakoitzak izan behar du bere bilakaeraren une bakoitzean behar duen hezkuntza, hobeto gizarteratzeko.

Nork bere gaitasunen neurrian, ikasle guztiek dute aukera ikaskuntza-arlo guztietako edukiak lantzeko, maila bakoitzeko irakasgai bakoitzeko curriculumaren egokitzapenak egin baitaitezke beharrezkoa bada.

Bestalde, ikasleek aldi baterako elbarritasun fisikoak badituzte lesio edo gaixotasunen bat dela-eta, medikuen ziurtagiriaren arabera desegokiak diren ariketa fisikoak egokitzea aztertu behar da.

### 1.5.5. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA ETA BESTE EBALUAZIO BATZUK

Ebaluazio honek ez du ondorio akademikorik izango ikasleentzat; helburua baita ikasleek konpetentzietan duten maila egiaztatzea eta maila hori hobetzeko neurri egokiak ezartzea.

**2015-2016 ikasturteko lehen hilabeteetan, Hezkuntza sailburuordearen ebazpen bidez jakinaraziko da Bigarren Hezkuntzako ikasleen errendimendua neurtzeko jarraituko den prozedura.**

Horrenbestez, hezkuntza-komunitateak berak eta beste hezkuntza-erakunde batzuek 2013-2014an taxututako eta adostutako hobekuntza-planean ezarritako iradokizun eta proposamen guztien garapen-jarraipen sistematikoan arituko dira 2015-2016 ikasturtean Hezkuntza Ikuskaritzaren eta Berritzeguneen zonaldeko laguntza-zerbitzuen babesa eta laguntzarekin.

### 1.5.6. UNIBERTSITATERAKO SARRERA AZTERKETAK

Behar berezietako hezkuntza-laguntza behar duten ikasleek unibertsitatean sartzeko azterketak egiteko egokitzapena eska lezakete. Nolako egokitzapenak eska daitezkeen ikusi ahal izateko, honako helbide honetan sar daiteke:

<http://www.ehu.es/es/web/discapacidad/sarbide-probetarako-egoitzapenak>

[Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek egokitzapenen ezarpena eskatzeko informeen txantiloak](#)





## 2. IRAKASLEAK: HEZKUNTZA-KOMUNITATEAREN MOTORRA

### 2.1.- SARRERA

Eskola ingurune jakin batean kokatutako erakunde bat da, hainbat jarduera-esparrutan –osasun-arlokoa, judiziala, administratiboa, kulturala eta abar– diharduten beste erakunde eta organismoekin osatzen duen ingurune batekoa.

Ikaskuntza-prozesuak askotariko egoeratan garatzen dira; ebazpen honen jomuga den hezkuntza-esparru formalaz gain, inguruneak ere hezkuntza formala eta informala garatzeko hainbat aukera ematen ditu. Horregatik, komenigarria da hezkuntza-komunitate osoko erakunde, eragile eta profesionalen arteko koordinazio-bideak eta lankidetzak sustatzea.

Gakoa da ikasteko askotariko aukera hauek aprobetxatzea, eta behar bezala kudeatzea, halaber, hezkuntza-komunitatean parte hartzen duten profesionalak engaiatzen direnean eta ikasle guzti-guztien ikasteko aukerei ahalik eta etekin handiena aterako dien eskola inklusibo bat lortzeko helburu komuna partekatzen dutenean sortzen diren harremanak.

### 2.2.- OINARRI TEORIKOAK

Gizarte-aldaketek hezkuntza-sistemaren erronkak eta helburuak baldintzatzen dituzte. Bikaintasuna erdietsi nahi duen hezkuntza-sistema batek jomugan izan behar du, gainera, aldaketa sozial, etiko eta ekonomiko sakon eta iraunkorrek bultzatzea.

Antolamendu ekonomiko, zientifiko-teknologiko, kultural, demografiko, filosofiko eta etikoan izan diren berrikuntzek eta aldaketek esperimentaziorako eta ikerketarako corpus aberatsa eratu dute, eta horrek, era berean, hezkuntza-komunitate inklusiboa bikaintasunaren bidean jarriko duten profesionalen eginkizunei buruzko paradigma aldarazi du.

Azaldu dugun agertoki horretan irakaslea egoki molda dadin eta behar bezala erantzun dezan, beharrezkoa da irakasle gisa autoritatea emateaz gain bere lanari prestigioa emango dioten prozesuak taxutzea, arreta pertsonarengan jarriz. Xede horri begira egin dira hezkuntza-administrazioak urtero eskaintzen dituen prestakuntzako eta berrikuntzako proposamen guztiak.

Alabaina, jada adierazi denez, gaur inoiz baino gehiago, ikaskuntza eta gaitasun profesionalen garapena komunitatearen barruan mamitzen dira. Horregatik, berariazko ikaskuntza epistemologiko edo metodologikoez harago, irakaslea lankideekin egindako mintegietan trebatzen da nagusiki, irakasle-sareak osatzen, ikaskuntzak ahalbidetzen eta besteak beste unibertsitateekin ikerketa-proiektuak partekatzen dituzten mintegietan. Komunitate mailako garapenaren bidean, eskola-inguruneko gainerako kolektibo eta erakundeekin ikasten eta garatzen ditu irakasleak bere gaitasun profesional eta pertsonalak, eta, nola ez, eskola bera da hezkuntzaren profesionalari taldean ikasteko, ezagutza sortzeko eta hura partekatzeko aukera gehien eskaintzen dion ingurune naturala.

Hala, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, hasi-hasieratik, hezkuntzako profesionalen etengabeko prestakuntza eta berrikuntza sustatu du, eskubide hori bermatzeko arau-esparrua zehaztu du<sup>24</sup>, berori ezartzeko zerbitzuak eta deialdiak antolatu ditu eta dena

<sup>24</sup> 185/2010 Dekretuak, uztailaren 6 koak, irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen du. Akordio horren 76.-77. artikulua irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzkoak dira. Bertan adierazten da “irakasle guztien eskubidea eta betebeharra da, batetik, eta Hezkuntza Administrazioen



bideratzeko prozedurak eta tresnak diseinatu ditu, EAEko ikasleei eskaintzen diegun hezkuntza etengabe hobetzeko grinarekin.

Hori dela-eta, hogeita hamar urte baino gehiagoko ibilbidea egin, pilatu ditugun esperientziak aztertu, baloratu eta horiei buruzko hausnarketa egin, beste hezkuntza-sistema batzuek egindako esperientziak, adituen ekarpen teorikoak eta Europako Batzordeak<sup>25,26,27</sup> argitaratu berri dituen dokumentuak landu ondoren, Heziberri 2020 planak euskal hezkuntza-eredu pedagogikoa ezartzeko eta hobetzeko proposatu duen ildo estrategikoetarikoa da Prest\_Gara planeko irakasleriaren hasierako eta etengabeko hobekuntza.

Ildo berean, gure erkidegoan balio erantsia duten ikastetxeen ezaugarriak eta irakasleen jardunbide egokiei buruzko txosten exekutiboan<sup>28</sup> ateratako ondorioak bat datoz Estatuko eta nazioarteko adituek irakasleen gaitasun profesionalak buruz egindako txosten, deskribapen eta proposamenetan agertzen direnekin. Gaitasun horiek, jardunbide egoki gisa bilduak, honakoak dira:

- Irakasleen dedikazio handia, ikastetxearekin eta haren heziketa-lanarekin (ez soilik irakastearekin) duten inplikazio sakonetik sortzen dena.
- Konpromiso eta parte-hartze handia prestakuntzako eta etengabeko hobekuntzako jardueretan, ikastetxeetako zuzendaritzek antolatutako (ikasten duten eskolak).
- Kasu batzuetan, inplikazio handi hori kalitatezko programa eta proiektuetan parte hartuz sakontzen da.
- Tratu eta babes egokia ikastetxeko irakasleei, bai harreran bai eguneroko lanetan.
- Aholkulari eta orientatzaileen inplikazio handia, zenbaitetan lidergoa ere badena, bai irakasleen jarraipenean bai tutoretza-planean.

Horrenbestez, komenigarria litzateke arretagune nagusia irakaslea bera duten eta irakaslea bere gaitasun profesionalak eskura dezan ahaldunduko duten prozesuak bultzatzea. Gaitasun horiei esker, gainera, hezkuntzan bikaintasuna lortzeko jardunbide egokiak hedatuko ditu eta aldaketa sozial, ekonomiko eta etikoa bideratzeko indarra sortuko du.

Beraz, irakasleak gaitasun profesional horiek garatuko dituela bermatzeko, egokitzapenak egin beharko dira hala irakasleen hautaketa-prozesuetan nola prestakuntza eta antolaketakoetan.

## 2.3.- IRAKASLEEN ANTOLAKETA

### 2.3.1. IRAKASLANAREN ANTOLAMENDUA

1/1993 Legeak, Euskal Eskola Publikoari buruzkoak, 36.f) artikuluan xedatzen duenez, “zuzendaritza-taldearen egitekoa da irakasle taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara atxikitzeko irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran”. Horretarako, irakasgaiari buruzko arauak hartu behar ditu kontuan.

---

eta Ikastetxeen ardura, bestetik” irakasleen etengabeko trebakuntza, LOEren (Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko, 2/2006 Lege Organikoaren) 102. artikuluan jasota dagoen bezala.

<sup>25</sup> Europako Komisioa. [2020 ESTRATEGIA](#).

<sup>26</sup> Europako Komisioa, [IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA](#).

<sup>27</sup> European Comisión (2012). **Supporting the Teaching Professions for Better Learning Outcomes.**

<sup>28</sup> Eusko Jaurlaritza -ISEI/IVEI & UPV (2013). [Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak](#).



Era berean, zuzendaritza-taldeari dagokio hezkuntza kudeatzeko lanak eta ordu-kreditua banatzea ikastetxearen urteko planeko proiektuen arduradunen artean.

### 2.3.1.1. Irakasgai eta taldeen banaketa

Irakasgai eta taldeen banaketa egingo da irakas-funtzioa eta atribuzioa xedatzen duten arauen arabera, esleitutako lanpostuaren arabera, ekitatea eta irakaskuntzaren kalitatea lortzeko irizpideen arabera, eta baita ere honako irizpide eta betebeharrak aintzat hartuz:

Irizpideak:

- Ahal dela, zailtasunik handieneko taldeak eta arreta berezia behar dutenak esleitu behar zaizkie ikastetxean egonkor dauden irakasleei.
- Taldeak esleitzeko DBHko irakasleei, ikastetxeek ahalegindu behar dute, antolamenduaren bidez, talde bakoitzean parte hartzen duten irakasleen kopurua ahal bezain txikiena izan dadin, DBHko 1. eta 2 mailan batez ere.
- Eskolak egunez eta gauzez ematen dituzten ikastetxeetan saiatu behar da behar baino irakasle gehiagok txanda ezberdinetan aritu behar izan ez dezaten. Bestalde, ikasketaburuak eskolak eman behar dituzte nahitaez beren funtzioak betetzeko txandetan.

Betebeharreko arauak:

- B edota D lerroak dituzten ikastetxeetan, 2. hizkuntza-eskakizuna behar duten lanpostuetako irakasleek ezin dute eman gaztelaniazko eskolarik A eremuan, ezta B eremuan gaztelaniaren bidez irakasten diren arloetan, baldin eta beren espezialitatek D eta B ereduak euskarazko ordu guztiak beteta ez badaude.
- Hala ere, ikastetxeak beharrik badu, IRALE programaren bidez edo Hezkuntza administrazioak diruz lagundutako beste ikastaroren baten bidez 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu duten irakasleek euskarazko eskolak eman ditzakete, haien lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna 1.a izanda ere.
- Maisu-maistra guztiek DBHko 1. eta 2. mailako taldeak bakarrik aukeratu ditzakete, eta lehentasuna dute horietan.
- Espezialitate bakoitzeko irakasgai guztien orduak zenbatu behar dira, eta espezialitate horretako irakasleei esleituko zaizkie. Hizkuntza Errefortzua, Curriculum Anitzeko Programa eta Zereginen Ikaskuntzarako Gelarako orduak, lanpostu horietan diharduten irakasleei esleituko zaizkie.
- Espezialitate bateko irakasle guztiek beren espezialitateko irakasgaiekin osa baditzakete beren ordutegiak, osatu egin behar dituzte, eta ez zaie esleitu behar beste espezialitateetako irakasgairik. Era berean, Hizkuntza Errefortzua, Curriculum Anitzeko Programa eta Zereginen Ikaskuntzarako Gelarako irakasleek beren lanpostuari dagozkion zereginekin osa baditzakete beren ordutegiak, osatu egin behar dituzte, eta ez zaie esleitu behar beste espezialitateetako irakasgairik.
- Alderantziz, espezialitate edo lanpostuaren bateko irakasle guztiek beren ordutegiak beren espezialitateko irakasgaiekin osatu ezin badituzte, ikastetxeko ikasketa-buruak, beste espezialitate edo lanpostu batzuetako soberako orduak erabiliz, osatugabeko



ordutegia duten irakasleei ordutegia betetzeko beharrezko irakasgai eta taldeak esleitu behar dizkie, betiere irakasgai horiek emateko baldintzak betetzen badira eta ahal dela beren espezialitateko curriculumetik hurbilen dauden irakasgaiak esleitzuz, eta, ahal den neurrian, espezialitate-mailarik txikiena behar duten arloetan.

Aurreko irizpideak errespetatuz eta ikastetxeko zuzendaritza-taldeak ezartzen dituen irizpideak kontuan harturik, ikasketa-buruak zehaztu behar du zer maila eta taldetan eman behar dituen irakasle bakoitzak eskolak, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeko 36.2.f) eta 41.c) artikuluek xedatzen dutenaren arabera. Betiere irakasleei irakasgaiak esleitzeari buruz indarrean dagoen araudia bete behar du ikasketa-buruak.

Ikastetxeko zuzendaritza-taldeak irizpiderik finkatzen ez badu, berriz, ikasketa-buruak sistema hau erabili behar du taldeak esleitzeko: bata bestearen atzetik, txandaka, irakasleek talde bana aukeratzea. Hona horretarako hurrenkera:

#### **A) Maisu-maistrak**

1. Ikastetxean behin betiko lanpostua duten maisu-maistrak.
2. Ikastetxean behin betiko lanpostua ez duten karrerako maisu-maistra funtzionarioak, zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko lanpostu batean daudenak.

Maila bakoitzeko kideak ordenatzeko, apirilaren 16ko 81/1996 Dekretuaren VI. tituluko antolamendu-irizpideak erabili behar dira [EHAA, 1996ko maiatzaren 3koa].

Multzo honetako irakasleek, jarraikako txandatan, DBHko 1. eta 2. mailako talde eta irakasgaiak bakarrik aukeratu ditzakete, eta gainontzeko gorputzetako irakasleriaren aurretik joango dira.

#### **B) Bigarren Hezkuntzako irakasleak eta Lanbide Heziketako teknikariak**

1. Ikastetxean behin betiko lanpostua duten irakasleak, direla karrerako funtzionarioak, direla lan-kontratu mugagabeko irakasleak. Maila horretako kideak ordenatzeko, apirilaren 16ko 82/2002 Dekretuko 16. artikuluko baremoa aplikatu behar da [EHAA, 2002ko apirilaren 19koa] –urriaren 10eko 198/2006 Dekretuko 3. artikuluko 198/2006 Dekretua aldatu zuen [EHAA, 2006ko urriaren 25koa]–. Alde horretatik, baremoa lan-kontratuko langileei aplikatzearen aldetik, lan-kontratu mugagabea izatea eta karrerako funtzionario izatea baliokideak dira.
2. Ikastetxean behin betiko lanpostua ez duten karrerako irakasle funtzionarioak eta lan-kontratu mugagabedunak, zerbitzu-eginkizunetan edo behin-behineko lanpostu batean daudenak. Aurreko multzoko kideak bezala ordenatu behar dira.
3. Bitarteko irakasleak eta lan-kontratu mugagabea ez dutenak. Ikastetxean zerbitzu egindako denboraren arabera ordenatu behar dira.

Irakasleak sailkapen horren arabera ordenatuta, irakasle bakoitzak talde bat aukeratu behar du txanda bakoitzean, kontuan izanik hari eskolak emateko gaitasunik duen bere espezialitate eta tituluaren eta egiaztatutako hizkuntza-eskakizunaren arabera, muga hauen barruan:

- a) Irakasleek DBHko 1. eta 2. mailako taldeak bakarrik aukeratu ditzakete, maisu-maistra guztiek beren taldeak aukeratutakoan.

b) Eskolak beren lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari dagokionaz beste hizkuntza batean ematen dituen talde bat aukeratzeko, ezinbestekoa da beren espezialitate eta hizkuntza-eskakizuneko talderik ez geratzea.

Aukera egitean sailen bateko irakasleren bat falta bada, ikasketa-buruak aukeratu behar du haren izenean.

Eskolak egunez eta gauzez ematen dituzten ikastetxeetan irakasleek txandaka aukeratu behar badituzte mailak eta eskola-orduak, saiatu behar da behar baino irakasle gehiagok txanda ezberdinetan aritu behar izan ez dezaten. Horretarako, maila aukeratu aurretik, irakasleek aukeratu dezakete eskolak egunez edo gauzez ematea nahiago duten, arestian finkatutako sailkapenari jarraituz.

### **2.3.1.2. Irakasleen ordutegia osatzeko modua**

Irakasle bakoitzari bere taldeak esleitutakoan, ikasketa-buruak ordutegiak prestatu behar ditu, klaustroaren irizpide pedagogikoen arabera –irizpide pedagogikoen Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudian azaldu behar dute–.

Ordutegiak finkatzeko, ahal duen neurrian, aipatutako irizpideen kontra egin gabe betiere, ikasketa-buruak bereziki kontuan hartu behar du ea irakasleek txanda ezberdinetan (goizez, arratsaldean edo gauzez) edo ikastetxe edo/eta eraikin ezberdinetan eman behar dituzten eskolak, ea gaixotasun kronikoa edo mugikortasun arazorik duen familiarrak laguntzeko baimena duen irakasleria, etab. ea tokiko batzordeetan edo zonako prestakuntza-mintegietan parte hartu behar duten, eta abar, ahalik eta eragozpen gutxien sorrarazteko.

Ordutegia ezin da aldatu irakasleen lehentasunen arabera.

### **2.3.1.3. Ikastetxeko ikasgaiak eta taldeen banaketa eta ordutegiaren onarpena eta argitalpena**

Ikasketa-buruak prestatu eta zuzendariek onartutako ikasgai eta taldeen banaketa eta ordutegia bete behar dute irakasleek.

Ikastetxearen unean uneko egoera azaltzeko informazioak agerian egon behar du beti, irakasle-gelako eta ikasketa-buruaren bulegoko iragarki-tauletan eta ikastetxeko estamentu guztientzat ikusgai dagoen beste leku batean. Bestek beste, adierazi behar du zer ordutan dagoen ikastetxean zuzendaritza-taldeko partaide bakoitza.

Informazio horrek guztiak ikastetxeko ordezkari-organoren kide guztien eskura egon behar du, eta datu pertsonalak babesteko araudiarekin bat etorri.

### **2.3.1.4. Zuzendaritza taldearen erabakien kontrako gora jotzeko errekurtsioa**

Hala nahi duten irakasleek, zuzendaritza taldearen erabakien kontra gora jotzeko errekurtsioa jar dezakete, Hezkuntzako Ikuskaritzak txostena eman behar du lehenik, eta Hezkuntzako lurralde-ordezkariek ebazpena ondoren.

## **2.3.2. URTEKO LANALDIA**

Lanaldi-motak eta egutegia gorabehera, irakaskuntzako arduraldia 1.462 ordukoa izango da. Ebazpen honetan arautzen dira, halaber, asteko lanaldia eta haren banaketa irakastorduetan, eta baita ordutegi osagarria eta ikastetxean egon beharrekoa ere.



Apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutuarenak, 50. artikuluan ezarritakoaren arabera, irakasle funtzionarioek eskubidea izango dute urte natural bakoitzean ordaindutako hogeita bi egun baliouduneko oporrak izateko, edo, zerbitzuan emandako denbora urtebetera iristen ez bada, proportzioan dagozkien egunetako oporrak izateko. Artikulu horretan xedatutakoaren ondorioetarako, larunbatak ez dira egun balioudun gisa hartuko.

Oporraldi hori abuztuan izango da urtero, eta inoiz ez da iraileko egunik hartuko.

Oporraldia eten egin ahal izango da tarte horretan gaixoaldi edo istripuren bat gertatuz gero, eta irakasleak oporraldiarekin jarraitzeko aukera izango du, gorabehera gainditu eta medikuaren senda-agiria jaso ostean. Aldi bakar batean hartuko da hartu gabeko opor-tartea, aukeran eskolarik ez dagoenean.

### 2.3.3. ASTEKO LANALDIA

Gizakia aintzat hartzen duen eta profesional bakoitzaren baitan dagoen pertsonarengan konfiantza duen hezkuntza-erakunde eta -komunitate batek, erronka etiko, sozial, kultural eta ekonomikoetara egokitu nahi badu, beharko luke:

- Pertsonen ikasteko eta hazteko aukerak eman.
- Jabetu pertsonen entzunak izatea eta beren ezaugarri eta premiak onartuak izatea behar dutela.
- Zerbitzatzen dituen pertsonengandik ikasteko interesa agertu.
- Etorkizunera begirako ikuspegi bat transmititu, jarduteko eta helburuak argitzen laguntzeko ekimena hartu.
- Lidergo partekatu eta pertsonen autonomia elikatu.
- Aldaketa sustatuko duen komunitate bat eraikitzen lagundu.
- Irekia eta gardena izan.

Irekia eta gardena izateko gomendio hori abiapuntu hartuta, irakasleen eginkizunak, modalitateak eta arduraldiak zehaztuko dira jarraian, klaustroa osatzen duten pertsonen aniztasuna eta berariazko premiak jasoz.

#### 2.3.3.a) Arduraldi arrunta duten irakasleak

- Irakasleek astean 30 ordu eman behar dizkiote zuzenean ikastetxeari, eta horietako **23 han egon behar dute**. Irakasleen eskola-orduen kopurua txikiagoa bada oro har xedatutako baino dena delakoagatik, zuzendariak guardia-orduen kopurua handitu behar die, edo beste jarduera batzuk esleitu, ikastetxean eman beharreko 23 orduak osatu arte.
- Irakasleen koordinazio, elkarlan eta prestakuntza hobetzeko, komeni da irakasle guztiek arduraldi bera eta ikastetxean eman beharreko ordu kopuru bera izatea astean, salbu eta salbuespenen bat egin behar denean hezkuntza-komunitateak berak onartutako proiektu edo zerbitzuren bat dela eta.



- DBHko eta Batxilergoko ikasleen eskola-ordutegiak finkatzen dituen tutoretza-orduak hartu behar dira irakasleen eskola-ordutzat, betiere ebazpen honetako 2.9.5. atalak ezartzen dituen baldintzak betetzen badira.
- Irakasleek ohiko jardunean egiten ez dituzten eskola-orduak hezkuntza indartzeko erabili behar dira, hau da, irakasleek berek hezkuntza-arloko banakako zein taldekako neurriak diseinatzeko eta hartzeko eta, haien bidez, ikasleei eskolan izan ohi dituzten zailtasunekin laguntzeko. Alde horretatik, arreta berezia jarri behar da DBHra aurreko etapako gaitasunak gainditu gabe igarotzen direnengan, baita hurrengo mailara gainditu gabeko ikasgaiak dituztela pasatzen direnengan ere.

Ikastetxe bakoitzak bere Hezkuntza-indartzeko Plana egingo du Dibertstatearen harretarako Planaren barne. Plan horretan honakoak garatuko dira: ikasleen banakako edo taldeka ikasteko zailtasun arrunten aurrean irakasleek diseinatutako hezkuntza-errefortzu neurriak bilduko diren. Laguntza modura erabil daiteke Sailak argitaratu duen dokumentua: *Hezkuntza-indartzeko banakako plana (HIBP) egiteko orientabideak oinarritzko hezkuntzan*<sup>29</sup> deritzona.

Hezkuntza-indartzeko Planak, OOGaren onspena jaso ondoren, islatuko ditu hezkuntza-komunitate osoaren atxikimendua, zeintzuk diren bertan parte hartzen duten irakasleak, eginkizun horiek bideratzeko esleitzen den ordu-kreditua eta zeintzuk diren ekintza eta estrategia egokienak aniztasunari ikuspegi etiko eta inklusibotik erantzun egokiena emateko, hala nola:

- Hainbat ekintzatan, irakasle bat baino gehiago ikasle taldearekin egotea ikasketan zailtasunak izan ez daitezen edota metodologia inklusiboak garatzeko.
- Zikloa igaro arren, aurreko zikloko gaitasunen bat eskuratu gabe duten ikasleei emango zaien erantzuna.
- Ikasteko zailtasunak dituzten ikasleekin bideratuko diren gelaz kanpoko eta ohiko eskola-ordutegiz kanpoko indartze neurriak.
- Etxean irakaskuntza jasotzen duten ikasleen arreta pedagogikoa.
- Ikasturtean zehar etorritako ikasle berrien premiak edo epe arruntetik kanpo matrikulatutako ikasleen arreta indartzeko, ordu-kredituan egin beharreko aldaketak ere aurreikus ditzake planak. Edonola ere, ikasle etorkin kopuru handiak dituzten ikastetxeek ebazpen honetako 2.3.3.j (Kulturarteko planaren dinamizatzailea) eta 2.3.3.k.(HIPI) ataletan zehazten diren laguntza bereziak izango dituzte.
- Heziketa-zikloen segida modular egoki eta koherentea ezartzearen, ikasturteko aldi jakin batzuetan asteko 25 eskola-ordu ere izan ditzakete eskolak maila horretan ematen dituzten irakasleek, betiere aurreko paragrafoek xedatzen dutenetik ondorioztatzen den urteko eskola-orduen guztizko kopurua hartuta erreferentziatuz. Hala ere, irakasleek ezin dituzte eman asteko 25 eskola-ordu baino gehiago.

<sup>29</sup> Eusko Jaurlaritza (2012). [Hezkuntza-indartzeko banakako plana \(HIBP\) egiteko orientabideak oinarritzko hezkuntzan.](#)



- **Irakasleak ikastetxean bertan egoteko gainerako orduak honela banatu behar dira:**

**a) Irakasle tutoreak**

- **Astean ordubete erabili behar dute ikasleen gurasoekin egoteko** eta taldeko ikasleekiko zuzeneko tutoretzaz beste tutoretza-lanak egiteko, hala nola tutoretzarekin zerikusia duten administrazio-lanak, tutoreak koordinatzeko bilerak, orientazio-jarduera bereziak...

- **Astean hiru ordu erabili behar dituzte guardiak egiteko.** Ordu kopurua handitu edo txikitu behar da irakasle guztiek ikastetxean egoteko 23 ordu izateko behar adina, atal honetako lehenengo paragrafoak xedatzen duenarekin bat. Zuzendaritza taldeak, ikastetxeak duen orduetatik 3 ordu emango dizkio hezkidetzeta eta genero biolentziaren prebentzio arduradunari. Pertsona horrek kreditu hori erabiliko du ikastetxeko hezkidetzeta plana dinamizatzeko eta koordinatzekoa. Arlo honetako deialdiaren ebazpenean aukeratuak izan diren ikastetxeek, xede honekin, kreditu orduak jasoko dituzte.

Bestalde, DBHko ikasleen jolasaldiko guardia-aldia guardia-ordu arruntzat hartu behar da baldin eta 30 minutu edo gehiago irauten badu guztira.

- **Astean ordubete erabili behar dute Didaktika Sailaren bileretan** eta koordinazio pedagogikorako beste bilera batzuetan parte hartzeko.

- **Astean ordubete erabili behar dute prestakuntza-jardueretan parte hartzeko,** ebazpen honetako 2.4. atalak irakasleen prestakuntzari buruz finkatzen dituen irizpideekin bat.

**b) Beste kargu batzuk dituzten irakasleak**

- **Astean ordubete erabili behar dute ikasleen gurasoekin egoteko** eta karguan aritzeko.

- **Astean hiru ordu erabili behar dituzte guardiak egiteko.** Ordu kopurua handitu edo txikitu behar da irakasle guztiek ikastetxean egoteko 23 ordu izateko behar adina, 2.3.3.a atal honetako lehenengo paragrafoak xedatzen duenarekin bat.

Bestalde, DBHko ikasleen jolasaldiko guardia-aldia guardia-ordu arruntzat hartu behar da baldin eta 30 minutu edo gehiago irauten badu guztira.

- **Astean ordubete erabili behar dute Didaktika Sailaren bileretan** eta koordinazio pedagogikorako beste bilera batzuetan parte hartzeko.

- **Astean ordubete erabili behar dute prestakuntza-jardueretan parte hartzeko,** ebazpen honetako 2.4. atalak irakasleen prestakuntzari buruz finkatzen dituen irizpideekin bat.





- Zuzenean ikastetxeari eman behar dizkioten **asteko gainerako 7 orduak** hilabeteka zenbatu behar dira, eta erabili behar dira tutoretza-plana garatzeko, sailaren jarduera areagotzeko, kide anitzeko organoen bilerak egiteko, ebaluazio-batzordeen bilerak egiteko, ikastetxea planifikatzeko eta antolatzeko tresnak prestatzeko, taldeko eta mailako irakasleak koordinatzeko bilerak egiteko, Hizkuntza Normalkuntzarako Batzordearen lanak egiteko eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak egiteko. Zuzendaritza-taldeak erabaki dezake ordu horietako batzuetan irakasle guztiak aldi berean egon behar izatea ikastetxean, denen artean egin beharreko koordinazio-lanak egiteko –ikasturte hasieran erabaki behar du, eta denbora hilabeteka edo asteka banatu–.

- **Gainerako orduak**, irakasleek zuzenean ikastetxeari eman behar ez dizkiotenak, berriz, honakoa egiteko erabili behar dituzte: irakaslan prestatzeko, azterketak zuzentzeko, hobekuntza profesionala lantzeko eta, oro har, irakaskuntzarekin lotutako beste gai batzuk jorratzeko.

### 2.3.3.b) Lanaldi murriztua duten irakasleak

Irakasleek familia eta lana uztartzeko eskatzen badute lanaldi-murrizketa, ikastetxeetako zuzendariak ahal duten guztia egin behar dute interesdunen ordutegia familia eta lana uztartzeko modukoa izateko.

#### Lanaldi erdia duten irakasleak

- Lanaldi erdia duten Bigarren Hezkuntzako irakasleek **astean 15 ordu eman behar dizkiote zuzenean ikastetxeari**, eta horietako **11 han egon behar dute**:

- **Astean 8 ordu gutxienez erabili behar dituzte eskolak emateko**. Beharrezkoa bada, 9 ordu ere erabil ditzakete eskolak emateko, baina, eskola-ordu bat gehiago badute, guardia-ordua kendu behar zaie, gehikuntza orekatzeko.

- **Astean ordubete erabili behar dute ikasleen gurasoekin egoteko** eta karguan aritzeko.

- **Astean ordubete erabili behar dute guardiak egiteko**.

- **Astean ordubete erabili behar dute Didaktika Sailaren bileretan parte hartzeko**.

Zuzenean ikastetxeari eman behar dizkioten asteko gainerako 4 orduak hilabeteka zenbatu behar dira, ebazpen honetako 2.3.3.a atalak ezartzen dituen baldintzetan.

Gainerako orduak, zuzenean ikastetxeari eman behar ez dizkiotenak, berriz, honakoa egiteko erabili behar dituzte: irakaslan prestatzeko, azterketak zuzentzeko, hobekuntza profesionala lantzeko eta, oro har, irakaskuntzarekin lotutako beste gai batzuk jorratzeko.

#### Lanaldiaren heren bateko murrizketa duten irakasleak

Lanaldiaren heren bateko murrizketa duten Bigarren Hezkuntzako irakasleek **astean 20 ordu eman behar dizkiote zuzenean ikastetxeari**, eta horietako **15 han egon behar dute**:



- **Astean 11 ordu gutxienez erabili behar dituzte eskolak emateko.** Beharrezkoa bada, 12 ordu ere erabil ditzakete eskolak emateko, baina, eskola-ordu bat gehiago badute, guardia-ordu bat kendu behar zaie, gehikuntza orekatzeko.

- **Astean ordubete erabili behar dute ikasleen gurasoekin egoteko** eta karguan aritzeko.

- **Astean bi ordu erabili behar dituzte guardiak egiteko.**

- **Astean ordubete erabili behar dute Didaktika Sailaren bileretan parte hartzeko.**

Zuzenean ikastetxeari eman behar dizkieten asteko gainerako 5 orduak hilabeteka zenbatu behar dira, ebazpen honetako 2.3.3.a atalak ezartzen dituen baldintzetan.

Gainerako orduak, zuzenean ikastetxeari eman behar ez dizkietenak, berriz, honakoa egiteko erabili behar dituzte: irakaslana prestatzeko, azterketak zuzentzeko, hobekuntza profesionala lantzeko eta, oro har, irakaskuntzarekin lotutako beste gai batzuk jorratzeko.

Bestalde, lanaldiaren gainerako herena egiten duten Bigarren Hezkuntzako irakasleek **astean 10 ordu eman behar dizkiote zuzenean ikastetxeari, eta horietako 8 han egon behar dute:**

- **Astean 6 ordu gutxienez erabili behar dituzte eskolak emateko.**

- **Astean ordubete erabili behar dute ikasleen gurasoekin egoteko** eta karguan aritzeko.

- **Astean ordubete erabili behar dute guardiak egiteko.**

Zuzenean ikastetxeari eman behar dizkieten asteko gainerako 2 orduak hilabeteka zenbatu behar dira, ebazpen honetako 2.3.3.a atalak ezartzen dituen baldintzetan.

Gainerako orduak, zuzenean ikastetxeari eman behar ez dizkietenak, berriz, honakoa egiteko erabili behar dituzte: irakaslana prestatzeko, azterketak zuzentzeko, hobekuntza profesionala lantzeko eta, oro har, irakaskuntzarekin lotutako beste gai batzuk jorratzeko.

Atal honek arautzen duen edozein egoeratan irakasleek eskola-ordu gehiago edo gutxiago badituzte dena delakoagatik, aldea konpentsatu behar da guardia-orduak kenduta edo gehituta, edo beste jarduera batzuk esleituta, kasuan-kasuan ikastetxean eman beharreko orduen guztizko kopurua osatu arte.

### **Gaixotasun kroniko bat duten senideei laguntzeko baimena duten irakasleak**

Bigarren mailara arteko senideei laguntzeko baimena duten irakasleek horretarako 50 ordu dituzte ikasturtean –indarrean dagoen akordio arautzaileak arautzen du baimen hori–.

Baimena erabiltzeko, ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinatu behar dute, eskatzaileak ematen duen zerbitzua ematea ziurtatzeko. Alde horretatik, eskatzaileak ematen duen zerbitzua emateko, hezkuntzaren eta antolakuntzaren koherentzia bermatu behar da.

Irakasleriaren ordutegia prestatzeko, ordu ez lektibo sakabanatzean, aintzat hartuko dira baimen honek onartua duten pertsonen adierazitako premiak. Baimen honek ez du adierazten aurretik finkatutako ordutegia alatzeko eskubiderik dagoenik.



Eskatzailea eta ikastetxeko zuzendaritza-taldea ez badira adosten baimena erabiltzeko moduan eta interesduna ez badator bat zuzendaritzaren erabakiarekin, interesdunak erreklamazio bat aurkez dezake Hezkuntzako lurralde-ordezkariaren aurrean, hark ebatz dezan –horretarako, Hezkuntzako Ikuskaritzak txostena egin behar du–.

### 2.3.3.c) Araudi orokorraren salbuespenak

- Zuzendaritzako karguak dituzten irakasleek karguan aritzeko orduak har ditzakete guardia-orduen ordezkari baldin eta horretarako biderik badago eta beste irakasleen artean egiten badituzte guardia-ordu guztiak.
- Sail didaktiko bateko irakasleek beste sail bateko irakasgaiak ematen badituzte, zuzendariak baimena eman diezaike guardia-ordu bat kentzeko eta beste sailaren bilera bat egiteko ordu horretan.
- Irakasleren baten asteko eskola-orduen kopurua handiagoa bada oro har xedatutakoa baino, guardia-orduak behar zaizkio soberako orduak konpentsatzeko.
- Zuzendariak aukera du irakasleei jarduera bereziak egitea ezartzeko guardia-orduak egin ordezkari baldin eta horretarako biderik badago eta beste irakasleen artean egiten badituzte guardia-ordu guztiak.
- Zuzendaritza-taldeak beren eginkizunetarako ordu-kreditutzat esleitu behar dizkie 3 guardia-orduak ikastetxearen dokumentu eta jardueretan berdintasun-gaiak (baterako hezkuntza eta genero-indarkeriaren prebentzioa) koordinatzen eta dinamizatzen dituztenei.
- Irakasle batek tutoretza bat eta beste kargu bat hartu baditu bere gain zerbitzu-beharrak direla eta, guardia-orduak ordezkatu behar dituzte beste karguan aritzeko orduak, betiere baldin eta horretarako biderik badago eta beste irakasleen artean egiten badituzte guardia-ordu guztiak.
- Guardia-orduen inguruan araututako salbuespenak ezin baimenduzkoak dira baldin eta baimenak badakar beste irakasleren batek zaintza-ordu gehiago egin behar izatea dagozkionak baino.
- DBHko ikasleek ikastetxean egon behar duten bitartean (tartean, jolasaldietan) irakasle batek gutxienez guardia egin behar du ikastetxean. Horretarako, zuzendariak irakasleen guardia-orduen kopurua handitu dezake beharrezkoa bada. Guardietan arreta berezia jarri behar denean ere handitu dezake zuzendariak irakasleen guardia-orduen kopurua, behar adina.
- Irakasle batek ez badu osatzen gutxienezko eskola-orduen kopurua eta beste ikastetxe batean osatu behar badu, kontuan izan behar da ordutegiak osatzeko, eta saiatu behar da egun berean ikastetxe batean baino gehiagotan eskolarik eman behar izan ez dezan. Ezinezkoa bada, berriz, joan-etorriak egiteko denbora kendu behar da guardia-orduetatik eta ikastetxean eman beharreko orduetatik.

### 2.3.3.d) Irakasleen ordutegia

Irakasleek 30 orduko asteko ordutegia adierazi behar dute dagokion inprimakian, ebazpen honetako arauen arabera.

Irakasle bakoitzak ikastetxean eman behar dituen 23 orduak asteko egun guztien artean banatu behar dira, baita lanaldiaren bi heren, erdia eta heren bat egiten duten irakasleek eman behar dituztenak ere –hurrenez hurren, 15, 11 eta 8 ordu eman behar dituzte horiek–. Lanaldi osoa egiten duten irakasleek eguneko bi ordu egon behar dute gutxienez ikastetxean, asteleheneetik ostiralera, eta lanaldiaren bi heren, erdia eta heren bat egiten duten irakasleek,



berri, eguneko bi ordu gutxienez, astean lau, hiru eta bi egunetan hurrenez hurren. DBHko eta Batxilergoko irakasleek egunean 5 eskola eman ditzakete gehienez, eta heziketa-zikloetakoek, egunean 6 orduko eskolak gehienez.

Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan, lantokietan praktikak egiteko garaian, praktiketako irakasle tutoreek ordu kopuru jakin bat erabili behar dute Lantokiko Prestakuntza Modulua kudeatzeko eta tutoretza-lana egiteko; hain zuzen ere, Lanbide Heziketako eta Ikastetxeen zuzendarien ebazpenak, 2014-2015 ikasturteko lanpostuen zerrenda egiteko irizpideak arautzen dituenak, zehazten du ordu kopurua, ziklo eta espezialitate bakoitzeko. Horrenbestez, ikastetxeek irakasleen ordutegi-taula berri bat prestatu behar dute garai horretarako eta, dagozkionez gain, adierazi behar dute zein izango diren tutoretza-orduak lantokietan praktikak egiteko garaian. Lantokiko prestakuntza kudeatzeko orduak esleituko balitu ikasleek prestakuntza hori egin beharreko aldietatik kanpo, ordu horiek ez lirateke eskola-ordutzat hartuko irakasleen ordutegi-koadroan.

**Horrelako orduak eskola-orduak dira ondorio guztietarako.** Irakasleek bisitak egiteko eta orduak erabiltzeko plana aurkeztu behar diote ikasketa-buruari, astean behin gutxienez, behar bezain lehenago, eta lantokira hiru aldiz joan behar dute gutxienez, ikasleek Lantokiko Prestakuntza Modulua egiten duten bitarte osoan. Lantokiak ikastetxetik urrun badaude, komunikabide eraginkor eta egiazaerrazak erabili behar dira jarraipena bermatzeko. Lantokietan praktikak egiteko aldia amaitutakoan, tutore bakoitzak memoria bat aurkeztu behar du Lantokiko Prestakuntza Modulua barruan egindako tutoretza-lana azaltzeko.

**Nolanahi ere, irakasle bakoitzaren urteko eskola-orduen guztizko kopurua da, Lantokiko Prestakuntza Moduluari ematen dizkion orduak barne, ebazpen honetako 2.3.3.a. eta 2.3.3.b. atalek xedatzen dutenaren arabera.**

#### **2.3.3.e.) Gorputz Hezkuntza, Musika edo Plastika eta Ikus Hezkuntzako irakasleak**

Guardia egin dezaketen irakasleen kopuruak bide ematen badu eta irakasleek berek berriaz adierazten badute ados daudela, Gorputz Hezkuntza, Musika eta Plastika eta Ikus Hezkuntzako irakasleen guardia-orduak aldatu egin daitezke, eta irakasgaiekin zerikusia duten eskolaz kanpoko jarduerak egiteko erabili, eskola-orduetatik kanpo.

Horretarako, beharrezkoa da bermatzea beste irakasleen artean egiten dituztela ikastetxeko guardia-ordu guztiak eta ikastetxeko irakasle batek ere ez duela egin behar horregatik hiru guardia-ordu baino gehiago astean.

#### **2.3.3.- f. Heziketa behar berezietako ikasleentzako irakasleak**

Beren betebeharrak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 1998. Uztailaren 30eko (EHAAn abuztuaren 31ean) Aginduan zehazten dira. Bere lanaldi orduak klaustruko beste irakasle guztiak bezalakoa du. Aginduan azaltzen diren betebeharrak eta funtzio guztiak betetzeko erabiliko ditu ordu horiek, bat bera ere alde batera alde batera utzi gabe, eta batez ere laguntzen duen ikaslearen inguruan ari denean.

Profesional hauek baliabide baliotsuak dira hezkuntza inklusiboan, horregatik saiatu behar da ohizko gela barruetan parte har dezaten.



### 2.3.3.g. Erlijioako irakasleak

Erlijioako irakasleek gaiari dagozkion eskola-orduak eman behar dituzte, eta, beharrezkoa bada, beste irakaslan batzuk egin behar dituzte ordutegia osatzeko.

Erlijioako irakasleei dagokienez, eskola-orduak dira gainerako irakasleei dagokienez eskola-ordutzat hartzen diren berak.

Baldin eta ikastetxearen beharrei erantzun eta gero ikusten bada erlijioako irakasle bati orduak falta zaizkiola oro har finkatutako eskola-orduak egiteko, ordutegia osatu behar du ikastetxeko zuzendaritza-taldeak esleitzen dizkion guardia-orduak edo beste jarduera batzuk eginda.

Erlijioako irakasleak ikastetxeko klaustroko kideak dira ondorio guztietarako, eta gainerako irakasleen eskubide eta betebeharrak dituzte, baina badira salbuespenak: indarrean dagoen araudi eta legedikoak eta kontratu bakoitzaren baldintzetatik ondorioztatzen direnak.

### 2.3.3.h. Lanaldiaren heren bateko murrizketa duten irakasleak

Lanaldiaren heren bateko murrizketa badute osasun-arazo larriak direla-eta, irakasleek astean 6 ordu murriztu dezakete zuzeneko irakaslan. Hala ere, horrek ez du esan nahi ikastetxean ordu gutxiago egon behar dutenik.

Ikastetxeari laguntzeko erabili behar dituzte irakaslanari kendutako orduak: praktikak egiten ari diren ikasleen tutoretza-lana egiteko –praktikak master-tituluaren barrukoak badira, aukera dute egin ala ez hautatzeko–, liburutegia zaintzeko, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak antolatzen laguntzeko, guardiak egiteko eta ikastetxeko zuzendaritza-taldeak agintzen dizkien antzeko beste lan batzuk egiteko. Irakasleen ordutegian adierazi behar dira horrelakoetan ematen dituzten orduak.

### 2.3.3.i. Irakaskuntzaz kanpoko lanak: liburutegia, ikus-entzunezkoak, zuzendaritza (laguntza), kalitatearen kudeaketa, hizkuntza-normalkuntza, IKTen administrazioa...

Ikastetxe bateko irakasle bat irakaskuntzaz kanpoko jardueraz bakarrik arduratzen bada, 30 ordu egin behar ditu astean, salbu eta zerbitzu-eginkizunetan dagoen osasun-arrazoiengatik; egoera horretan dauden irakasleek 23 ordu egin behar dituzte astean.

Irakasle batek lanaldiaren zati bat ematen badu irakaskuntzaz kanpoko jardueretan, ordu eta erdi eman behar du eskola-orduei kendutako ordu bakoitzeko. Hortaz, ikastetxean eman behar dituen asteko 23 orduei ordu erdi gehitu behar zaie irakaskuntzaz kanpoko jardueretan ematen duen ordu bakoitzeko, betiere asteko 30 orduko mugaren barruan.

Zuzendariak finkatu behar du liburutegia irekitzeko eta ixteko ordutegia, zerbitzuko langileen lan-eskubideak kontuan izanik eta errespetaturik.

Ikastetxearen antolamendu orokorrak bide ematen badu, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak gainerako irakasleen ordu batzuk esleitzen dizkate irakaskuntzaz kanpoko jardueretarako, eta guardia-orduak erabilita konpentsatu. Aurrez, gainerako zerbitzuak behar bezala ematen direla ziurtatu behar du.

### 2.3.4. ZUZENDARITZAKO ETA GAINERAKO KARGUAK

#### I. Zuzendaritza-taldea

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeko 36. artikulua xedatzen duenez, “zuzendariak, ikasketa-buruak eta idazkariak osatuko dute zuzendaritza-taldea”. Gainera, ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera, kargu hauek ere izan daitezke:

- Baldin eta ebazpen honetako 2.3.4.V. atalak xedatzen duenarekin bat zuzendaritzako eta gainerako kargudunen ordu-murrizketak kalkulatu eta gero ikusten bada ikastetxean badirela ordu nahikoak, alboko zuzendaria, alboko ikasketa-burua eta alboko idazkaria.

- Eskolak gauz ematen dituzten ikastetxeetan, gaueko ikasketen burua.

- Ikastetxe publiko integraletan, ikasketa-buru albokoa, 2012ko urtarrilaren 16ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarenak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publiko integralen egitura eta antolaketa arautzen duenak, 19. artikuluan xedatzen duenarekin bat.

#### II. Zuzendaritzaz kanpoko gainerako karguak

Ikastetxeetan badira zuzendaritzaz kanpoko kargu hauek ere:

- Gelategiak dituzten ikastetxeetan, irakasle ordezkaria.

- DBH eta hezkuntzako beste etapa bat (Lehen Hezkuntza, Batxilergoa edo/eta heziketa-zikloak) ematen duten ikastetxeetan, DBHko koordinatzailea.

- Berariazko Lanbide Heziketa ematen duten ikastetxeetan, Lanbide Heziketa eta lantokietako prestakuntzako koordinatzailea eta, **hala badagokio**, lanbide-heziketa arautu gabearen arduraduna.

- ISO 9000 kalitate-ziurtagiria duten ikastetxeetan, kalitate-arduraduna.

- Goi Mailako Lanbide Heziketako berariazko ikastetxeetan, mantentze-lan eta obren arduraduna eta kudeaketa ekonomikoaren arduraduna.

- Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiko irizpide eta prozeduren arabera, ikastetxeek beste koordinazio-kargu batzuk sor ditzakete: prestakuntza-koordinatzailea, berrikuntza- eta esperientzia-proiektuen koordinatzailea, baliabide didaktikoen arduraduna... Kargu horiek beren gain hartzen dituzten irakasleen ordutegia murrizteko, kontuan hartu behar da zenbat ordu geratzen zaizkion erabiltzeko ikastetxeari.

#### III. Irakasle ordezkaria

Baldin eta DBH eskola-esparrutik kanpoko gelategi batean ematen badute, ikastetxeek irakasle ordezkari bat izan behar dute eginkizun hauek betetzeko:

- a) Gelategiaren funtzionamendua zuzentzea eta koordinatzea, ikastetxeko zuzendariaren esanei jarraituz betiere.



- b) Arau, xedapen, proiektu eta jarduketa-programak eta gelategiko jardunean eragina duten erabakiak betearaztea.
- c) Zuzendariaren ordezkari gelategiko langileen buru aritzea gelategiko lanean, ikastetxeko zuzendariak gaiaren gaineko dituen eskumenak errespetatuz eta betiere haren esanei jarraituz.
- d) Gelategiko irakasleek beren ordutegi akademikoa betetzen dutela zaintzea.
- e) Gelategiko instalazio eta altzariak eta ikasmateriala egoera onean egon daitezen zaintzea.
- f) Ikastetxeko zuzendaria ordezkatzeko gelategiko ikasleekiko eta haien gurasoekiko harremanetan.
- g) Baldin eta gelategia Haur Hezkuntzako edo/eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe batean badago, gelategiko jarduerak eta funtzionamendua ikastetxeko zuzendaritza-taldearekin koordinatzea.
- h) Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiak esleitzen dion beste edozein eta ikastetxeko zuzendariak zuzenean esleitzen dizkionak.

#### IV. DBHko koordinatzailea

DBH eta hezkuntzako beste etapa bat (Lehen Hezkuntza, Batxilergoa edo/eta heziketa-zikloak) ematen duten ikastetxeetan zuzendariak beste etapako irakasle bat izendatu behar du DBH koordinatzeko, eta ikasketak-buruak haren lana zuzendu eta gainbegiratu behar du. Eginkizun eta ardura hauek ditu DBHko koordinatzaileak:

- DBHko mailen eta irakasleen koordinazio pedagogikoa.
- Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen eta hari atxikitako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen arteko komunikazioa eta elkarlana, koordinazioa ziurtatzeko bi hezkuntza-mailetakoko curriculum-proiektuen artean.
- Ikastetxearen eta DBHko ikasleek Batxilergoan edo erdi-mailako heziketa-zikloetan egingo dituzten ikasketetako irakasle taldeen arteko komunikazioa eta elkarlana, nahiz ikastetxean bertan, nahiz Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan.

#### V. Zuzendaritzako eta gainerako karguen murrizketak kalkulatzeko arauak

- a) Hauek dira murrizketak, ikastetxeko ikasle ofizialen kopuruaren arabera:
  - 350 baino gutxiago ..... 27 orduko murrizketa
  - 350 eta 750 bitartean ..... 33 orduko murrizketa
  - 751 eta 1.000 bitartean ..... 39 orduko murrizketa
  - 1.000 baino gehiago ..... 42 orduko murrizketa
- b) Eskolak gaez ematen dituzten ikastetxeek beste 6 orduko murrizketa dute.
- c) Aldi berean DBH eta DOBH ematen duten ikastetxeek beste 6 orduko murrizketa dute.
- d) Bi Batxilergo mota ematen dituzten ikastetxeek beste 6 orduko murrizketa dute, eta hiru Batxilergo mota ematen dituztenek, beste 9 ordukoa.



- e) Heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeek zikloko 3 orduko murrizketa ere izan dezakete, eta 18 ordukoa guztira.
- f) Eskola-esparru desberdinetako eraikin bat baino gehiagotan dauden ikastetxeek beste 9 orduko murrizketa dute.
- g) Mantentze-lan eta obren arduraduna duten ikastetxeek beste 3 orduko murrizketa dute.

## VI. Murrizketa-orduen erabilera

Zuzendaritzako eta gainerako karguen murrizketen guztizkoa da aurreko atal guztietako murrizketen batura.

Ikastetxeek zuzendariaren, ikasketa-buruaren, idazkariaren eta gainerako kargudunen artean banatu behar dute ordu kopuru osoa, irizpide hauei jarraituz:

1. Zuzendariaren, ikasketa-buruaren, idazkariaren, irakasle ordezkariaren eta DBHko koordinatzailearen gutxieneko murrizketak

|                            |             |
|----------------------------|-------------|
| Zuzendaria                 | .....9 ordu |
| Ikasketa-burua             | .....6 ordu |
| Idazkaria                  | .....6 ordu |
| Irakasle Ordezkaria.....   | 6 ordu      |
| DBHko koordinatzailea..... | 3 ordu      |

2. Kargu titularren ordu-murrizketak handiagoa izan behar du alboko karguarena baino.
3. Alboko karguaren berariazko osagarria jasotzeko, 9 orduko murrizketa izan behar da gutxienez.

Aipatutako zenbatekoak eta indarrean dagoen araudia errespetatuz, zuzendaritza-taldeak kargu bakoitzaren ordu-murrizketa erabaki behar du, ikastetxearen orduak agortu arte.

Ikastetxeak, horretarako autonomia baduenez, bere Antolaketa eta Jarduera Araudian zehaztu ahal izango du badituztela aurreko arauen arabera zehaztutako alboko karguz gain beste batzuk ere. Baina, nolana ere, horien izendapenek ez dute administrazio ondorioz izango eta ez dute inolako ordainsari-osagarririk jasotzeko eskubiderik sorraraziko ere.

## VII. Zuzendaritzako kargudunen ordutegia

- Egutegi orokorrak finkatu behar du zuzendaritza-taldeko kide bat behintzat ikastetxean egotea eskola-ordu guztietan.
- Hiru lurralde historikoetako ikastetxe guztietako zuzendariak ostegunak gorde behar dituzte bileraren batera deituko balituzte.





### 2.3.5. IRAKASLEEN BERTARATZEA

#### 2.3.5.a) Irakasleek lanaldia betetzen dutela egiaztatzeko kontrola

Irakasleek ordutegi lektiboa nahiz ez-lektiboa bete behar dute. Horretarako, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak dagozkion kontrol-mekanismoak erabili ahalko ditu.

Inolako justifikaziorik gabe ordutegia betetzen ez bada, zonako ikuskaritzaren buruzagitzari jakinarazi beharko zaio, eta, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean araututakoari jarraiki, dagokion kopurua soldatatik kendu ahalko da, izan dezakeen diziplina-erantzukizunean eragin gabe.

Era berean, grebarik badago, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak haren eraginari buruzko datuak eman behar dizkio Zonaldeko Ikuskaritza Burutzari, eta ikastetxea antolatu behar du erabiltzeko dituen giza baliabideak erabilita ikasleei ahalik eta arreta egokiena emateko moduan.

Bestalde, baldin eta ikusten bada irakasle batek ez duela betetzen sartzeko eta irteteko esleitu dioten ordutegia (nahiz eskolak ematekoa, nahiz ikastetxean egotekoa), zuzendariak eskatu behar dio behar bezala bete dezan. Berdin jarraitzen badu, hileko bertaratze-agirian adierazteaz gain, hutsegiteak Lurralde Ordezkaritzako Langileen Unitateari eta Hezkuntzako Ikuskaritzari jakinarazi behar zaizkio, beharrezko neurriak har ditzaten.

#### 2.3.5.b) Bertaratze-agiriak

Hil bakoitzeko 5. eguna baino lehen, ikastetxeetako zuzendariak aurreko hileko bertaratze-agiriak bidali beharko dituzte Ikuskaritzako zonalde burutzara.

Ikastetxeek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak horretarako diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez prestatu beharko dituzte bertaratze-agiriak eta Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinarazitako jarraibideak jarraituz. Greba izanez gero, gertaera jakinarazteko eta greban zer langilek parte hartu duten zerrendatzeko erabiliko da aplikazio hori bera. Greban parte hartutako langileen zerrenda Ikuskaritzako burutzari bidali beharko zaio, beranduenik jota greba bukatu eta hurrengo egunean.

Hileko bertaratze-agiriak dira irakasle guztien bertaratze-agiriak, eta zera hartu behar da kontuan haiek betetzeko:

- “Hutsegitearen arrazoa” azaltzeko eremua ezin da utzi hutsik; izan ere, bestela, justifikatu gabekotzat hartu behar da hutsegitea.
- Hutsegite guztiak aipatu behar dira, inongo salbuespenik gabe.
- “Norberaren gauzak” jartzeko “hutsegitearen arrazoa” azaltzeko eremuan, beharrezkoa da lurralde-ordezkariek dagokion lizentzia eman izana.
- Eskola-orduetan eskolaz kanpoko jarduerak egitea ez da hutsegitea, eta, beraz, ez da aipatu behar bertaratze-agiriaren laburpenean.
- Irakasleek hutsegiteak arrazoitzeko agiriak aurkeztu behar dizkiote zuzendariari, dagokionean, hark noiz eskatuko zain egon gabe. Ikastetxetik kanpo IRALE ikastaroetan edo antzekoetan dabilzan irakasleek ikastaroa egiten ari diren lekuan bertan aurkeztu behar dituzte ikastarora huts egin izana arrazoitzeko agiriak.



- Bertaratze-agiriaren kopia bat agerian jarri behar da, irakasle-gelan, hilaren 5a baino lehen, eta beste kopia bat ordezkari-organoren esku utzi. Kopiek hutsik izan behar dute "hutsegitearen arrazoa" azaltzeko eremua; besterik gabe, adierazi behar dute ea hutsegiteak izan diren justifikatuak ala justifikatu gabeak.
- Eskolaldian irakasleak falta direnean ikasleei arreta egokia emateko prozeduraren berri eman behar zaio ordezkari-organorenari.
- Eskolak betiko moduan emateko arazo oro berehala jakinarazi behar zaio Ikuskaritzari, telefonoz, eta bertaratze-agirian adierazi behar da gero.
- Baldin eta ikastetxean ez egoteko (edo lan-ordutegia ez betetzeko) arrazoa ez bada azaltzen irakasleen lan-baldintzak arautzeko akordioan, ikastetxeko zuzendariaren aurrean egiaztatu behar dira arrazoiak. Hark hutsegitea justifika dezake, bidezkoa jotzen badu betiere.
- Bertaratze-agiriarekin batera ez da bidali behar hutsegiteen frogagiririk. Aitzitik, hutsegiteen frogagiriak ikastetxean artxibatu behar dira, eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskura utzi. Frogagiriak hutsegitearen eguna, ordua eta arrazoa adierazi behar dituzte, eta jatorrizkoak eta argiak izan behar dute.

### 2.3.6. MINGEGIAK

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan bi motako mintegi era daitezke: mintegi didaktikoak eta mintegi ez-didaktikoak (esaterako: Orientazio mintegia ). Era berean, ikastetxeek sor dezakete nahi adina mintegi irakasleen lan pedagogikoa antolatzeko eta koordinatzeko.

Didaktika-gaiak koordinatzeko mintegiak arduratzen dira dagozkien irakasgai eta modulu-tako berezko ikasketak antolatzeaz eta garatzeaz. Mintegietako buruek zuzentzen dituzte, eta haien xedea da koordinazioa bermatzea irakasgai bereko edo antzeko gaietako irakasleen artean. Taldeen zeregina eta lana taldekide guztien erantzukizuna da.

#### 2.3.6.a) Mintegien eraketa

##### a) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bakarrik ematen duten ikastetxeak

Irakasleen klaustroaren proposamenari jarraituz, ikastetxearen curriculum-proiektuarekin bat, DBH bakarrik ematen duten ikastetxeetan zuzendaritza-taldeek zehaztu behar dute zer sail egongo diren ikastetxeetan, eta erabakiaren berri eman behar diote ordezkari-organorenari.

Ikastetxeko mintegiak eratzeko proposamena prestatzeko, klaustroak nahitaez bete behar ditu arau hauek:

1. Ikastetxean eskola-orduren bat ematen duten irakasle guztiak mintegi didaktikoren bateko kide izatea.

2. Irakasle bat ere ezin izatea bi mintegi didaktikotako baino gehiagotako kide. Ildo horretan, irakasle batek bi mintegi didaktikotako edo gehiagotako irakasgaiak ematen baditu, mintegi honetakoa izan behar du: zer irakasgaitan ematen duen ordu gehien, haren mintegikoa Hala ere, ematen dituen gainerako irakasgaien mintegien bileretan eta haren lan eta erabakietan parte har dezake.



3. Ordainsari osagarria kobratzeko eskubidea duten buruak dituzten mintegien gehieneko kopurua izatea ikastetxeko irakasleen kopuruaren arabera. Alde horretatik, taula hau aplikatu behar dute ikastetxeek:

| IKASTETXEKO IRAKASLE KOPURUA  | GEHIENEO MINTEGI KOPURUA |
|-------------------------------|--------------------------|
| 13 irakasle baino gutxiago    | 3                        |
| 13 eta 16 irakasle bitartean  | 4                        |
| 17 eta 20 irakasle bitartean  | 5                        |
| 21 eta 24 irakasle bitartean  | 6                        |
| 25 eta 28 irakasle bitartean  | 7                        |
| 29 eta 32 irakasle bitartean  | 8                        |
| 33 eta 36 irakasle bitartean  | 9                        |
| 37 eta 40 irakasle bitartean  | 10                       |
| 41 eta 45 irakasle bitartean  | 11                       |
| 46 eta 50 irakasle bitartean  | 12                       |
| 51 eta 55 irakasle bitartean  | 13                       |
| 56 eta 60 irakasle bitartean  | 14                       |
| 61 eta 65 irakasle bitartean  | 15                       |
| 66 eta 70 irakasle bitartean  | 16                       |
| 71 eta 80 irakasle bitartean  | 17                       |
| 81 eta 90 irakasle bitartean  | 18                       |
| 91 eta 100 irakasle bitartean | 19                       |
| 100 irakasle baino gehiago    | 20                       |

4. Mintegi jakin batzuk eratzea 13 irakasle edo gutxiago dituzten ikastetxeetan. Gure proposamena da sail hauek eratzea:

- a) Hizkuntza Mintegia. Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntzak ikasgaietako irakasleek osatu beharko lukete.
- b) Zientzia Mintegia. Matematika, Natura Zientziak eta Teknologia ikasgaietako irakasleek osatu beharko lukete.
- c) Giza eta Gizarte Zientzien Mintegia. Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia, Gorputz Hezkuntza, Plastika eta Ikus Hezkuntza, eta Musika ikasgaietako irakasleek osatu beharko lukete.

5. Ikastetxeko mintegiak eratzeko proposamena onartutakoan zuzendariak Zonaldeko Ikuskaritza Burutzara bidali behar du, hark egiazta dezan ea goian zehaztutako baldintzak betetzen dituen proposamenak. Bete egiten baditu, Ikuskaritzak oniritzia eman behar dio, eta gero Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidali, dagozkion ondorio ekonomiko eta administratiboak izan ditzan.

6. Bere autonomia erabiliz, ikastetxeek Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudian ezar dezakete mintegi gehiago izatea 3. puntuko taulak aipatzen dituenak baino, edo koordinazio pedagogikorako organo gehiago izatea. Hala ere, mintegi gehigarrietako buruen izendapenek ez dute ondorio administratiborik, eta ez dute ematen eskubiderik inolako ordainsari osagarririk jasotzeko.

**b) Batxilergoa edo/eta heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeak**

Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiak xedatzen du ikastetxe horren antolamendu eta koordinaziorako behar diren adina mintegi antolatzearena. Dena dela, sailetakoko buruen ordainketari dagokionez, ikastetxeek sail didaktiko hauek bakarrik eratzeko eskubidea dute, betiere **espezialitate bakoitzeko berariazko bi irakasle badaude gutxienez**:

**Batxilergoko ikasketak**

1. Gaztelania eta Literatura Mintegia.
2. Euskara eta Literatura Mintegia.
3. Ingeles Mintegia.
4. Frantses Mintegia.
5. Aleman Mintegia.
6. Latin Mintegia.
7. Greziera Mintegia.
8. Geografia eta Historia Mintegia.
9. Filosofia Mintegia.
10. Ereljio Mintegia.
11. Gorputz Hezkuntzako Mintegia.
12. Matematika Mintegia.
13. Fisika eta Kimika Mintegia.
14. Biologia eta Geologia Mintegia.
15. Marrazketa Mintegia.
16. Teknologia Mintegia.
17. Musika Mintegia.
18. Ekonomia Mintegia.

**Lanbide Heziketako ikasketak**

1. Lan Prestakuntza eta Orientazioko Mintegia.
2. Lanbide-familia bakoitzeko berariazko mintegiak eta zeharkako beste mintegi batzuk – lanbide-familia bakoitzeko berariazko mintegiak osatu behar dituzte familiako moduluetakoko eta heziketa-zikloetakoko espezialitateetako irakasleek–. Guztira, Lanbide Heziketako mintegien kopurua ezin da izan inola ere handiagoa ebazpen honetako 2.3.6.a. A) ataleko 3. atalak irakasleen eta gehieneko ikasle kopuruaren arabera xedatzen duena baino.

Arau hauek bete behar dira mintegiak eratzeko Batxilergoa edo/eta heziketa-zikloak ematen dituzten ikastetxeetan:



1. Ikastetxean eskola-orduren bat ematen duten irakasle guztiak mintegi didaktikoren bateko kide izatea

2. Irakasle bat ere ezin izatea bi mintegi didaktikotako baino gehiagotako kide. Ildo horretan, irakasle batek bi mintegi didaktikotako edo gehiagotako irakasgaiak ematen baditu, mintegi honetakoa izan behar du: zer irakasgaitan ematen duen ordu gehien, mintegi hartakoa da. Hala ere, ematen dituen gainerako irakasgaien sailen bileretan eta haren lan eta erabakietan parte har dezake.

3. DBHko irakasleak beren ikasgaiari dagokion mintegi didaktikoari atxikitzea. Fisika eta Kimikako eta Biologia eta Geologiako mintegiak dituzten ikastetxeetan bereziki, Natura Zientzietako irakasleek bati edo besteari atxikitzea aukeratu behar dute, nahiz eta bien mintegi bileran eta lanetan parte hartu ahal izan. Gauza bera gertatzen da Kultura Klasikoko irakasleekin Latin eta Greziera mintegiak dituzten ikastetxeetan.

4. Baldin eta ikastetxean espezialitate bateko berariazko bi irakasle ez badaude eta beraz espezialitateko mintegirik sortu ezin bada, antzeko bi espezialitatek edo gehiagok osatutako mintegiak eratzea. Espezialitateetako berariazko bi irakaslek osatu behar dituzte gutxienez.

5.- Aurreko arauekin bat sortzen diren mintegiez gain, bi mintegi ez-didaktiko sortzeko eskubidea dute ikastetxeek.

6.- Zuzendaritza-taldeak onartuko du ikastetxeko mintegiak (didaktikoak eta ez-didaktikoak) eratzeko proposamena, eta Ordu-tegi-koadroak (DAE) aplikazio informatikoan sartuko da, Hezkuntza Ikuskaritzak igorritako jarraibideei jarraiki. Hezkuntza ikuskaritzak egiaztatu beharko du proposamenak eskatutako betekizunak betetzen dituen, eta hala bada, bere oniritzia emango du aipatu aplikazio informatikoan, dagozkion ekonomia- eta administrazio-ondorioak izan ditzan.

7.- Bere autonomia erabiliz, ikastetxeek Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudian ezar dezakete mintegi gehiago izatea aurreko atalek aipatzen dituztenak baino, edo koordinazio pedagogikorako organo gehiago izatea. Hala ere, mintegi gehigarrietako buruen izendapenek ez dute ondorio administratiborik, eta ez dute ematen eskubiderik inolako ordainsari osagarriak jasotzeko.

### **2.3.6.b) Mintegi bilerak**

Astean ordubete gorde behar da gutxienez mintegietako kide guztiak biltzeko, ikastetxeko eskola-ordutegiaren barruan. Ahal dela, hizkuntza--mintegi guztiak asteko egun eta ordu berean bildu behar dute. Ikasketa-buruak kontuan hartu behar du hori ordutegiak prestatzen dituenen. Mintegikide guztiak nahitaez joan beharko dute bileretara, eta guztietan idatziko da arauzko akta, gutxienez, bertaratutakoak, joan ez direnak, gai-zerrenda eta hartutako erabakiak jasotzeko.

Ekainean mintegietako kideek bildu behar dute lan-plana eta haren lorpenak aztertzeko eta hurrengo ikasturterako egin beharreko zuzenketak zehazteko. Gero, mintegi bakoitzari buruzko txostena sartu behar dute ikastetxearen urteko txostenean.

### 2.3.6.c) Mintegi didaktikoen bilerak eta zereginak

Mintegi didaktikoei zeregin hauek dagozkie:

a) Espezialitateko irakasgaietako programazioa lantzea eta, bereziki, curriculuma eta haren mailakako banaketa zehaztea, eta zehaztea zer ebaluazio-irizpide eta metodologia erabiliko diren eta zer-nolako ekarpena egiten duen irakasgaiak ikasleek oinarritzko gaitasunak edo berariazkoak eskuratzeko.

b) Beren espezialitateekin lotutako hautazko irakasgaiak proposatzea.

c) Ohiko eta ohiz kanpoko probak prestatzea eta kalifikazioei buruzko erreklamazioei erantzutea.

d) Beren espezialitateekin zerikusia duten prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak eta bitartekoak prestatzekoak proposatzea.

e) Emaidza akademikoak aztertzea eta programazioak aztertzea eta zenbateraino betetzen diren balioztatzea.

### 2.3.6.d) Mintegiburuak

Mintegien lana baterako lana da, eta smintegikide guztien ardura da aurreko urtetik gainditu gabeko irakasgaiak dituzten ikasleentzako probak prestatzea eta zuzentzea, estatistikak egitea eta abar.

Curriculum ofizialak erreferentziatzen hartuta betiere, mintegiek badute aukera haiek egokitze, hautatzeko eta zehazteko, diseinatutako lan-planaren eta programazioaren arabera. Aldaketa guztiak mintegiaren akta-liburuan adierazi behar dira, eta Ikuskaritzak zaindu behar du bat etor daitezen curriculumeko gutxieneko irakaskuntzekin.

Mintegien funtzionamendua mintegiburuaren ardura da. Zeregin hauek dituzte mintegiburuak:

a) Mintegiaren lana zuzentzea eta koordinatzea.

b) Bilerak antolatzea, prestatzea eta zuzentzea.

c) Ikasle taldeetako programazioen bilakaeraren jarraipena egitea aldizka eta programazioak (edukia eta gutxieneko eskakizun-mailak) betetzen direla ziurtatzea.

d) Etengabeko ebaluazioan mintegiko irakasleen koordinazioa bermatzea eta proba bateratu bat egitea ohiko eta ohiz kanpoko deialdietan.

e) Mintegiak egiten dituen nahikotasun-proben, proba osagarrien eta ohiz kanpoko kalifikazioak ikuskatzea.

f) Lana mintegikideen artean banatzea.

g) Material eta jarduera planifikatuak edukitzea mintegiko irakasleren bat ez dagoenerako, guardia egiten duenak behar bezalako arreta eman ahal izateko hutsegiteak eragindako ikasleei.

h) Ikasketa-buruarekin harremanetan egotea mintegiko jarduerak ikastetxeko beste batzuekin koordinatzeko eta prestatutako lan-planaren bilakaerari buruz edo mintegian antzematen den beste edozein gorabeherari buruz informatzeko.

i) Bileretan aktak egiten direla bermatzea.



j) Ikastetxeak berak ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudian zehazten dituenak.

Mintegiburuak programazio didaktikoak aurkeztu behar dizkiote ikastetxeko zuzendariari urriaren 15a baino lehen, eta hark ikastetxean bertan gorde behar ditu, Hezkuntzako Ikuskaritzaren eskura. Programazio didaktikoek ikastetxearen curriculum-proiektua osatu behar dute eta, gainera, kopia bat eman behar zaie mintegikide guztiei.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako arloetako programazio didaktikoak egiteko, kurtso hasieran Berritzegune Nagusia, ISEI-IVEI eta Hezkuntzako Ikuskaritzaren espezialistek egindako orientabideak zabalduko ditu Sailak.

### 2.3.6.e) Mintegiburuaren izendapena

Zuzendariak izendatu behar ditu mintegiburuak, irizpide hauek kontuan hartuz betiere:

1. Mintegiburuak mintegiko irakasle izatea eta bere gain bestelako zuzendaritzako kargurik ez hartu izana.
2. Mintegiburuak Bigarren Hezkuntzako katedradunen kidegoko irakasle behar du izan. Salbuespen bezala, plaza hori bete lezake katedrarik ez duen eta zuzendaritzako kargurik ere ez duen beste mintegikideren batek. Hau da, Bigarren Hezkuntzako katedradunen kidegokoak ez diren irakasleak ezin dira mintegiburu izan inola ere baldin eta sailetan kidego horretako irakasleren bat dagoen eta zuzendaritzako beste kargurik ez duen .
3. Aipatutako irizpideei men eginda betiere, Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiak xedatzen duena hartu behar da kontuan mintegiburuak hautatzeko.
4. Oraindik Antolamendu eta Jarduera Araudirik ez duten ikastetxeetan eta Araudiak mintegiburuak hautatzeko modua xedatzen ez duenetan zuzendariak hautatu behar ditu mintegiburuak, mintegikideen proposamenei jarraituz. Mintegiek proposamenik egiten ez badute, berriz, ikastetxeko zuzendariak bere kasa erabaki behar du.

Mintegiburuek ezin diote karguari uko egin izendatutakoan, mintegiburutza guztiek titular bat ikasturte hasierarako izateko.

Titularrak huts egin behar badu sei hilabete baino gehiago (edo, salbuespen gisa, denbora gutxiago), ikastetxeko zuzendariak mintegiko beste kide bati egokitu diezazkioke haren funtzioak. Aurrez, Lurralde Ordezkaritzako Hezkuntzako Ikuskaritzak baimena eman behar du.

### 2.3.6.f) Mintegietako dokumentuak

Mintegi didaktiko guztiek eta koordinazio pedagogikorako mintegi guztiek akta-liburu bat eduki behar dute, eta ikastetxeko kide bakarreko eta kide anitzeko organoen eta Ikuskaritzaren eskura utzi.

Akta bat egin behar da mintegi bilera bakoitzeko. Bilerako parte-hartzaile guztiek izenpetu behar dituzte, eta mintegiburuak izendatutako irakasleak idatzi behar ditu.

Azken ebaluazioaren ondoren, ikasturte hasierako programazioa aztertu behar da, eta zenbateraino bete den ikusi. Era berean, betetzeko gelditu dena aztertu behar da, eta zergatik ez den bete arazoitu, eta hobekuntzak proposatu behar dira hurrengo ikasturterako.



Ikasleen proba, ariketa eta azterketak gorde behar dira ebazpen honek berak kalifikazioen aurkako erreklamazioak egiteko eskubideari buruzko atalean eta abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzkoak, 9. artikuluan xedatzen dutenarekin bat [EHAA, 2008ko abenduaren 16koa].

### 2.3.7. ORIENTAZIO-MINTEGIA

#### 2.3.7.a) Orientazio mintegiaren eraketa

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe guztietan orientaziomintegi bat eratu behar da, gutxienez hiru kidekoa bada betiere. Irakasle hauek osatu behar dute Orientazio mintegia:

1. Hezkuntza Orientazioa espezialitateko irakasleek. Horietako batek mintegiburu izan behar du nahitaez.
2. Curriculum anitzeko taldeez eta hezkuntza berariaz sendotzeko proiektuez arduratzen diren irakasleek, horrelakorik badago betiere.

“Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoko” ekintza-ildo guztiak heltzeko ahaleginean, ikastetxe bakoitzak hezkuntza indartzeko bere plana sortu behar du Dibertsitatearen harreta Planaren zati bezala. Plan horretan neurri hauek garatuko dira: irakasleek berek hezkuntza-arloko banakako zein taldekako neurriak diseinatu eta hartu behar dituztenak, ikasleei eskolan izan ohi dituzten zailtasunekin laguntzeko. Alde horretatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak badu “Hezkuntza indartzeko banakako plana egiteko orientabideak oinarritzko hezkuntzan<sup>30</sup>” izeneko dokumentu bat, erreferentziatzat erabil daitekeena.

Hezkuntza indartzeko planak hezkuntza-komunitate osoaren konpromisoa islatu behar du, ordezkarritza-organo gorenak aurrez adostuta, eta adierazi behar du zer profesionalak parte hartzen duten planean, zer ordu-kreditu duten horretarako eta zein diren ekintza eta estrategiarik egokienak aniztasunari erantzuteko ikuspegi etiko eta inklusibo batetik. Besteak beste, hauek aipa ditzake:

- Irakasle bat baino gehiago izatea taldeen jarduera jakin batzuetan.
  - Aurreko zikloa gainditu duten baina zikloko gaitasun batzuk eskuratu ez dituzten ikasleen beharrei erantzutea.
  - Gelatik eta ohiko eskola-orduetatik kanpo errekupeazio-lana egitea ikasteko zailtasunak dituzten ikasleekin.
  - Etxean irakastea behar duten ikasleen arreta pedagogikoa.
  - Ordu-kreditua aldatzea ikasturtean ikasle berriak eskolatzeagatik sortzen diren beharrei erantzuteko eta ohiko epetik kanpo eskolatutako ikasleen arreta areagotzeko. Ikasle etorkin askoko ikastetxeek, berriz, neurri bereziak hartu behar dituzte; hain zuzen ere, ebazpen honen 2.3.3.j) atalean (kulturarteko proiektuaren dinamizatzaileari buruzkoan) eta 2.3.3.k) atalean (Hizkuntza Indartzeko Proiektuari buruzkoan) zehaztuko ditugunak.
3. Kulturarteko dinamizatzaileek, horrelakorik badago betiere.
  4. Pedagogia Teraupetikoko maisu-maistra adituek, horrelakorik badago betiere.

---

30 [Hezkuntza indartzeko banakako plana egiteko orientabideak oinarritzko hezkuntzan](#)



5. Zereginak ikasteko gelez arduratzen diren irakasleek, horrelakorik badago betiere.

### 2.3.7.b) Orientatzaileen eginkizunak

Hezkuntza-lanaren parte da orientazioa eta, alde horretatik, irakasleei dagokie, irakaslanaren parte baita. Hala eta guztiz ere, Hezkuntza Orientazioko espezialitateko irakasleei (orientatzaileei) eginkizun bereziak dagozkie.

Orientatzaileak funtsezko bi zeregin ditu: batetik, irakasleekin batera parte hartzea, animatzea, aholkatzea eta lan egitea ikastetxeetan hezkuntzan esku hartzeari buruz erabakitzeke foroetan, hala nola zuzendaritza-taldeetan, batzorde pedagogikoetan, sail didaktikoetan, irakasle taldeetan eta tutore taldeetan, eta, bestetik, proiektuak, ikasle guztientzako ebaluazio-diseinuak eta esku hartzeko irizpideak sortzen laguntzea eta ikasleen hezkuntza- eta orientazio-zereginetan laguntzea. Horrenbestez, Orientazio Planak guztiak aipatu behar ditu.

Besteak beste, hauek dira orientatzaileen eginkizunak:

- a) Orientazio Saileko buru izatea, alegia, Orientazio Sailaren bilerak planifikatzea eta gidatzea eta Saileko kide bakoitzaren lanak koordinatzea.
- b) Orientazio Plana prestatzea eta ikastetxearen tutoretza-plana prestatzeko aholkuak ematea tutoreei, zuzendaritza-taldearekin koordinatuta, eta Orientazio Plana Sailaren urteko planaren eta urteko txostenaren barruan sartzea.
- c) Ikastetxeko ikasleei lanbide-orientazioa emateko programa bat prestatzea etapa guztietarako eta hura garatzen laguntzea. Horretarako, bokazioari buruzko orientazioa emateko prozesuak diseinatu behar dituzte, jarduera jakinek eratutakoak, eta ikasleen arteko berdintasuna bultzatu behar dute etorkizunerako lanbide bat hautatu behar dutenean.
- d) Ikastetxeko Koordinazio Pedagogikorako Batzordearekin (batez ere, ikasketa-bururekin) elkarlanean jardutea eta jarduketa-planak eta proposamenak aurkeztea sail didaktikoak eta irakasle taldeak koordinatzeko.
- e) Hezkuntza berritzeko eta ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak etengabe hobetzeko programak sustatzea eta horrelakoak egiten laguntzea.
- f) Tutorearekin eta taldeko irakasleekin batera ikasleek ikasteko zailtasunak dituzten egoerak aztertzea eta hezkuntza indartzeko eta, hala badagokio, curriculum egokitzeko neurriei buruz aholkatzea.
- g) Ikastetxean jokabide- eta elkarbizitza-arazoak sortzeari aurrea hartzen eta horrelakoak konpontzen laguntzea.
- h) Egokia bada, bere espezialitateko ikasgaiak ematea.
- i) Ikastetxeko irakasleei aholkuak ematea berariazko arreta emateko plan eta programak (curriculum anitzeko gelak, zereginak ikasteko gelak, hezkuntza berariaz sendotzeko proiektuak) diseinatzeko, egiteko eta ebaluatzeko eta haien jarraipena egitea.



j) Maila bakoitzeko tutoreekin koordinatzeko bilerak egitea aldizka, taldeko tutoretza-planaren bilakaera eta ebaluazioari buruz aholkatzeko, eta, oso bereziki, ikasleak orientatzeko programatutako jardueri buruz.

k) Ikastetxetik kanpoko hezkuntza- eta gizarte-eragileekin eta komunitate-eragileekin koordinatzen laguntzea, ikasleen jarraipen egokia egiteko, ikasleak integratzeko eta ikasleek ikasketetan arrakasta izatea bermatzeko.

Ikasketa-buruak lagundu behar diete orientatzaileei hala ikastetxeko tutoreekin nola ikasleak orientatzeko prozesuekin zerikusia duten profesional guztiekin lan egiten etapa guztietan (DBHn, Batxilergoan eta heziketa-zikloetan).

### **2.3.7.c) Hezkuntza Orientazioko irakasleen ordutegia**

Hezkuntza Orientazioko irakasleek ordutegi jakin bat bete behar dute, ikastetxeko gainerako irakasleek dutenaren antzekoa. Alegia, astean 30 ordu egin behar dituzte, eta horietatik, 23 ikastetxean egon behar dira; beste zazpiak, berriz, hilabeteka zenbatu behar dira, eta dago ikastetxean eman beharrik.

30 orduen banaketa ebazpen honetako 2.3. atalak zehazten du. Ikastetxeko gainerako irakasleen banaketa bera da, baina bada salbuespen bat: Hezkuntza Orientazioko irakasleen eskola-orduen artean kontuan hartu behar dira, ematen dituzten eskola-orduez gain, orientazio-jardueretarako berariazko orduak.

## **2.3.8. ZAINTZAK**

### **2.3.8.a) Zaintza irakasleak**

Ikastetxea eta, bereziki, ikastetxearen ordezkaria den aldetik, zuzendaria dira ikasleen arduradunak eskola-orduetan. Hori dela eta, beti, baita DBHko ikasleen jolasaldian ere, zaintza egiteko behar adina irakasle izan behar dira ikastetxean.

DBHko ikasleen jolasaldietako zaintzak egin behar dituzte ahal dela etapa horretako ikasleei eskolak ematen dizkieten irakasleek.

Zaintza-ordu guztiak behar bezala egiten direla ziurtatutakoan bakarrik agin diezaieke zuzendariak guardiako irakasleei bestelako zerbitzuak emateko, hala nola liburutegikoa.

### **2.3.8.b) Zaintza irakasleen funtsezko zereginak**

- Ikasleak zaintzea jolasaldietan eta dagokien irakaslea ez dagoelako edo beste arrazoren bat dela medio bakarrik gelditzen direnean. Horretarako, dagokion sailak horrelakoetarako planifikatutako material eta jarduerak erabili behar dituzte.
- Korridoreetako ordena eta oro har ikasleek ikasgelatik kanpo duten jokaera zaintzea. Horrek ez du esan nahi beste irakasleek lagundu behar ez dutenik.
- Beren txandaren barruan gertatzen den edozein ustekabe berehala ebaztea eta ikasketa-buruari haren berri ematea ahal bezain laster. Besteak beste, beharrezko zuzemenak egin behar ditu ikastetxeko norbaitek sendagilearen laguntza behar badu.



- Bertaratze-agiria behar bezala beteta, jakinaraztea ea beren txanden barruan eskola eman behar duten irakasleak eta eskolak ez diren eginbeharrak dituztenak agertu egin diren eta garaiz iritsi diren.
- Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiak egokitzen dien beste edozein.

### 2.3.8.c) Zaintza -agiria

Eguneroko zaintza agiri bat eduki behar du ikasketa-buruak, betiere Ikuskaritzari erakusteko moduan. Agiriak datu hauek adierazi behar ditu gutxienez:

- Irakasleen hutsegiteak eta atzerapenak.
- Ikastetxean gertaturiko edozein gorabehera.
- Gertatutako ezbeharrak.
- Guardiako irakasleen sinadurak.

### 2.3.9. TUTORETZAK

#### 2.3.9.a) Tutoreen izendapena

Ikastetxeko ikasle talde bakoitzak tutore bat izan behar du, curriculum anitzeko taldeek izan ezik; haiek bi tutore izan behar dituzte. Tutoreak taldeko irakasle izan behar du; ahal dela, taldeko ikasle guztiek ematen duten irakasgai bateko irakasle.

Ahal dela, ahalegindu behar da ikasleek tutore bera izan dezaten DBHn (batez ere 1. eta 2. mailan).

Talde guztietarako tutore nahikorik ez badago, beste kargu batzuk dituzten edo beste tutoretza batzuek arduratzen diren irakasleek arduratu behar dute. Horretarako, guardia-orduak egitetik salbuetsita gera daitezke, betiere beste irakasleen artean egiten badituzte.

Tutoreak ikastetxeko zuzendariak izendatu behar ditu, ikasketa-buruaren proposamenari jarraituz.

Zuzendariak beste funtzio batzuk esleitu behar dizkie tutore-kargua bakarrik duten eta tutoretza-talderik ez duten irakasleei.

Tutoreek tutoretza-orduak izan behar dituzte ikastetxeko lan-ordutegiaren barruan tutoretza-planaren barruko tutoretza-programazioa aurrera ateratzeko. Urriaren 16ko 175/2007 Dekretuaren II. eranskinarekin bat [EHAA, 2007ko azaroaren 13koa], DBHn hiru tutoretza-ordu izan behar dira gutxienez lehen hiru mailetan, eta ordubete 4. mailan. Batxilergoan eta heziketa-zikloetan, berriz, komeni da hamabostean behin ordubeteko tutoretza izatea.



### 2.3.9.b) Tutoreen eginkizunak

Tutoreek ikasle guztiei lagundu behar diete zuzenean, banan-banan, baita taldeari ere, ikasleek beren proiektu pertsonala eratzeko. Hezkuntza-munduko espezialistek nabarmendu dutenez, tutoretza-lana oso garrantzitsua da irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesurako, baita 201/2008 Dekretuak ikasleei ezartzen dizkien eskubide eta betebeharrak bermatzeko ere.

Tutore bakoitzak bere taldeko ikasleak orientatu behar ditu, eskolak talde berean ematen dituzten irakasleekin koordinatuta, eta, era berean, komunikazio arina izan behar du ikasleen familiekin edo/eta legezko tutoreekin. Zehatz esanda, egiteko hauek bete behar ditu:

- a) Tutoretza-plana prestatzea, ikastetxeko orientatzaileak aholkatuta eta lagunduta.
- b) Ikasle taldeko irakasle taldea koordinatzea, bai programazioari eta ebaluazioari dagokienez, bai irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan sortzen diren egoera banakako eta orokorren azterketari dagokionez. Ebaluazio-saioez gain, tutoreek ikasturtean hiru bilera egin behar dituzte gutxienez taldeko irakasleekin. Bileren berri eman behar diote ikasketa-buruari, eta bileretara deitzeaz arduratu behar dute.
- c) Ikasleekin taldeko tutoretza-lana (Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Planaren arabera, tutoretza planetan berdintasuna eta biolentzia prebenitzeko lan proposamenak sartu eta ikasleak orientatzea, bizitzan ikasketetan eta lanbidean bidea aukera dezaten, askatasuna eta aukera- aniztasuna errespetatuz eta genero-baldintzapenik gabe) eta banakakoa egitea, ikastetxeko eta zonaldeko orientazio-zerbitzuek lagunduta beharrezkoa bada.
- d) Irakasle eta orientatzaile taldeak aholkatuta, orientazio-aholkuak idaztea ikasleek DBH amaitzean edo egoera bereziak gertatzen direnean, hala nola ikasleek maila gainditzen ez dutenean, urriaren 16ko 175/2007 Dekretuko 23.6. artikulua zehazten duenez.
- e) Eskolako jardueri buruzko informazioa ematea ikasleei eta haien gurasoei. Edonola ere, gurasoek eskubidea dute irakasleengana eta ikastetxeko aginte-organotara jotzeko, eta, horrenbestez, ikastetxeak tutorearen asteko bisita-ordutegia jakinarazi behar die gurasoei.
- f) Taldeko ikasleen gurasoekin edo/edo legezko tutoreekin harreman arinak izatea hezkuntzako lana errazteko, alde biei dagokien.
- g) Ebaluazio-saioak koordinatzea eta emaitzak ematea. Era berean, ikasgaiei buruzko estatistikak eta ikasketa-buruak eskatutako datu guztiak osatu behar ditu, eta ikasleekiko tutoretza-lanari lotutako agiri akademiko guztiak egin.
- h) Talde edo gelako ikasleen hutsegiteen jarraipena egitea eta haien berri ematea ikastetxeko ikasketa-buruari eta familiei.
- i) Aurrekoak aplikatzeko eta garatzeko Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiak egokitzen dizkion guztiak.

Aipatutako eginkizunetatik ondorioztatzen denez, behar bezalako tutoretza-lanak bermatzen du taldeko ikasle bakoitzaren banakotasuna eta aniztasuna kontuan hartzea. Hezkuntza-komunitatean talde bakoitzeko tutoreak du aukera gehien ikasleei laguntzeko, desberdintasunak antzemateko eta aniztasuna lantzeko eta sustatzeko.

### 2.3.9.c) Hutsegiteen kontrola

Irakasleek betebeharra dute ikasleen hutsegiteak kontrolatzeko eta tutoreei jakinarazteko, tutoreen ardura baita ikasleen hutsegiteen jarraipena egitea.

Familiei ikasleen hutsegiteen berri emateko, Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiak dioenari jarraitu behar zaio. Araudiak ez badio ezer gaiari buruz, ordezkaritza-organo gorenak ezarri behar ditu familiei hutsegiteen berri emateko epeak, informazio zuzen eta zehatza emango dietela ziurtatzeko.

Ikasketa-buruak neurriak hartu behar ditu familiek hutsegiteen berri lehenbailehen izateko, eta zuzendariak eman behar dizkie aginduak tutoreei eta ikastetxeko administrazioko langileei.

### 2.3.9.d) Familiekiko bilerak

Ikastetxeak informazio-bilerak antolatu behar ditu familiekin, eta ikasleen gurasoek parte hartzeko bide eman behar du, eta ahalegindu behar du irakasleek ere (tutoreek eta tutore ez direnek) izan dezaten bileran parte hartzea.

Familiekiko bileren ezaugarriak (irekiak diren, orokorrak diren, taldekakoak edo banakakoak diren...) eta antolamenduak bat etorri behar dute Ikastetxearen Antolamendu eta Jarduera Araudiak dioenarekin. Araudiak ez badio ezer gaiari buruz, ordezkaritza-organo gorenak onartu behar ditu dagozkion erabakiak. Era berean, bileren egutegia finkatu ere egin behar du ordezkaritza-organo gorenak, azaroaren 1a baino lehen.

Aurrematrikula garaian beharrezkoa den informazioa biltzea ezinbestekoa da, besteak beste, Hezkuntza Premia Bereziak dituen ikasleak behar ditzakeen ezohiko baliabide eta neurriak aurreikusteko eta premia bereziak izan ez arren, bai irakasle taldeak ezagutzea gelan jarraitu beharreko irizpide zehatzak (Irakurtzen irakasteari buruzko orientabideak, Arreta-falta eta hiperaktibitatea (AFN-H) duten ikasleei erantzun egokia emateko gida eta ohiko erabilera-tresnak). Informazio bilketa honetan garrantzi handiko lana egin dezake ikastetxeko Kontsultoreak eta Orientatzaileak eta, hala komeni denean, laguntza zerbitzuetako HPBko aholkulariei balorazio psikopedagogikoaren eskaera eginez.

Egokia dirudi atal honetan, azken urte hauetan sortzen ari diren familia eredu desberdinak aipatzea, eta ikastetxeek duten beharra familia taldekatze berri hauen eskaera eta behar espezifikotara egokitzeko. Zentzu honetan, "Adopzio ondorengo gidaliburua Hezkuntza arloko profesionalentzat eta gizarte eragileentzat"<sup>31</sup>, esate baterako, baliagarria izan daiteke.

### 2.3.9.e) Batxilergoko taldeen tutoretzaren antolaketa

Batxilergoko maila bakoitzeko ikasleek astean 33 eskola-ordu izan behar dituzte gutxienez. Ikastetxe bakoitzak zehaztu behar du ordutegia eta, horretarako, araudiko gutxienekoak errespetatu behar ditu. Aukeran, 33 eskola-orduetako bat erabil dezake irakasle tutoreak zuzeneko tutore-lana egiteko ikasleekin, tutoretza-plana garatzeko. Horrelakorik erabakitzen badu, tutoretza-lana egiteko ordua eskola-orduzat hartu behar da tutorearen ordutegiaren barruan.



Tutoretza-ordua 33 eskola-orduen artean ez badago, berriz, tutoretza-plana garatu behar da irakasleek ikastetxeari zuzenean ematen dizkieten orduetan ahal dela, ikasleen banakako eta taldeko arreta hobea izateko.

Bestalde, tutoretza-ordua 33 eskola-orduen artean ez badago, tutoretza-lana egiteko ordua ez da hartu behar eskola-ordutzat.

### **2.3.10.- PRAKTIKETAN IZANDAKO UNIBERTSITATEKO IKASLEEN TUTORETZA**

Unibertsitateko tituludun berriek irakaskuntza arloko egitekoetan prestakuntza praktikoa izan dezaten, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak lankidetzat hitzarmen bana izenpetu du Euskal Herriko Unibertsitatearekin, Deustuko Unibertsitatearekin eta Mondragon Unibertsitatearekin, horrelako praktikak unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan errazteko konpromisoa hartuta. Hortaz, ikastetxeetako zuzendaritzari gomendatzen zaie ahal den neurrian erraztea tutoretzapeko praktika horiek.

Ikastetxeko zuzendariak baimena eman ahal izango die praktika horietan tutoretza lanak egiten dituzten irakasleei eskola-orduen barruan kasuan kasuko unibertsitateak deitutako bileretara joan daitezten. Hutsegite horiek justifikatzeko deialdia eta zuzendariaren baimena aurkeztu beharko dira. Ezin izango da ordezkorik eskatu horiek betetzeko.

### **2.3.11.a) KULTURARTEKO PROIEKTUA DINAMIZATZEKO IRAKASLEAK**

Irakasle dinamizatzaileen eginkizuna da kulturarteko dinamizazio-proiektu bat zehaztea eta garatzea 2014-2015 ikasturterako, zuzendaritza-taldearekin elkarlanean. Jarduera-esparru hauekin lotutako jarduerak bildu behar ditu proiektuak:

- Harrera-plana eguneratzea, abian jartzea, haren jarraipena egitea eta ebaluatzea, ikasle guztiei eta haien familiei hezkuntza-sisteman sartzen laguntzeko.
- Ikastetxean, geletan eta erabiltzen diren material eta baliabideetan eskolako komunitatea osatzen duten kultura guztiak agerian jartzea, protagonisten beren ekarpenak balioetsita bereziki.
- Ikasle etorkinak eta gutxiengo etnikoetako ikasleak ohiko gelan integratzeko eta haiei hezkuntza-arreta emateko estrategia, prozedura eta baliabideei buruzko irakaskuntza-esperientziak biltzea eta irakasleen artean ezagutaraztea. Gainera, haiek erabiltzeko laguntza eman behar zaie irakasleei.
- Ikastetxea eta familiak (batez ere, ikasle iritsi berrienak) hurbiltzea eta familiei eskolako komunitatean integratzen laguntzea.
- Irakasle, ikasle eta familiak kulturartekotasunaren ikuspegitik sentibilizatzeko jarduerak sartzea ikastetxearen prestakuntza-planean.
- Ikastetxeko proiektuen gainerako arduradunekin koordinatzeko espazioak eta denborak ezartzea.

### **2.3.11.b) HIZKUNTZA INDARTZEKO IRAKASLEAK**

a) Hauek dira hizkuntza indartzeko irakasleen eginkizunak:

- Hizkuntza indartzeko programazioa egitea, betiere ikasleen beharretara egokituz.



- Tutoreari laguntzea ikasleekin banaka lan egiteko plana egiten.
  - Ikasleak ezagutzea.
  - Material didaktikoak aztertzea, antolatzea eta prestatzea, ikuspegi egokia erabiliz.
  - Hezkuntza dagokien bezala indartzea.
- b) Hizkuntza indartzeko irakasleek badituzte eginkizun hauek ere, eta ikasle etorri berrien tutoreekin batera bete behar dituzte:
- Gainerako irakasleekin koordinatzeko prozesu bat ezartzea, banaka esku hartzeko plana prestatzeko eta haren aplikazioaren jarraipena egiteko.
  - Ikasle etorri berrien harrera eta inklusioa erraztea, beren gaitasunak garatzen laguntzea eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten bultzatzea.
  - Ikasleen aurrerapenak eta ikasketak ebaluatzen parte hartzea.
  - Materialak eta edukiak zikloko eta etapako curriculumaren ikuspegitik egokitzea.
- c) Azkenik, eskolako komunitateko kide diren aldetik, hizkuntza indartzeko irakasleek eginkizun hauek ere bete behar dituzte, gainerako irakasleekin batera:
- Hizkuntzak irakasteko jarduerak planifikatzea.
  - Hezkuntza-prozesuan kulturarteko ikuspegia kontuan hartzeko jarduerak diseinatzea.

### 2.3.12. BERARIAZKO LANGILEAK

Atal honetan arautuko ditugun hezkuntza-komunitateko kideek eskolako testuinguruan lan egiten dute, gela barruan zein kanpoan, eta batzuek zuzeneko lotura dute ikaskuntza-prozesu formalarekin, baina gehienek ikaskuntza-prozesu ez formalean parte hartzen dute.

Ebazpen honen lehen kapituluaz azpimarratu dugunez, ikaskuntza ez-formalak oso garrantzitsuak dira ikaskuntza formalaren bidez eskuratutako gaitasunak finkatzeko. Bada, komeni da ondoko ataletako profesionalen lanaren garrantziaren kontzientzia hartzea eta haiekin koordinatzea eta elkarlanean aritzea, ikasleek probetxua ateratzeko haien testuinguruei.

#### 2.3.12.a) JANTOKIKO ARDURADUNA

Zuzenean kudeatutako eskolako jantoki-zerbitzuak, hau da, ikastetxeak berak ematen duenak, eragina du zenbait kide bakarreko eta kide anitzeko kudeaketa-organoren funtzioetan, hala nola ordezkari-organoren gorenaren, zuzendaritza-taldearen, Jantokiko Batzordearen, jantokiko arduradunaren...

Eginkizun hauek bete behar ditu jantokiko arduradunak, zuzendaritza-taldearen ordezkari, 2000ko martxoaren 22ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako derrigorrezko irakasmiletako eta Haur Hezkuntzako (2. zikloa) jantokiak arautzen dituenak, xedatzen duenarekin bat [EHAA, 2000ko martxoaren 28koa]:

a) Bazkari-zerbitzua antolatzea eta menuen jarraipena egitea, jasangarritasun irizpideak erabiliz eta elikagaiak xahutzea ekidinez.



b) Jantoki-zerbitzura atxikitako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko langileriaren buru izatea eta kanpoko langileen funtzioen gaineko aginpidea izatea, enpresa hornitzaileen eta haien langileriaren arteko lan-harremanei, halakorik egongo balitz, kalterik egin gabe.

c) Jankideek egin beharreko ordainketen jarraipena egitea, bai haien ikastetxeko jankideena, bai zerbitzua erabiltzen duten gainontzeko ikastetxeetako enena. Jantoki partekatua bada, kudeaketa ekonomikoa bakarria izango da eta jantokia kokatuta dagoen ikastetxeko kudeaketa ekonomikoa orokorraren baitan egingo da.

d) Jantokiko funtsen kontrol zuzenaz arduratzea.

e) Gainbegiratze-zereginaz arduratzea. Gainbegiratze-zereginak honakoak izango dira: zerbitzua ematen den bitartean ikastetxean egotea eta jantokiko diziplinaz nahiz funtzionamenduaz arduratzea.

f) OOGari ikasleen parte-hartzerako programak proposatzea.

g) Sukaldeko tresneriaren inbentarioa aldi berean behin prestatzea eta gaurkotzea eta behar direnak berriz jartzea.

h) Zerbitzua emateko kontratatutako enpresaren zerbitzuaren ezaugarriak eta kalitateari buruzko txostena aurkeztea OOGari eta instalazioak behar dituen obra eta hobekuntza proposatzea.

i) Elikagaien eta lokalen higiena zaintzea. Jantokiko hondakin guztiak bereiz jasotzen direla bermatzea.

j) Birkokatutako irakasleek, jantokia zaintzea zerbitzua ematen ari den bitartean [uztailaren 28ko 197/1998 Dekretua].

k) Zerbitzuak behar bezala funtziona dezan, egoki ikusten den beste edozein funtzio, bai eta indarrean dagoen legediak agintzen dizkion bestelako funtzioak ere.

l) Horrez gain, ikastetxeko Elkarbizitza Behatokiari bazkaria bitartean zein bazkalosteko denbora tartean elkarbizitza giroa hobetzeko proposamenak luzatu dakizkioke.

Bi langile motak egin ditzakete jantokia kudeatzeko eta administratzeko lanak:

- Birkokatutako langileen lan-poltsako jantokiko arduradunak, uztailaren 28ko 197/1998 Dekretuko neurriekin bat [EHAA, 1998ko irailaren 08koa].

Salbuetsita ez dauden irakasleek euskara ikasteko liberazioa eskatzen badute, haien lan-baldintzek xedatu behar dute astean 20 ordu (egunean lau ordu) ikastetxean egotea eta 2013ko irailetik 2014ko abuztura bitartean gutxienez 450 eskola-ordu eman dituztela egiaztatzea.

- Ikastetxeko bertako jantokiko arduradunak.

Jantoki-zerbitzuaz arduratzen direnen jardunaldiaren ehuneko hau erabili behar dute beren eginkizunak betetzeko:

| Mahaikideak         | Jantoki-zerbitzurako lanaldia | Egon beharreko ordu kopurua |
|---------------------|-------------------------------|-----------------------------|
| 30 edo gutxiago     | Lanaldiaren heren bat         | Ordubete egunean            |
| 31 eta 40 bitartean | Lanaldiaren erdia             | 1,5 ordu egunean            |
| 251 baino gehiago   | Lanaldi osoa                  | 2 ordu egunean              |





Aipatutako eginkizunak betetzeaz gain, jantokiko arduradunak jantokian bertan egon behar du, baita bazkالاurreko eta bazkalondoko atsedendietan ere, aurreko taulako orduetan. Azken batean, ikasleak zuzenean behatzeko eta arreta emateko tarte horietan jantokiko ardurak zeregin garrantzitsuak bete ditzake ikasleak integratzeko eta eskuratzen ari diren gaitasunak garatzeko eta finkatzeko.

Ikastetxe bateko mahaikideek beste maila bateko ikastetxe batekoekin batera erabiltzen badute jantokia eta jantokia beste ikastetxean badago, jantokirik ez duen ikastetxeak jardunaldi erdiko lanaldi-murrizketa izan behar du, 2000ko martxoaren 22ko Aginduko 15.e), 15.f) eta 15.j) puntuek finkatutako zereginak betetzeko. Gainera, beste hauek ere bete behar ditu:

- Zerbitzua eman bitartean jantokian **egotea** eta diziplinaz eta jantokiaren funtzionamendu egokiaz arduratzea.
- Otorduak eta otorduen aurreko eta ondoko atsedenaldiak **gainbegiratzea**.
- Mahaikideei jantokia duen ikastetxera joaten eta handik itzultzen **laguntzea**.

Jantoki-zerbitzuaren aurretik eta ondoren atsedenaldiak izaten dira, eta ohikoa da hezkuntza-administrazioetik kanpoko langileak arduratzea haiek zaintzeaz. Hala ere, komeni da kontuan hartzea, aitortzea eta balioestea zer-nolako lana egiten duten langileek eta zenbateraino izan daitezkeen baliagarriak eskola-jardunaldiko tarte horiek ikaskuntzak eta jakitateak (hezkuntza-komunitateak sustatzen eta ikastetxearen hezkuntza-proiektuak, urteko proiektuak eta hobekuntza-planak aipatzen dituztenak) finkatzeko.

HPBko ikasle batzuekin hezkuntza-laguntzako espezialisten laguntza izango dute jangelako-arduradunek, bai bazkari tartean eta bai aurreko edo ondorengo jolastorduan. Laguntza zerbitzuetako HPBko aholkulariek egindako balorazio psikopedagogikoan oinarrituko da eta azken horiek ebatsiko dute beharrezkoa den ala ez.

### **2.3.12.b.) JARDUERA OSAGARRIEN ETA ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN PROGRAMAKO IRAKASLEAK**

Hautatutako programez arduratzeko irakasleak dituzten ikastetxeei dagokienez, 1998ko maiatzaren 29ko Ebazpenak, Hezkuntza Sailburuordetzarenak, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko jardueren programara deitzen duenak, xedatzen du zer funtzio bete behar dituzten.

ACEX programaren barruko proiektuak ere aukera aparta dira ikasleek ikaskuntza formalaren bidez eskuratzen ari diren gaitasunak finkatzeko, proiektuez arduratzen diren irakasleek lagunduta.

Irakasleek antolatu behar dituzte jarduerak ikastetxeak ordutegia eta egutegia antolatzeko onartutako sistema orokorraren barruan –ikastetxeko zuzendaritzak onartu behar du irakasle bakoitzaren ordutegia–, eta ikastetxeko egutegian onartutako aldiak eta egunak errespetatu behar dituzte, bai lanaldi trinkoan, bai lanaldi etenean:



**a) Ikastetxeko eskola-ordutegia.** Elkarlanean programatzen eta garatzen badira jarduera osagarriak eta arduraduna ikastetxean bertan badago eskola-orduetan, proiektua ikastetxearen urteko planeko irakasleen programan sar daiteke, eta arduradunak erreferentzia-multzo bat izan dezake, eta ikastetxeko prestakuntza-programetan parte hartu. Era berean, ikastetxeko irakasleen eta hezkuntza-laguntza emateko espezialisten arteko koordinazioa mantentzeko. Bestalde, ordutegiaren barruan proiektuan duen ardurari dagozkion hezkuntza-premiei erantzun behar die.

Ordutegiaren zati horrek asteko lanaldiaren heren bat hartu behar du; hau da, 10 ordu.

**b) Ikastetxeko eskolaz kanpoko jardueretarako ordutegia.** Irakasleak programaren esparruan diseinatutako eskolaz kanpoko jarduerak gauzatu behar ditu, eta irakasle arduradunak zuzenean lan egin behar du parte hartzen duten ikasleekin –ikasleek beren borondatez parte hartu behar dute–.

Ordutegiaren zati horrek asteko lanaldiaren heren bat hartu behar du; hau da, 20 ordu.

Ordutegiaren banaketa aldatu egin daiteke proiektuen ezaugarri jakinen eta ikastetxeen egoeraren arabera. Nolanahi ere, hauek dira gutxienezkoak:

- 10 ordu astean, ikastetxeko eskola-ordutegian.
- 20 ordu astean, eskolaz kanpoko jardueren ordutegian. Bi ordu gutxienez ikasleen arratsaldeko eskola-orduen amaieran egin behar dira.

Programako irakasleak lanaldi erdian baino ez badaude, berriz, honela banatu behar dituzte zereginak:

a) Lanaldi erdia programari eman behar diote.

- 5 ordu astean, ikastetxeko eskola-ordutegian.
- 10 ordu astean, eskolaz kanpoko jardueren ordutegian. Ordubete gutxienez ikasleen arratsaldeko eskola-orduen amaieran egin behar da.

b) Lanaldi erdia ohiko arduraldiari eman behar diote, Ebazpen honetako 2.3.3.b) atalak dioen bezala banatuta.

### **2.3.12.c) LAN-KONTRATUKO IRAKASLE ETA HEZITZAILEAK. 2004ko maiatzaren 21eko Ebazpena [EHAA, 2004ko ekainaren 17koa]**

Ikastetxeek hainbat neurri har ditzakete aniztasuna antzemateko eta ikuspegi inklusibotik tratatzeko, eta horietako bat da zonalde jakin bati atxikitako irakasle eta hezitzaileengana jotzea, ikastetxeetara zein berritzeguneetara.

Izan ere, haien jakinduria eta espezializazioa kontuan izanik, ezin baliotsuagoak dira “Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoaren” barruan laguntza eskatzen dieten tutoreei laguntzeko eta, berezko izan behar dutenez, haien berriazko arreta eta laguntza behar duten ikasleen ahalmenak maximizatzeke.



Ikastetxe batzuetan heziketa bereziko beste profesional batzuen berariazko zerbitzuak dituzte ikasle jakin batzuek, berritzeguneez berentzat planifikatutako hezkuntza-proposamenarekin laguntzeko.

Lan-kontratuko irakasle eta hezitzaileak arautzen ditu beren hitzarmen kolektiboak xedatzen duenak –Lan eta Gizarte Segurantzako zuzendariak 2004ko maiatzaren 21ean emandako ebazpen baten bidez argitaratu eta erregistratu zen hitzarmena [EHAA, 2004ko ekainaren 17koa]–. Gainera, batzorde paritario bat eratu da hitzarmena aztertzeko eta zaintzeko eta tresna juridiko hori eta haren eranskinak osatzen dituzten gaiak garatzeko eta jarraitzeko. Bestalde, horrelako langileen funtzionamenduari buruzko orientabide jakinak emango ditugu, horretarako jarraibide eta zirkularren bitartez.

Ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek lagundu behar diete lan-kontratuko irakasle eta hezitzaileei (logopedei, fisioterapeutei, terapeuta okupazionaleri, hezkuntza-laguntza emateko espezialistei, CRI-ko profesionaleri, gor-itsuen artekari lanean dabilzan profesionaleri, ikasle gorren koordinatzailei ...) beren hezkuntza-komunitateko partaide sentitzen eta dagozkien plangintza-jardueretan (planetan, ordutegian...), koordinazio-jardueretan (bileretan) eta jarraipen-jardueretan parte hartzen, haien ekarpenak oso baliagarriak izan baitaitezke eskola inklusiboa izatea lortzeko, espezializatuak direnez gero.

Langile horien egutegiaren osatze eta tramitatze prozesua urtero ikastetxeetara bidaltzen diren arauen-arabera egingo da.

#### **2.3.12.d) ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETEA**

Hezkuntza-sistemako zeinu-hizkuntzako interpretea profesional aditua da zeinu-hizkuntzan eta gelako ahozko komunikazio-hizkuntzan, eta irakasle arruntak irakaslanean ikasleei esaten diena itzultzen du, hizkuntza nagusia zeinu-hizkuntza duten ikasleek ulertzeko. Horrenbestez, taldeko partaide da, eta haren gaitasun pertsonal eta profesionalak eredu eta gidari dira behar dituzten ikasleentzat ez ezik, baita gainerako taldekideentzat eta gelako irakasleentzat ere, ikasleei laguntzeko eta haiek integratzeko eredu baitira.

Hizkuntza bat den aldetik, zeinu-hizkuntzak ez du balio ahozko informazioa hartzeko eta igortzeko bakarrik. Aitzitik, harremanak izateko ere balio du, parte hartzeko eta eskubide eta betebeharrak negoziatzeko, jolasteko eta dibertitzeko; azken batean, noren talde edo komunitateko eskubide osoko kide izateko. Horrenbestez, zeinu-hizkuntzako interpreteak gizarteratze-prozesuan sarrarazten ditu behar duten ikasleak, eta, hartara, garapen pertsonal eta akademiko osora bide ematen die. Horrexegatik da garrantzitsua. Zehazki, eginkizun hauek ditu:

1. Curriculumean sartzen laguntzea ikasle gorrei eta hezkuntza-komunitateko eragile guztiekiko komunikazioa bermatzea.
2. Irakasle taldearekin eta ikastetxeko gainerako profesionalekin elkarlanean aritzea gorreria duten ikasleei hezkuntza-erantzuna emateko.
3. Irakasleekin koordinatzea gaiak eta irakaskuntza- eta ikaskuntza-jarduerak aurreratzeko.
4. Urteko plana eta txostena egitea, ikastetxean eta gelan eta ikasle gorrekin batera erabakitakoa adierazteko eta norberaren gaitasun profesionalaren barruko gainerako dokumentu eta txosten teknikoak egitea.



5. Hezkuntza-premia berezietarako aholkulariarekin edo/eta koordinatzailearekin koordinatzea ikasle gorra behar bezala eskolatzeko.
6. Gidaritza- eta interpretazio-lanak egitea ikasle itsu eta gorrekin.

### 2.3.13. LAN-KONTRATUKO IRAKASLE ETA HEZITZAILEEK LANALDIA BETETZEN DUTELA EGIAZTATZEKO KONTROLA

Lan-kontratuko langileen eginkizunek hain eragin etiko eta moral handia dute zaintzen eta laguntzen dituzten ikasleen ikaskuntza- eta gizarteratze-prozesuan, non horrelakorik ez izateak eragin esanguratsua baitu ikasleak eskolako dinamikan sartzeko prozesuan.

Horregatik, komeni da hezkuntza-komunitateko kideek aitortzea eta balioestea horrelako langileek funtsezko lana egiten dutela zaintzen eta laguntzen dituzten ikasleekin, haien senideekin eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideekin.

Kontuan izanik funtzio garrantzitsua betetzen dutela, hezitzaileek betebeharra dute ikastetxean betetzen dituzten funtzioen arabera dagokien ordutegia betetzeko. Ordutegia betearazteko, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak beharrezko kontrol-mekanismoak erabil ditzake.

Langileren batek ez badu betetzen ordutegia eta ez badu ematen inolako justifikaziorik, zuzendariak **Zonaldeko Ikuskaritza Burutzari** jakinarazi behar dio. Ordutegia bete ez eta inolako justifikaziorik ez emateak ekar dezake dagokion zenbatekoa kentzea soldatetik, Euskal funtzio publikoari buruzko Legearekin bat, eta, gainera, diziplina-erantzukizuna eragin dezake.

Era berean, grebarik badago, ikastetxeko zuzendaritza-taldeak haren eraginaren berri eman behar dio Zonaldeko Ikuskaritza Burutzari, eta ikastetxea antolatu behar du erabiltzeko dituen giza baliabideak erabilia ikasleei ahalik eta arreta egokiena emateko moduan.

Bestalde, baldin eta ikusten bada langile batek ez duela betetzen sartzeko eta irteteko esleitu dioten ordutegia (**nahiz eskola-orduak, nahiz ikastetxean egoteko orduak**), zuzendariak eskatu behar dio behar bezala bete dezan. Berdin jarraitzen badu, hileko bertaratze-agirian adierazteaz gain, hutsegiteak Lurralde Ordezkaritzako Langileen Unitateari eta Hezkuntzako Ikuskaritzari jakinarazi behar zaizkio, beharrezko neurriak har ditzaten.

### 2.3.14. BERTARATZE-AGIRIA

Hilaren 5a baino lehen ikastetxeetako zuzendariak aurreko hilabeteko bertaratze-agiriak bidali behar dituzte Zonaldeko Ikuskaritza Burutzara. Lan-kontratuko langileek greba egiten badute, berriz, bertaratze-agiria eta greba egin duten langileen zerrenda bidali behar dituzte, greba amaitu eta biharamunean.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diseinatutako aplikazio informatikoaren bidez prestatu behar dituzte bertaratze-agiriak, Hezkuntzako Ikuskaritzaren argibideei jarraituz. Langileek greba egiten dutenean ere aplikazio bera erabili behar dute haren eraginari buruzko datuak emateko eta greba egin duten langileen zerrenda prestatzeko.

Hileko bertaratze-agiriak dira ikastetxean zerbitzu egiten duten lan-kontratuko hezitzaile guztien bertaratze-agiriak. Langile batek bi ikastetxetan edo gehiagotan egiten badu zerbitzu, ikastetxe bakoitzeko zuzendariak dagokion bertaratze-agiria bidali behar du.



### 2.3.15.- LANERAKO PRESTAKUNTZA

2/2006 Lege Organikoaren 95. artikulua (2/2206 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzarena) betetzeari utzi gabe, eta 5/2002 Lege Organikoaren lehen xedapen osagarriaren 1. atalak adierazitakoari jarraiki, katedradunen kidegoko irakasleek, Bigarren Hezkuntzako irakasleek eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoek beren funtzioak bete ahal izango dituzte eskaintza integratuko ikastetxe publikoetan, eta lanbide heziketako modalitate guztiak eman ahal izango dituzte, beren profil akademikoaren eta profesionalaren arabera, baldin eta lanbide heziketako tituluetan edo dagozkion profesionaltasun-ziurtagirietan sartutako moduluak emateko baldintzak betetzen badituzte. Beren lanpostuaren lanaldia eta ordutegia osatu beharko dituzte irakasle horiek, beste modalitate batzuetako prestakuntza-ekintzak emanaz. Era berean, nahi badute, beren arduraldia handitu ahal izango dute, eta handitze hori interes publikotzat hartuko da eta arduraldia ez da bateragarritasun-baimenaren mende egongo.

Ikastetxeko zuzendaritzak irizpide objektiboak ezarriko ditu irakasgai horiek irakasteko gaitasuna duten irakasleei irakasgaiak esleitzeko. Irizpide horien artean, hauek izango dute lehentasuna: ekoizpen-sektorean esperientzia profesionala izatea, Enplegurako Prestakuntzako irakasgai horietan irakasle-lanetan jardun izatea edo eskainitakoarekin bat datorren Hasierako Lanbide Heziketan irakasle-lanetan jardun izatea. Halaber, irizpide horietan kontuan hartuko da oreka bat egotea Hasierako Prestakuntzako irakaskuntzaren eta Lanerako Prestakuntzako irakaskuntzaren artean.

### 2.4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Irakasleei buruzko zenbait ideia azpimarratu ditugu atal honen hasieran:

- Ordena sozial eta ekonomiko berriak erronka berriak ekarri dizkio hezkuntza-sistemari, eta aurre egin behar diegu ikasle guztiek beren ahalmen pertsonal, akademiko eta sozialak maximizatzeko.
- Irakasleak oso garrantzitsuak dira hezkuntza-komunitatean aldaketa sustatzeko.
- Irakasleak ikasteko eredu dira bizitza osoan, komunitateko kide guztiekin parte hartzeko eta elkarlanean aritzeko eredu, eta aniztasunari erantzuteko eta hura balioesteko giza eredu eta eredu etiko<sup>31</sup>.

Begien bistakoa denez, unibertsitateko prestakuntza, nahiz eta ezinbestekoa izan, ez da nahikoa irakasleek beren gaitasun profesionalak garatzeko eta ikasleek erronka moral, sozial eta kultural berriei aurre egiteko oinarritzko gaitasunen garapenera egokitzeko.

Aipatutako hiru ideiak kontuan izanik, irakasleak eduki-igorle huts izateari utzi dio, eta eredu laguntzaile bihurtu da eta bere autokontzeptu eta autoerrealizazioaren arabera jarduten du, bere gaitasun pertsonal eta profesionalaren arabera, bere etengabeko hazkunde eta hobekuntzaren arabera.

Hori guztia dela eta, adituek berriz planteatu dute zer gaitasun behar dituzten irakasleek beren printzipio pedagogikoak berriz formulatzeko, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak antolatzeko, rol berrira egokitzeko, hezkuntza-komunitate osoarekin harremanak izateko eta parte hartzeko, eta etengabe hazteko eta eguneratzeko prozesua antolatzeko.

<sup>31</sup>. Adopzio ondorengo ADOPTIA gidaliburua hezkuntza arloko profesionalentzat eta gizarte-erqagileentzat: <http://www.adoptia.org/eus/publicaciones.aspx>

32 UNESCO. Executive Board 194<sup>th</sup> (2014). [La educación después del 2015](#)



Alde horretatik, irakasleak hazteko eta eguneratzeko oinarriak izaten dira eguneroko esperientzia pedagogikoari eta harremanekiko eta parte-hartzearekiko eguneroko esperientziari buruzko hausnarketa, hezkuntza-komunitateko gainerako kideekiko koordinazio-eta lankidetzeta-bilerak, eta prestatzeko eta berritzeko aukerak.

Sailak aurkeztutako Prest\_Gara planaz balia daitezke irakasleak bana-banako edo hezkuntza-komunitate osoko prestakuntza-berrikuntza proiektuak garatzeko. Aipatutako planean Hezkuntza Berritzatzeko Lehentasun ildoan arabera antolatzen da prestakuntza eskaintza eta badago bertan, gainera, laguntza zerbitzu guztiekin luze eta zabal adostu den eskola-komunitateko prestakuntza-berrikuntza jardunaren azalpena.

Badira gainera Berritzeguneak eskaintzen dituzten prestakuntza saioak, mintegiak, ikastaroak, jardunaldiak, tailerrak, ... etapa guztietako irakasleentzat. Hauen bidez honako gaiak jorra daitezke: hezkuntza proiektuak, aniztasunaren trataera, eskola inklusiboa (HIPI, PREE, Bidelaguna, ...), ICP, ikas-irakas prozesuen kompetentzien garapena, elkarbizitza positibo baterako planak eta jarduerak (harreman osasuntsuak, berdinen arteko tratatu onak, hezkidetzeta plana eta jarduerak, hezkuntza afektibo sexuala, ...), hizkuntzan metodologia eta planak, metodologia aktiboak, esate baterako: ikaskuntza kooperatiboa, bikotekako irakurketa, proiektuak lanean eta ikasten aritzeko metodologia, zientzia proiektuak nola bideratu, ikastresna digitalen eta didaktikoen erabilpena, erakundeetako lidergoaren ingurukoak ...

2015-2016 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakasle guztiek astean orubete izan behar dute irakasleak prestatzeko proiektuak garatzeko.

Prestakuntza- eta berrikuntza-proiektuak planteatzeko, kontuan izan behar da zer xedatzen duen Hezkuntza sailburuordearen ebazpenak, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeentzako diru-zuzkidura edo diru-laguntzetarako deia egiteko denak prestakuntza-proiektuak eta hezkuntza berritzatzeko proiektuak gauzatu ditzaten 2015-2016 ikasturtean zehar.

Irakasleak trebatzeko jarduera horiek eta beste batzuek harremana izaten dute hobekuntza-planaren proposamenekin eta hezkuntza-komunitateko taldeek berrikuntzaren eta etengabeko hobekuntzaren inguruan dituzten ikuskera berriekin. Horregatik, prestakuntza-plana eratu behar dute, ikastetxearen urteko planaren barruan. 2015-2016 ikasturteko prestakuntza planean agertuko dira baita Curriculum berriari eta bertatik eratortzen diren prestakuntza-premiei buruzko orduak aurreikusita. Bestalde, Prest\_Gara planaren prozesua eta emaitzen balorazioa egingo den bezalaxe, ikastetxeari eskatuko zaio bana-banako zein hezkuntza-komunitatean egindako prestakuntza-berrikuntzaren inpaktua neurtzeko.

Komeni da irakasleek didaktika-gaiak presta eta egunera ditzaten eskolarekin eta hezkuntza-komunitateko eragileekin elkarreaginean, beste erakunde batzuetako irakasleekin sarean, eta unibertsitatearekin eta administrazioko erakundeekin harremanetan. Bestela esanda, ikasleek bezala, irakasleek ikasi behar dute testuinguru formal, ez-formal eta informaletan, eta ikaskuntza eta berrikuntza ekarri behar dute hezkuntza-komunitate osoaren jardunbideetara.



### 3. HEZKUNTZA-KOMUNITATEA eta ADMINISTRAZIOA, hezkuntza-ildoak eta -programak ezartzen liderrak eta arduradunak

#### 3.1.- SARRERA

Aurreko bi kolektiboei, ikasleenari edo irakasleenari edo eskola-ordutegian ikasleei kasu egiteaz arduratzen diren langileenari, familiak, komunitatean esku hartzen duten agenteak eta hezkuntza-administrazioa eta puntualki edo era jarraituan ikasleen ikaskuntza-prozesuan eragiten duten beste administrazio batzuetako kideak batzen zaizkie.

Oinarritzko gaitasunak eta bizitzarako ikaskuntza-gaitasunak eskuratzeko eta sendotzeko ibilbideak hezkuntza-prozesua modu esanguratsuan, erabakigarrian ez bada, eragiten duten agente guztiekin lankidetzara eta koordinazio-harremanak ezar eta artikulatzea eskatzen du.

#### 3.2.- OINARRI TEORIKOAK

Uste dugu egokia dela ikastetxean elkarrizketa indartzea irakasleen artean hezkuntza-komunitateari buruz zer uste, ideia edo joera dauden aztertzeko eskola inklusiboaren ereduari dagokionez, planteamendu teorikoak eta jardute moduak berregin ditzaten, antolamendu- eta curriculum-neurri egokiak artikulatuz, irakasleen antzinatasunarekiko errespetua bermatuko dutenak. Horretarako, egungo kulturaren bidez ikasleei eskaintzen ari zaien erantzuna eztabaidatu behar da, baita ikastetxean ezarritako hezkuntza-eskaintza ere (IHP, ICP), arreta berezia eskainiz alderdi metodologikoei (irakasle-ikasle harremana, espazioaren eta denboraren antolamendua, ikasleak taldekatzea, edukiak antolatzea, jarduera motak eta ebaluazioaren planteamenduak).

Ildo berean, argi dirudi aniztasunari erantzuteko esparru inklusibo batean, eta, zehazki, ikasle kalteberenei erantzun beharrekoan, erantzukizun kolektiboko lehentasunezko alderdia izan beharko lukeela, Aniztasunari Erantzuteko Planean adierazitakoari jarraiki. Lehen une batean, prebentzioaren bidez saiaturako gara desorekak doitzen, eta ondoren, prebentzioa nahikoa ez denean, erantzun eta neurri jakin batzuk hartu beharko dira, hezkuntza-esklusioa arriskuak konpentsa ditzaketenak.

Esan daiteke irakasleak hazi egiten direla eskola-erakundearen erakundeko kide diren profesionalak taldean ikasten duten eta jakintza partekatzen eta sortzen duten neurrian ("hazten den erakundea"). Horrelako erakunde batek harremanetan egon behar du, alde batetik, gizarte-eskaera eta -eskakizunekin, gertatzen ari diren aldaketa ekonomiko, teknologiko, kultural eta demografikoak eraginda, eta, bestetik, erakundetik beretik sortutako premiekin uztartuta, erakundearen ezaugarri izango baitira egitura jakin batzuk, baliabide jakin batzuk eta haren bizitza propioa eta ikastetxe-kultura propioa eratuko duten baliabide batzuk harreman-egitura bat.

Ikastetxea, administrazioaren kide den erakundea denez, hezkuntza-komunitate guztia biltzen duen testuingurua da, ikasle guztiak eta familia guztiak barnean hartzen dituen erakundea baita. Gauzak horrela, esanguratsuak direla frogatutako faktoreak balio erantsi handia<sup>32</sup> duten ikastetxeetako antolamenduko, kudeaketako eta lidertzako jardunbide egokiak dagokienez, honako hauek dira.

33 Eusko Jaurlaritza-ISEI-IVEI & EHU (2013). *Balio erantsi handiko ikastetxeen ezaugarriak eta jardunbide egokiak*.



- Arazo larririk gabeko eskola-giroa, irakaskuntza-jarduna normal garatzea ahalbidetzen ez duena (edo saihesten ez duena). Zenbait kasutan, normaltzat sailkatzen da besterik gabe, eta beste zenbaitetan ona edo oso ona sailkapenarekin. Azken kasu horietako zenbaitetan, bizikidetzaren eta gatazkak konpontzearen esparruan esperientzia eta prestakuntza duten ikastetxeak dira.
- Ikastetxeek ikuspegi eta filosofia propioa dute, argi definitu eta partekatutakoa. Zuzendaritzak ikuspegi hori partekatzen du klaustroarekin eta horren adierazgarri da haiek lortzeko helmugak eta bitartekoak ezartzen dituela.
- Zuzendaritza izendatua edo aukeratua izan den alde batera utzita, lidertza argia ezartzea izan ohi da faktore erkidea, hainbat mota eta estilotakoa izan daitekeena, hori bai, eta talde-laneko dinamika garbia ikus daiteke horretan.
- Ikastetxearen kudeaketaren sistematizazioko eta plangintzako, eta koordinazioko maila handia, kanpoko zein barrukoa.
- Denboraren kudeaketa egokia, ikasgelan irakasteko eta ikasteko prozesuari eskainitakoa zein ikastetxearen giza baliabideak antolatzeke gaiei buruzkoa.
- Ikastetxeak hasitako proiektu, programa eta jardueren ebaluazioa, Garapenerako Hezkuntzaren balioespen positiboa eta haren prestakuntza-erabilera ere detektatuta.
- Zuzendaritza taldearen igurikimen handiak ikasleekiko eta irakasleekiko.

(Eusko Jaurlaritza, 2013: 23-28)

Eskola eraginkorren azterlanetik ateratako faktore horiek kapitulu honetan eta aurrekoetan azpimarratu diren printzipio teorikoak berresten dituzte. Eskola-giroak, ikuspegi eta filosofia propioek, talde-lana errazteak, agente guztiekin koordinatzeak, gainerakoekiko konfiantzak eta haiengan jarritako igurikimenek eta ebaluazioaren kulturarekiko leialtasunak nahi diren emaitzak eragiten dituzte.

### **3.3.- IKASTETXEKO ERAIKINEN ETA INSTALAZIOEN ERABILERA URTEKO PLANEAN AURREIKUSITA EZ DAUDEN EKINTZETARAKO**

Maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuak (2008ko maiatzaren 19ko EHAA) Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-eraikin eta instalazioak ikastetxeen urteko programazioetan sartuta ez dauden hezkuntza-, kirol- eta kultura-jardueretarako zein izaera sozialeko bestelako jardueretarako Administrazioak eta ente publikoek edota edozein pertsona fisikok zein juridikok erabiltzeko prozesua arautzen du.

Dekretuaren artikuluetan zehazten dira, besteak beste, jardueraren ezaugarriak, erabiliko diren instalazioak, lehentasunak, erantzukizunen araubidea eta eskabideak egiteko eta baimenak emateko ohiko prozedura laburtua.

Ildo horretan, ikastetxeke espazio eta instalazioa komunitateko kide guztiei zabaltzea agente guztiak biltzeko eta hartzeko modua da, komunitatean parte-hartze aktiboa errazten duen eta komunitate hori indartzeko baliagarria den egiteko modu bat. Dena den, gogorarazten dugu nahitaez bete behar duela ikastetxeak maiatzaren 6ko (2008ko maiatzaren 19ko EHAA) 76/2008 Dekretu horrek araututakoa.





### 3.4. - IKASTETXEETAKO OSASUN ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Hezkuntza-komunitateko hainbat agentek eskola-bizitzan parte hartzeak eta laguntzeak bereziki ikasleen osasun eta segurtasunarekin lotutako zenbait alderdi nahitaez arautzeko eskatzen du, eta ikastetxean biltzen den kolektibo osoarena ere bai.

#### 3.4.1. - OSASUN-LARRIALDIAK IKASTETXEETAN

Ikastetxeetan osasun-larrialdirik badago, ikastetxeko irakasleek edo irakasle ez diren langileek 112 LARRIALDI-ZERBITZURA deitu beharko dute, eta bertan azalduko diete nola jokatu.

#### 3.4.2. - OSASUN-ARRETA ESKOLA-ORDUETAN.

Osasun-beharrizan bereziak dituzten ikasleei arreta emateko, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko azaroaren 29an erabaki zuen jarduera-protokoloa beteko da (ikusi Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren web orria).

#### 3.4.3.- IKASLEENTZAKO BANA-BANAKO ARRETA

Hezkuntza-laguntzako premia bereziak dituzten ikasleekin esku hartzen dute espezialistek, inklusibitate-printzipioetatik jardunda, bana-banako arreta egingo dute ohiko ikasgelaren testuinguruaren barruan. Dena den, zenbait zirkunstantzia direla-eta esku-hartze hori ohiko ikasgelaz bestelako toki batean egin behar bada, kanpotik ikusi beharko da bana-banako esku-hartze hori egiteko erabiliko den espazioa.

#### 3.4.4.- IBILGAILUAK IKASTETXERA SARTZEKO MODUA

Ikastetxe batera sartzen den edozein ibilgailuk zuzendaritzaren baimena izan beharko du.

Sartzeko baimena baldin badu, ezin izango da ikasleak sartu eta irteten direnean eta jolasaldietan sartu. Gainera, **adostutako prozedura bat** ezarriko da eta ordutegiak, ibilbideak eta eskola-esparruaren barruan zirkulatzeko arauak zehaztuko dira, baita seinaleztatzea ere. Prozedura hori idatziz erregistratuko da eta ikastetxeko arduradunek eta ibilgailuaren gidariak ezagutuko dute.

Aparteko egoera batean ikastetxera sartzen bada, ikastetxeko zuzendaritzak edo eskuordetzen duen pertsonak lagundu beharko diote ibilgailuari.

#### 3.4.5.- OBRAK

Agian eskola-ordutegian obrak egin beharko dira ikastetxe batean.

Lehen kasuan, proiektuak segurtasun- eta osasun-azterketa bat sartzen du. Azterketa horretan errespetatu beharreko argibideak azalduko dira, obra txikien kasuan bezala. Horietan, lantokiaren irekitzeari jarraitu beharreko segurtasun-plan bat gehitzen zaio.



1.- Edozein kasutan ere, obren gunea eta irakaskuntzako gunea erabat bereizi beharko dira. Honako hau eskatzen du horrek:

- a) Obragunea erabat hesitzea.
- b) Sarbide independenteak, bai bakarrik obrakoak diren ibilgailuetarako, bai obrako pertsonalarentzat.
- c) Obrakoa ez den pertsona orori sartzea galarazteko kartela.
- d) Ibilgailuak sartzen diren atetik oinezkoak sartzea galarazteko kartela.

2.- Plano bat ikastetxearen sarreran eta obra-gunean ikusteko moduan jartzea. Plano horretan bi gunek argi eta garbi bereizita, koloreen arabera, agertu beharko dute, behar diren sarbide eta adierazpenekin. Plano hori ere ikastetxeko zuzendaritzaren eskura jarriko da.

3.- Obretako ibilgailuak irakaskuntza-gune irekitik sartu behar izanez gero, obrako arduradunak betiere izan beharko du pertsonala, sarrera-irteerak kontrolatzeko eta ikasleen eta ikastetxeko pertsonalaren segurtasuna bermatzeko.

#### 3.4.6.- TABAKOA ETA ALKOHOLDUN EDARIAK

Ikastetxeko zuzendaria indarreko araudia betetzeaz arduratuko da, ikastetxeetan ikasleen eta irakaskuntza mota alde batera utzita, **tabako eta alkoholdun** edarien espedizioa eta kontsumoa debekaturik baitago eta era berean hala eskatzen duten **ekipo eta instalazioen mantentzeaz**

#### 3.4.7.- ESKOLAKO LABORATEGIEN ERABILERA

Laborategietako jarduera ikasleen adinera eta gaitasun-mailara egongo da egokitua, baita instalazio teknikoetara ere. Pertsonen segurtasuna bermatuko da uneoro, eta indarrean dauden protokoloek agintzen dutena zainduko da.

#### 3.5.- LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ZERBITZUA.

Gogorarazten dizuegu lan-arriskuen prebentzioari buruzko **informazio** gehiago hurrengo helbidean duzuela: <http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net>, Prebentzio-Zerbitzua zatian edo bestela Prebentzio Zerbitzuko teknikariei kontsulta eginez.

| <b>PROBINTZIA</b> | <b>ZONA</b> | <b>TELEFONOA</b>      |
|-------------------|-------------|-----------------------|
| <b>ARABA</b>      | 1. ZONA     | 945 01 84 51          |
| <b>BIZKAIA</b>    | 1. ZONA     | 94 403 11 92          |
|                   | 2. ZONA     | 94 403 11 93          |
|                   | 3. ZONA     | 94 403 11 93          |
|                   | 4. ZONA     | 94 403 11 92          |
| <b>GIPUZKOA</b>   | 1. ZONA     | 943 02 31 74          |
|                   | 2. ZONA     | 943 20 84 44 181 luz. |



### 3.5.1.- SEGURTASUN LAGUNTZAILEA

Dagozkion eginkizunak burutzeko, hezkuntza-kudeaketarako ikastetxeari emandako ordu-murrizketaren zati bat esleitu ahal izango dio zuzendariak segurtasun laguntzaileari. Prebentzio zerbitzuak antolatuko dituen bileretara joan ahal izateko, irakasle honen ordutegian asteartean 8etatik 11etara klaserik ez izatea ahaleginduko da.

Zuzendaritza taldeari gogorarazten zaio desiragarria litzatekeela laguntzailearen figura ikastetxean egonkortasun maila bat duen langileari esleitzea lanari jarraikortasuna emateko.

### 3.5.2.- IRAKASLERIAREN PRESTAKUNTZA PREBENTZIO ARLOAN

Prebentzio arloan Hezkuntza Sailaren 31/1995 Legearen 19. artikuluan xedatutako prestakuntza beharrezkin betetzeko xedez, eta 31/1995 Lege horren 29. artikuluan xedatutako langileek betetzeko, irakasleriaren prestakuntza edota ikastetxerako arduraldi orduetatik gutxienez urtero 2 ordu utziko dira prebentzio arloko prestakuntzarako.

Prestakuntza Prebentzio Zerbitzuak ikastetxe bakoitzean emango du beharrezko aurrerapen egokiz zehaztutako egun eta ordutegian.

### 3.5.3.- LARRIALDIETAKO SIMULAZIOAK

- Urtero eta derrigorrezkoa den jarduera izanik, Ikastetxeko Urteko Plangintzan sartuko da.
- Ikastetxe guztietan gutxienez urtean behin eta posible den heinean ikasturte hasieran burutu beharrezko jarduera da.
- Simulakro egin osteko ebaluazioa Segurtasuna- Larrialdiak atalean prestatutako formulario webaren bitartez besterik ez da igorriko.

### 3.5.4.- BOTIKIN ERAMANGARRIA

486/1997 Errege Dekretuak lantokietako gutxieneko segurtasun eta osasunari buruzko xedapenak ezartzen ditu. Errege Dekretu horrek xedatzen duen arabera, lantoki orok gutxienez botikin eramangarri bat izango du, honako hauek edukiko dituena: desinfektante eta antiseptiko baimenduak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, benda, esparatrapua, apositu itsasgarriak, guraizeak, pintzak, erabili eta botatzeko eskularruak.

Lehen sorospenetarako materiala aldiro aztertuko da eta iraungi edota erabili bezain laster ordezkatu da.

### 3.5.5.- LAN ISTRIPUAK

Osasun-laguntza eta jakinarazpena webean Segurtasuna- Lan istripuak atalean: Lan-istripuen jakinarazpenak diotenaren arabera burutuko da .

### 3.5.6.- LAN-ARRISKUEN PREBENTZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Zuzendaritza taldeak ikastetxeko langile orori Lan arriskuen ebaluazioa eta ikastetxeko larrialdi plana jakinaraziko dizkie.



### 3.6. URTEKO KUDEAKETA-PROGRAMA

Urteko kudeaketa-programak zehaztu behar du ikastetxearen kudeaketa-proiektua. Aurrekontua osatzea eta onartzea da urteko kudeaketa-programaren atal nagusia, eta uztailaren 28ko 196/1998 Dekretuak xedatzen duenarekin bat egin behar da [EHAA, 1998ko irailaren 14koa eta 1998ko irailaren 23koa].

Gure ustez, ikastetxeen zuzendaritzaren kudeaketa testuinguruan kokatu behar da, baita eskura ditugun baliabideen kudeaketa ere, espazioena, ordutegiena, “jarduera arautu” eta “jarduera arautu gabe” direlakoena; izan ere, ikastetxeak eta inguruneak berezkoak dituzte, eta on handia egiten dute ikasleek arrakasta izateko eskolan. Gure ustez, ikastetxe bateko hezkuntza-komunitatearen berariazko hezkuntza-jarduera bat ere bada protagonista ikaskuntzan “eskola-ordu” direlakoetatik kanpo. Gure ustez, kontuan izanik “eskolako porrot” delakoa disruptiboa dela Bigarren Hezkuntzan, beharrezkoa da bizikiago bultzatzea ikasleek eskolan arrakasta izatea. Horregatik guztiagatik, esperientzia pilotu bat jarriko dugu martxan, ikastetxe bakoitzeko testuinguruan ebaluatuko eta kokatuko duguna: “Hauspoa”.

Zuzendaritza-taldeak edo Batzorde Iraunkorrak landu behar du urteko planaren zati hau, eta ordezkari-organok gorenak onartu.

Gasturen bat dakarten jarduerak bildu behar ditu programak; tartean, jantokia, garraioa, jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak. Gainera, ataletan banatu behar ditu: diru-sarrerak, gastatzeko aurreikuspenak eta irizpideak, kudeaketaren arduradunak, kontrol-sistemak...

**Vitoria-Gasteiz, 2015eko uztailaren 7a**

**HEZKUNTZA SAILBURUORDEA**

**Izpta.: Arantza Aurrekoetxea Bilbao**

## ERANSKINA I

### Kurtso hasierako ebazpenaren laburpen taula

| 1/1993 EEP Legearen 46. artikuluan  | ZELAN   | LANABESAK  | NOIZKO                |
|---|---|--|-----------------------|
| <p>a. Hezkuntza-helburuak zehazteko kontuan hartzen diren ingurunearen eta gainerako baldintzen zehaztapena.</p> <p>b. Ikastetxearen jarduera mugatuko dituen oinarrizko helburuak eta lehentasunak; besteak beste, ondorengoak jasoko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxeak garatuko dituen proiektuak, eskola-elkarteko partaideen prestakuntzarakoak, hezkuntza berrikuntzakoak, desberdintasunarekiko arretazkoak, ikastetxe eta erakundeekiko lankidetzakoak, edo epe erdikora ikastetxearen hezkuntza-jarduera zehaztu dezaten gainerakoak.</li> <li>• Inguruneko gizartearekiko lotura-harremanak.</li> </ul> | <p><b>IKASTETXEKO URTEKO PLANA</b></p> <p><b>ETA</b></p> <p><b>URTEKO MEMORIA</b></p> | <ul style="list-style-type: none"> <li>• Hezkuntza-jardueren programa.</li> <li>• prestakuntza jardueren programa,.</li> <li>• Eskolaz kanpoko ekintzak eta ekintza osagarriak.</li> <li>• Urteko kudeaketa plana.</li> </ul> <p>Eusko Jaurlaritza (2011). <i>Ikastetxeareb urteko plana eta urteko memoria egiteko gida</i>. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzua</p>                     | 2015eko urriaren 30a  |
|   | <p><b>HOBEKUNTZA PLANA</b></p>  | <p>2014-2015ean egindako ebaluazio diagnostikoan ikasleek lortutako emaitzetan eta ikastetxeak ikuskaritzarekin , ISEI-IVEIrekin eta Berritzegunearekin lankidetzan egindako jarduera kurrikularraren barne ebaluazioen emaitzetan oinarrituta</p>   | 2016eko ekainaren 30a |
| <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikasketa-proiektuan garatuko diren ikastetxearen curriculum-helburuak eta, beraien artean, pedagogia ildoak.</li> <li>• Inguruneko gizartearekiko lotura-harremanak.</li> </ul>  | <p><b>IKASTETXEKO CURRICULUM PROIEKTUA</b></p>  | <p><b>Ikastetxeak orain arte osatuta dituen dokumentuak txertatuko ditu atal honetan, zeinetan ikasleak garatu behar dituen oinarrizko gaitasunak zehazten diren.</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• <b>Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren eremu curricularra.</b></li> <li>• <i>Sare_ hezkuntza gelan.</i></li> <li>• Metodologia eta didaktikari lotutako proiektu eta esperientziak.</li> </ul> | 2015-2016             |

| 1/1993 EEP Legearen 46. artikuluan  | ZELAN  |                                      | LANABESAK  | NOIZKO    |
|---|--|--------------------------------------|--|-----------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Eskola bizitzan parte hartzeko modua, ikastetxearen jardura arautzeko irizpide nagusiak jasoz; irizpide horiek antolakuntza eta jardura araudian zehaztuko dira.</li> <li>Ingurunekeo gizartearekiko lotura-harremanak.</li> </ul> | <b>IKASTETXEAREN PLANA ANIZTASUNRI ERANTZUTEKO 2015.</b> | ELKARBIZITZA<br>PLANA                | Elkarbizitza Plana aktibatu.<br>Eusko Jaurlaritza (2013). <i>Bake eta Bizikidetzaren Plana</i> . Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.,Lehendakaritza. [ <a href="#">ikus dokumentua</a> ] <ul style="list-style-type: none"> <li>Elkarrekin Bonoak (HH/LHko ikastetxeetan)</li> <li>Adi-Adian (BHko ikastetxeetan)</li> </ul>                                       | 2015-2016 |
|   |  | HEZKIDETZA<br>NEURRIAK               | <u><i>Hezkuntza sisteman hezkidetzaren eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana.</i></u>   | 2015-2016 |
|   |  | ETA<br>JASANGARRITASUN<br>IRIZPIDEAK | Jasangarritasun irizpideak:<br>1) Ikastetxearen jasangarritasunaren aldeko konpromisoak eta helburuen azalpena.<br>2) Erosketa berdeko irizpideak<br>3) Mugikortasun irizpideak<br>4) Tokien, baliabideen eta hondakinen kudeaketa<br>5) Ikastetxean eta inguruan parte hartzeko bideak<br>6) Planaren kontrol eta jarraipenerako adierazleak, haren ebaluaziorako | 2015-2016 |

| 1/1993 EEP Legearen 46. artikuluan   | ZELAN   |   | LANABESAK   |  | NOIZKO   |
|--|---|---|---|--|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxeak garatuko dituen proiektuak [...] desberdintasunarekiko arretazkoak, ikastetxe eta erakundeekiko lankidetzakoak, edo epe erdikora ikastetxearen hezkuntza-jarduera zehaztu dezaten gainerakoak.</li> <li>Inguruneke gizartearekiko lotura-harremanak.</li> </ul> | IIKASTETXEAREN PLANA ANIZTASUNRI ERANTZUTEEKO 2015.                                 | <p style="text-align: center;"> <b><u>ESKOLA</u></b><br/> <b><u>INKLUSIBO</u></b><br/> <b><u>AREN</u></b><br/> <b><u>ESPARRUA</u></b><br/> <b><u>N</u></b><br/> <b><u>ANIZTASUN</u></b><br/> <b><u>ARI</u></b><br/> <b><u>ERANTZUT</u></b><br/> <b><u>EKO PLAN</u></b><br/> <b><u>ESTRATEGI</u></b><br/> <b><u>KOA</u></b><br/>                     (2012-2016)<br/>                     [Ezohiko neurri kurrikularrak]                 </p>  | <p style="text-align: center;"> <b>IKASLE ETORKINENTZAKO HEZKUNTZA-ARRETARAKO PROGRAMA:</b><br/><br/> <b>KULTURARTEKO PROIEKTUA ETA HIZKUNTZA INDARTZEKO PROIEKTUA</b> </p> | <p style="text-align: center;"> <u><i>Ikasle etorkinentzako hezkuntza arretarako plana egiteko orientabideak.</i></u><br/><br/>                     Kurturarteko dinamizazioa eta Hizkuntza Indartzea                 </p> | Ikastetxeko urteko planean zehaztuta agertu behar dute.  |
|  |   |   | <p style="text-align: center;"> <b>IKASLE IJITOEEN ESKOLATZEA HOBETZEKO PLANA (2012-2015)</b> </p>  | <p style="text-align: center;"> <u><i>Ikasle ijitoen eskolaratzea hobetzeko orientabideak</i></u> </p>   |  |
|  |   |   | Hezkuntza premia bereziak   | Adimen, entzumen, ikusmen edo urritasun fisikoak eta garapenaren ezgaitasun orokorrak<br><br>Urritasun anitzak edo ikasle gor-itsuak.<br><br>Jokabide-trastorno larriak  | <p> <b>CEI(ACI) esanguratsuak.</b><br/>                     Ikastetxeko zuzendaritzak curriculumaren egokitzapen indibidual esanguratsua Berritzegunera bidaltzeko aukera izango du <u>urriaren 15 arte</u> </p> <p> <b>Derrigorrez eskolaratzeko unea atzeratzeko edo eskolaldia luzatzeko neurriak.</b><br/>                     Ikastetxeko zuzendaritzak eskolaldia atzeratzeko edo luzatzeko proposamena egingo du <u>maiatzaren 30a</u> baino lehen                 </p> |
|  |   |   |   | <p style="text-align: center;"> <u><i>Ikasle gorren sarbidea hizkuntzen curriculumean.</i></u> </p>  |  |
|  |   |   |   | HPBetako ikasleei erantzuna emateko curriculumera sartzeko bitartekoak   | Ikastetxeko zuzendaritzak <u>irailaren 27a</u> baino lehenago igorriko dio Berritzeguneari behar dituen baliabideen proposamena HPB distuzten ikasleen arabera 2015-2016 ikasturterako. <i>Berritzeguneak</i> eskualdeko premiak aztertuko ditu eta baliabideen aurreikuspena <u>apirilaren 11a</u> baino lehen Hezkuntza Berrikuntzarako Lurraldeburutzari igorriko dio.  |
|  |   |   |   | <p style="text-align: center;"> <u><i>Arreta goiztiarra (0-6)</i></u> </p>   | <p style="text-align: center;"> <u><i>Arreta goitiarra jasotzen, garapen-trastornoak dituzten edo izateko arriskuan dauden ikasleei begirako berriazko jardunak.</i></u> </p>  |
| <p style="writing-mode: vertical-rl; transform: rotate(180deg);"> <b>Adimen gaitasun handikoak</b><br/>                     (2012-2016)                 </p>   | <p style="text-align: center;"> <u><b>Adimen gaitasun handiko ikasleak</b></u> </p> | <p> <b>Adimen gaitasun handiko ikasleentzat Curriculumaren hedapenezko Egokitzapen Indibiduala (ACI de ampliación)</b><br/>                     Ikastetxeko zuzendaritzak Curriculumaren hedapenezko Egokitzapen Indibiduala <u>urriaren 15a</u> baino lehen bidaliko du Berritzegunera.                 </p> <p> <b>Eskolatu beharreko unea heldu baino lehenago eskolatzea eta eskolaldia laburtzea</b><br/>                     Ikastetxeko zuzendaritzak zikloa hasi baino lehenago eskolatzea edo eskolaldia laburtzea eskatuko du <u>maiatzaren 30a</u> baino lehen.                 </p> |   |  |  |

| 1/1993 EEP Legearen 46. artikuluan   | ZELAN  |   | LANABESAK  |   | NOIZKO   |
|--|--|---|--|---|--|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Ikastetxeak garatuko dituen proiektuak [...] desberdintasunarekiko arretazkoak, ikastetxe eta erakundeekiko lankidetzakoak, edo epe erdikora ikastetxearen hezkuntza-jarduera zehaztu dezaten gainerakoak.</li> <li>Inguruneko gizartearekiko lotura-harremanak.</li> </ul> | IIKASTETXEAREN PLANA ANIZTASUNRI ERANTZUTEKO 2015. | <p style="text-align: center;"> <b><u>ESKOLA</u></b><br/> <b><u>INKLUSI</u></b><br/> <b><u>BOAREN</u></b><br/> <b><u>ESPARR</u></b><br/> <b><u>UAN</u></b><br/> <b><u>ANIZTA</u></b><br/> <b><u>SUNARI</u></b><br/> <b><u>ERANTZ</u></b><br/> <b><u>UTEKO</u></b><br/> <b><u>PLAN</u></b><br/> <b><u>ESTRAT</u></b><br/> <b><u>EGIKOA</u></b><br/>                 (2012-2016)<br/>                 [Ezohiko neurri kurrikularrak]             </p> | <b><u>Ikasteko zailtasunak</u></b>                                 | <p>HIBP. <u>Hezkuntza-Indartzeko Banakako Plana</u> .</p> <p>Arreta goiztiarra (0-6): <u>Irakurketa irakasteko orientabideak</u><br/>                 AFN-H sindromea duten ikasleak eta ohiko baterabiltzeko tresnak.</p>  | Kurtsoa errepikatu edo arlo 1 gainditu gabe duten ikasleak |
|  |  |   | <b><u>Berandu eskolaratzea eskatzen duten ikasleak</u></b>         | Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak agintzen duenaren arabera  | Hala dagokionean   |
|  |  |   |  | Gela egonkorreko Curriculum proiektua   | <u>Ikus dokumentua</u>                                     |
|  |  |   | DBH  | PREE deialdia   | Maiatzaren 9a baino lehen                                  |
|  |  |   | <b><u>HH/LH &amp; DBH</u></b>                                      | BIDELAGUNA deialdia   | Maiatzaren 9a baino lehen                                  |
|  |  |   | DBH  | Curriculum anitzeko programa  | Ekainaren 30a arte   |
|  |  |   | <b><u>DBH eta beste</u></b>  | HAUSPOA [2015-2016: ezohiko deialdia esperientzia pilotua]  | Jarraipena   |
|  |  |   | <b><u>Ospitaleko, etxeko edo arreta terapeutiko-hezigarria</u></b> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Ospitaleko laguntza emango da Euskal Autonomia Erkidegoko zenbait ospitaletako hezkuntza-laguntzako geletan. Ikasleak ospitaleko tratamendua behar duenean, ospitaleko gelako irakasleak emango dio arreta pedagogikoa, eta ikasleak ikastetxean duen tutorearekin koordinatuko da.</li> <li>Etxeko languntza, berriz, irakasleak emango du ikasleen etxeetan, baldin eta medikuaren aginduz ezin badira ikastetxera joan. Egoera horretan dauden ikasleek eskolan ikasi eta gizarteratzeko, ikastetxeetako zuzendariak 1998ko uztailaren 30eko Aginduko 35. artikuluan ezarritako prozedura jarraituko dute. Agindu horren bitartez, beharrezan bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzen dira, eta ikasle horiek behar dituzten baliabideak jarri hezkuntza-sistemako maila guztietara helarazteko.</li> <li>Eremu terapeutiko-hezigarriko laguntza Osakidetzako haur eta gazteentzako osasun mentaleko zerbitzuarekin batera emango da, ezarritako lankidetzak-hitzarmenaren arabera.</li> </ul> |  |



| 1/1993 EEP Legearen 46. artikuluan   | ZELAN                                  | LANABESAK  | NOIZKO           |                                     |
|--|--|--|------------------|-------------------------------------|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>Euskararen erabileraren normalkuntza lortzera bideratutako jarraipideak.</li> <li>Inguruneko gizartearekiko lotura-harremanak.</li> </ul> | <b>IKASTETXEKO HIZKUNTZA PROIEKTUA</b> | <b>HIZKUNTZEN ESPARRU DIDAKTIKO-METODOLOGIKOA</b><br>Mintzamina (hitz egiteko eta elkarrizketan aritzeko gaitasuna)<br>Elkarreragina<br>Idazmena<br>Irakurmena<br>Entzumena<br>Norberaren Hizkuntza Gaitasunari buruzko kontzientzia; egindako aurrerabidearena eta aurreratzen jarraitzeko asmoa eta proiektua<br>Hizkuntza-elkarbizitzarako irizpideak eta trebetasunak<br>A ereduko ikasleen euskara ezagutza indartzeko ekimena<br>Batxilergoan B ereduko lerroak irekitzeko ekimena | <b>2015-2016</b> |                                     |
|  |  | 2014-2018 Normalkuntza Proiektuari dagokion 2015-2016 Urteko Normalkuntza Plana  |                  | Irailaren 30a                       |
|  |  | Urteko Normalkuntza Memoria  |                  | Ekainaren 30a                       |
|  |  | NOLEGAKO deialdi bateratua (orain arteko: Ahozko Adierazmena, IKE, EGE, IKABIL deialdia guztiak biltzen dituena )  |                  | Irailaren 2tik urriaren 2a arte     |
|  |  | Euskal Girotze Barnetegiak Programa  |                  | Otsaila-apirila                     |
|  |  | Urruzunotarrak Gehituz Programa  |                  | Urtarrila-martxoa                   |
|  |  | Ikas2deak Programa   |                  | Irailaren 15etik urriaren 15era     |
|  |  | EIE Programa. Idazleak Ikastetxeetan   |                  | Irailaren 15etik urriaren 15era     |
|  |  | IRALEko deialdia   |                  | Otsaila-martxoa                     |
|  |  | EIMA deialdia (batik bat EIMA IV)  |                  | Apirila-maiatza                     |
|  |  | ARRUE Proiektua (Ematzen zabalkundea eta tokian tokiko hausnarketa)  |                  | Ebaluazioa diagnostikoarekin batera |
|  |  | <b>ETA</b><br>Udalerrietako hizkuntza-plangintzarekin koordinazioa   |                  | Udaletxearen eskaeraren arabera     |
|  |  | <b>ATZERRIKO HIZKUNTZEI LOTUTAKO PROIEKTUAK</b><br>ELEANITZA;MET; ERASMUS +<br>Irakasten den/diren hizkuntzen plana:-mailak-ordutegiak eta-irakasleak<br>Atzerriko hizkuntzan(etan) irakasten diren arloak<br>Irakasle eta hezkuntza-komunitateko kideen prestakuntza deialdia.<br>Atzerriko hizkuntzan irakasteko hizkuntza prestakuntza eta gaurkotzea ahalbidetzeko Irakasleei bideratutako Prest_Gara deialdia.  |                  | Irailaren 30a baino lehen           |